

Martxoaren 30ean disolbatu egingo da Nafarroako Legebiltzarra /4

Jauregi: «EAJ eta EEren programa kontserbatzailea eta nazionalista da» /4

Udaletxeetan autobideaz mozioak aurkeztea erabaki dute HBko alkateek /5

EUSKALDUNON Egunkaria

Ostirala, 1991ko urtarrilak 18 / II. urtea / 36. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

KIROLA

Bost Nazioen hasiera kolokan

Bost Nazioen rugby txapelketa jokatuko denentz zalantzan dago. Bihar hastekoa zen, baina International Boardek Golkoan gerra hasiz gero bertan behera utziko dutela adierazi zuen orain egun batzuk. / 2

Hasi da tanke borroka

Gerrak luze iraun dezakeela esan du Pentagonoko buruak

Atzo goizaldeko aire erasoaren ondoren, lurrekoari ekin zioten indar aliatuek. Tanke borroka bortitzak ari ziren gertatzen Arabia Saudia eta Kuwaiten arteko mugan, Jordaniako irratiek esan zutenez. BBCren arabera, Kuwaiterantz zihoazen atzo ilunez zuten eten hala ere Estatu Batuen agindupeko indarrek, eta Iraken erasoa geldierazteko.

Nazio Batuen ultimatumaren epea bete eta 18 ordutara erasotu zuten indar aliatuek, Estatu Batuen gidaritzapean. Aire eraso masibo eta etengabea jasaten ari da Irak atzo goizaldeko 02.30etatik (00.30 Euskal Herrian). Pentagonoaren arabera, bonbardaketen helburuen % 80 jo zituzten gerra hegazkin aliatuek, baina borrokak «denbora luze samarrean» iraun dezakeela gogorarazi zuen atzo arratsaldez Richard Cheney EEBBetako Defentsa idazkariak.

Bonbardaketek Iraken sortu dituzten biktimetaz ez da ezer jakinarazi. Saddam Hussein, behintzat, bizirik dago eta Bagdadeko kaleetan agertu zen atzo telebistan. Indar aliatuek hiru hegazkin galdu dituztela konfirmatu da, iparramerikar bat, britainiar bat eta kuwaitiar bat. Aliatuen 44 abioi eraitsi zituztela adierazi zuten, aldiz, Iraken iturri militarrek.

Oraingoz, aire erasoa ez da geldituko. Estatu Batuek Iraken baldintzarik gabeko errendizioa esijitu zuten atzo, eta hori gerta dadin ez dute suetenik eskainiko. Erabat utzi behar diote borrokari irakiarrek, gerraren makina gelditzeko. / 9-19

✓ Baldintzarik gabeko errendizioa exijitu dute Estatu Batuek.

Gerra hegazkinek bere helburuen % 80 jo zu- tela dio Pentagonoak.

Soldadu Britainiarrak Arabiako basamortuan, aireko erasoaren emaitzak ospatzen. AP

GEORGE BUSH

■ «Gerra ez da luzea izango, ezta beste Viet Nam bat ere. Ez dugu hutsegingo».

■ «Orain, espero dut, herri irakiarrak bere diktadorea komentzituko duela armak utz ditzan».

SADAM HUSSEIN

■ «Irabazi egingo dugu, Fahd, saudi herria zure aurka jarriko bait da gurekin».

■ «Zuek hegazkin eta tanke gehiago dauzkazue, baina nazio baten indarra bere fedean dago».

Ezusteko eragina burtsan eta petrolioan

Euskal Herrian gerraren kontra

Milaka lagun irten zen kalera gerra hasia zela jakin bezain laster. Eskoletan batzarrak egin ziren goiz erdian eta eguerdi partean protesta ekintza jendetsuak izan ziren. Iluntzean manifestazioak egin ziren hiriburu eta hainbat herritan. Gaur eta ondoko egunetarako, gerraren kontrako hainbat protesta ekintzetarako deiak luzatu dituzte Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak eta Bakearen Aldeko Euskal Iniziatibak. Irakaskuntza ertainean eta unibertsitateetan greba deialdia egin da gaurko.

BESTERIK

POLITIKA

«Kalekoa delako» erabili omen zuten obispoek 'preso politiko' hitza / 5

GIZARTEA

Nafarroako Herri Izendegia aurkeztu du Euskaltzaindiak / 7

KIROLA

Gaur bilduko da Donostian Nazioarteko Atletismo Federazioaren kontseilua / 21

KULTURA

Sambhu eta Kili Kolo tldeek antzezlan berri bana / 26

BARBAR(I)A

LUCIEN ETXEZAHARRETA

«ZER pitokeria gerra!», Jacques Prévert-en hitz horien errepikatzeko gogoa dut. 'Barbara' poeman bezala, zakur leher eginen gorputzen gisala Ouessant uharteko parrean badoatzi, uhainen kulunkan, zorion izaten ahalko ziren irudimen etsigarriak. Maitasun soil bat, Barbara, barbariak erahila. Gerrak gizadi guzia erahiltzen du bakar baten bidez.

Bere hegalen azpian, nork derabila gerla? Eraikitzen utzi ditugun estatu indartsuak, gauaren meategietan heriotz indarren nagusitasun guzialdunaren lantzen ari izan dira. Armada, berez, gure bizien jaun eta jabe dena, scenario idazten ari da, apokalipsia programatuz.

Pariseko metroan, anarkisten pegatinak: hilarri militar batetatako kurutze xuri lerrokadak eta goian, publizitate baten parodia, «armada, gerra, gure bezeroek dizute hori hobekienik aipatuko»...

Berandu gabiltza: ezpatak ez dira golde bilakatu. Golde izan direlarik ere, ildoetarik atera uztak ez dira denentzat izan. Gose eta injustiziaren uztek goldeak ezpata arrabihurtu dituzte.

Gerlarik ez dadin izan inork ez omen daki zer egin. Gezurra. Gerla tresnen sortzaile diren estatuak desegin behar dira. Nork nahi du? Injustizia uzta ereileak gelditu behar dira. Nork nahi du?

Ezpata golde, maitasun erahilaren oroimen samina ezpainetako irrian. Oroit hadi Barbara.

Komunikabideak Golkoan

JOXERRA GARZIA

GOLKOKO gerra minutuz-minutu gure emisoran, entzuten dut dialeko puntu guztietan. Gure telekanalean bezalako gerrarik ez duzu besteetan topatuko, zappingean nabilela telebista pribatu nahiz publikoetan. Dena prest dago munduko ikuskizunik handiena zuzen-zuzenean, bizi-bizian (heriotza bizian ematerik balego) eskeintzeko.

Armagintza ezezik komunikazioaren teknika ere oso aurreratua ageri zaigu, guardasolak bezala bildu, eta batetik bestera eraman daitezkeen antena parabolikoak lekuko.

Entzun, amerikarrek beren lehen erasoan antena horiek bidenabar suntsituko ote dituzten entzuten dut, ez omen zaiela komeni haur elbarri kiskalien irudirik munduan zabaltzerik. Ez dakit nik. Ikuskizun bihurtu diguten gerra honetan komunikabideek hartu duten jokabideak zer pentsaturik franko eman dit.

Telebistari begira ikusten ditut nik filme honetako protagonista nagusiak. Kamerak garaiz itzali eta mikroak hasieratik itxi izan balitzaie ez ziren agian iritsi diren punturaino iritsi izango, telebistaz agertzen ez dena apenas erreala baita.

Ez dakit «Pattom» filmean baino irudi hoberik emateko gauza ote diren teknologia harrigarri horiekin. Dena dela, nik ez dut telebistaz gerrarik ikusi ez ikusterik nahi.

HEMEROTEKA

•ABC

Euskal zalantza

EAJ-EE hitzarmenaren helburu 'programatiko' gehienak —konstituzioan lekurik ote duteneko zalantza handia alde batera utziz— ez daude euskal erabakien esparruan, baizik eta Gobernu zentralarekin akordioa behar zuketeela eta, zenbaitetan agian, Gorteek bozkatutako lege bat. Bere bideratasuna beraz, PSOE Elkarteko Exekutibatik kanpo dagoelarik, ia, ia hutsa da. Eta gainera, lekuz kanpoko adierazpenak egiten hasten badira, Treviñoko Konterri gaztelarraren erreibindikazioa edo Gorteek dagoeneko errefusatutako pretentsioak berraipatzearen gisakoak, hala nola barruti elektoral europearra, geure buruari galdera hau egin diezaiokegu: ea benetan nahi ote duten akordio bat.

EDITORIALA / 1991-I-17

● EL CORREO ESPAÑOL

Eskenatoki kezkagarria

Korapiloaren askapena horrela zegoen aurrez finkatua; EEk porrot egindako tripartitoari emandako aportazio doktrinalak, Ramon Jauregi eta bere kideak sartzea bideratu beharrean, zaildu egin duelako agrabantearekin. Batzuren eta besteren malgutasun ezak larriki kaltetu ditu Gobernu espektatibak, porrotera bidaliaz babes gehien zuen bidea, arrazoizkoena eta integratzaileena. Eta hori une oso kezkagarrian, nazioarteko zalantzak irudikatua, atzerakada ekonomiko arrastoekin eta ETAren eraso bortitzarekin, zeinak Irurtzun-Andoain autobidea aukeratu duen instituzioei txantaia egiteko objetutzat.

EDITORIALA / 1991-I-17

•EL SOL

Naufragoen salbamendua

Horrela bete liteke kronista batek gizarteari «adar jotzea» erizten ziona, eta zaila da gizarteari azaltzea, 1986ko zatiketa Cainista eta mingarriaz geroztik eta EAk EAJri zuzendu dion hitzaldia eta gero (zeinak bere ustez *aberrisaltzaile* bezala jokatu duen), orain gauzak ezadostasun dialektiko hutsean geratzen direla, ia lurrinduak. (...)

Ez bada EAJk, *naufragoen salbamenduarekin*, magma nazionalista berri bat eraikitzea nahi duela, zeinean gutxika, gutxika, hurbilen dauden alderdiek bat egingo duten. Denborak esango du.

I. MAYOR / 1991-I-17

•EL PAIS

Arrazoiaren etsipena

Ezin dira alde batera utzi gerrak izango dituen ondorioak.

ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-I-17

Irak-en hondamenak, ez luke bakarrik Saddam Hussein-ekin bukatuko; oso garestia litzateke irakiarrentzat. Gizabanakoen sufrimenduaz gain, berez istilutsua den alde baten, Irak antolatutako gizarte bezala desagertzea, ez litzateke inondik inora desiragarria izango.

(...)

Islamiar fundamentalismoaren bultzada jasanezinak, *Mare Nostrumaren* egonkortasunerako ezinbestekoa den erregimen politikoen normaltasuna suntsitzeko mehatxua dakar.

EDITORIALA / 1991-I-17

ZUZENDARIARI

Biolentoak beti biolento

Ba omen dabil jende bat azken denbora honetan «pakearen» alde lanean tinko. Hoiek beti esan duten arabera indarkeria inoiz ez da justifikatzen, indarkeria guztiak berdinak dira eta beraz, guztiak gaitsetzi egin behar direla diote, hau guztia asetu arte errepikatu ezik, «paktukoek» deitzen diren hoiek, benetan astunak izan dira biolentoen izenburua besteei ezartzen.

Astunkeria honek zerbait susmagarria zekarrela erraza zen pentsatzea, eta inoxentegia izatea bada ere, ni oraingoan konturatu naiz zertan datzan ustelkeria horrek Golkoko krisiari esker.

Zein aldakorra den gizakia!!. Golkoko krisia dela eta, hain baketi ziren «paktuko» buruzagiak Espainiako gobernuak tropak bidaltzearekin bat zetozen (Idigorasek bidalitako bake mezutik aldenduz). Batzuk zioten: gudurako itsasuntziak ontziak pake misioan bidaltzen ditugu (Felipe Gonzalez), orain hasten naiz ulertzen zelako pakea duten buruan, beste batek, (Bandresek) bere garai onetan esaten zuenari zin egiten zion «nere arma toga da»; nik, ulertzen jarraitzen dut eta toga hori berdea delakoan nago (goardia zibilak eramaten duena bezalakoa), eta horregatik ikusten dut gero eta argiago zertan datzan beraien pakea.

Baina zalantzaren bat edukiko banu ere, guztiz argituta gelditukо litzaidake Ardantzari jaramon eginez. Berak askotan esaten du: «pistola eskuan daukanak ezin du bakeari buruz hitz egin», eta inoxente naizenez orain ulertzen dut zergatik hautatu dituen berak bukeak eta kainoiak eta ez pistolak, zer,bakezale jarraitzen izateko? edo eta indarkeria mota guztiak gaitsezteko?

Ba dut bai «galderatxo» bat gotzaientzat: ze alderdietan pentsatzen zuten botoa bideratzeko asmotan atera zutenean pastoral hura?, beraiek zer ziren: ni bezala inoxenteak edo agian inoxentegiak?.

Funtsean dagoena zera da, nola ulertzen dugun pakea, eta nik neuk honela ulertzen dut: askatasuna, berdintasuna, justizia eta kultura... eta... arraioa!!! oraintxe ohartzen naiz zergatik deitzen zidaten biolento, fanatiko, terrorista... eta horrelako gauzak irakasleak edukitzeko eskubidea aldarrikatzen nuenean, ohartzen naiz ere horrek justizia, berdintasuna eta kultura dakarrela, eta hori ukatzen didatenek direla betiko Biolentoak, bai unibertsitatean, bai Jaurlaritzan eta baita ere Golkoan.

MIKEL ALDASORO
(ALGORTA)

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean.

PERTSONAIA

Txiki Benegas

Algara bihurtu da
aurpegi serio,
lau urteko maitasun
eta amodio.
Apurtu Euskadiko
Ezkerra medio,
gaur arte egindakoak
ez al du balio,
Larrosa gorriari
kiratsa dario.

XABI AJURIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria
Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 27
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 Faxa: 36 54 93
Publizitatea: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Hala ere eskua zabalik

EUSKAL Herriaren ardatz nagusia euskara dela sinesten duen nik bezalako norbaitek euskaldunon nola-halako batasuna ikusi nahi luke, eta horregatik aipatzen nuen iaz DEIAn egin zidaten elkarrizketan amildegi ikaragarria zegoela gure artean, batzuak hemen, besteak han, eta zubiak eta zubiak eriki beharra zegoela; aipatzen nuen, baita ere, pazifistatzat nuela neure burua eta bakea zela herri honek merezi zuen saririk ederrena; bi muturrak zerbait hurbildu nahian, aholku batzu ematen nizkion ETAri, denborak aldatu zirela esanez, eta beste batzu blokeko jendeari, desblokeatu eta eskuzabalagoak izan zitezela eskatuz; hitz anbiguoak, nire ustez, bere burua zubigiletzat izan nahi duen edonork bi aldeak eduki behar izango bait ditu kontuan zubiak benetan eraiki nahi badi tu, bere jarrera pertsonala nabarmendu gabe, nahiz eta gero bere bizitzan, bozkatzeko orduan adibidez, alde batera bestera baino gehiago jo, ezinbestean. Baina elkarrizketa hartan aipatu nuen, baita ere, bertan azaldu ez zen arren, euskal mugimendu pazifista independentista bat izango litzatekeela nire ametsa (Ghandi-ren antzera edo), eta horregatik ez nengoela 'Gesto por la Paz-ekoekin' ados, bide erdian geratzen zirela iuditzen zitzaidalako: eta bide erdian geratzen direla iuditzen zait. Herri honen oinarrizko eskubide politikoak inoiz aipatzen ez dituztelako, eta bortxakeria kondenatzen dutenean ETAri soilik eskatzen diolako armak uztea, inoiz ez ejerzito espainolari edo goardiazibilari; baina esan beharra dut, baita ere, ez naizela pazifista tonto eta inozo bat eta kontzientea naizela mundu honetan indar armatuak direla nagusi, oraingoz behintzat; beraz, pazifista naiz, baina badakit pazifismo hori testimoniala dela eta une honetan bere eragina horizontean dirdir egiten duen artizarraren eraginarekin pareka daitekeela, testimonio etiko-estetiko huts batera mugatzen delarik soilik; hala ere, alde batetik ez-praktikoa banaiz, horrek ez du esan nahi soluzio praktikoen alde ez nagoenik, eta horregatik beti egongo naiz, konfliktuan edo auzitan dauden indar armatuen arteko negoziazio guztien alde, bai El Salvadorren, bai Pertsiar Golkoan eta bai hemen Euskal Herrian. Eta hau dena esaten dut gure herriko egoerak soluziorik ez duela iruditzen zaidalako, ez irtenbide politiko negoziatu bat ematen ez zaion bitartean behintzat, zeinetan indar armatuez gain indar politikoek ere parte hartu beharko bait lukete, jakina. Ez, ez zait iruditzen aski ETAkoak pelikulako gaizto bakarrak bezala ateratzea —eta nire ingurukoek badakite ez naizela inoiz ETAzalea izan, nahiz eta ulertu beti ulertu izan ditudan, inola ere ez justifikatu—, gure mendebaldeko demokrazia 'santuak', Espainiakoa tartean, Irak-en gerra egin eta milaka irakiar hiltzeko prest daudenean... edota aurreko urteetan Irak eta Iran-go ejerzitoak armaz hornitu zituztenean, gerra ikaragarri hartan ehundamilaka arabiar hil zitezen; ETAkoek beren ideialak azalduko dituzte justifikazio gisa; 'demokratak', berriz, pelikulako onak balira bezala agertzen saiatuko dira beti, askatasuna lau haizeetara aldarrikatuz, berdin pertsiar Golkoko krisian, baina inozoa ez denak badaki hori gezur hutsa dela, eta askatasunaren gainetik eta azpitik, petroliotik letorkeen dirua dagoela nagusiki.

Baina lehen zubiak aipatzen nituen, euskaldunon arteko zubiak, eta penaz ikusten dut, negarrez ia, geure egoera gordin bezain mingarria; izan ere, hortxe dago autobidearen arazoa; gauzak hain muturrera eraman ditugu, ezen zubiak eraikitzerik ez dagoela iruditzen bait zait; eta zubia eraikitzerik ez dagoenean, nork bere aldez aurretiko jarrerari eutsiko dio, eta nik ere horixe egingo dut lerro hauetan, hasieratik egon nintzen projektu honen kontra, eta joan ere joan nintzen manifestazio batera, handik aurrera gehiagotara joan ez banintzen ere, halakoetan gertatu izan ohi diren manipulazioengatik (noiz ikasiko dugu euskaldunok, alde guztikook, mugimendu zabal bat behar dugula, ahalik eta zabalena, geure indar guztiak ere hain urriak direnean, etsai politikoek dituztenekin konparatuta!); esaten nuen, bada, hasieran kontra egon nintzela, eta orain diferentzia batekin, prozesu istilutsuetan erreferenduma erabiltzearen aldeko jarrera demokratikoagoa iruditzan bait zait niri, ikuspuntu horretatik 'Lurraldeakoekin' ados nagoelarik. Eta okerrena da horren ondorioz inoiz baino gehiago blokeatu direla blokeoak, eta HB erabat baztertzea erabaki dutela: horra hor, bada, euskaldunon arteko haustura ia definitiboa. Pozik euskaldunok zatitu eta elkarren aurka jartzea lortu ondoren! Eta honako hau pentsatzen dut: zer eskaintzen digu ba demokrazia espainolak, euskaldunok hain prezio altua ordaindu behar izateko? Hainbeste merezi al du demokrazia horrek, euskararekiko eskubideak eta gaztelerarekiko obligazioak behin eta berriro azpimarratzen dizkigunean, gure eskubideak behar bezala aintzakotzat hartzen ez dituenean?

Bukatzeko, ez nuke inork lerro hauetan gorrotorik ikusterik nahi, ez bait dut gizakien arteko gorrotoan gehiegi sinesten... egunero begiratzen bait diot nik heriotzari aurrez aurre, gorrotoan sinesteko; bakarrik esan nahi nuen min handia dudala, gure arteko zatiketa hauengatik, eta ahaleginak egin beharko genituzkeela historia triste hauei lehenbailehen amaiera emateko... eta orain bizi dugun infernuan ere, ez genukeela eskua elkarrengana luzatzeko ahalmendik galdu behar: nik behintzat, nagoen lekutik, berdin jarraituko dut, eskua luze eta zabal, halako batean eskurik gabe gera naitekeela baldin badakit ere.

JOAN MARI IRIGOIEN
IDAZLEA
TXEMA AUZMENDI
KAZETARIA

Lurraldea alternatiba eta elkarrizketa

AZKEN egunotan behin eta berriz gauza berbera errepikatzen duten zenbait eztabaidazalek lanari ekin diote, beraien lanaren zati bat «Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko komunikabideei irtenbidea emateko Lurraldea Alternatibak» esistitzen ez duela egiaztatzeko erabiliz, nahiak errealitatearekin nahastuz. Insistitzen dute baita Nafarroa-Gipuzkoa komunikabideen arazo guztia konexio estrategiko ilunak dituen trikimailu batetara murrizten dela.

Herritarren kritika zanpatzearen askatasunaren defendatzaile gogotsu hauek ez dira zailtzen arazo ekologiko eta sozial garrantzitsu honi irtenbide errealista eta bidezko bat bilatzen, eta itsukerian murgilduta errotak erraldoiekin nahasten dituzte.

Lurraldea Koordinadorak bi gauza bakar bakarrik nahi ditu. Lehenengo, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko komunikabideen hobekuntza bat gauzatu dadila. Hobekuntza bat, gure ingurugiroa Irurtzun-Andoain autobide proiektu hondatzaileak —Euskal Herriko, Espainiako eta Europako talde ekologista guztiek zeharo ezegokitzat jotzen dutena— baino gehiago errespetatuko duena.

Bigarren, Koordinadorak nahi eta aldarrikatzen du, egin beharreko trazaketaren erabakiak teknikoki kontrajar dezala hau gaur egun dauden beste alternatiba batzurekin (dagoeneko ez da Lurraldea Koordinadora bakarrik: enpresek trazaketa alternatiboak proposatzen dituzte, tolosar taldeak, etab.). Eta herritarren eskuhartze formula bat (Erreferenduma, Bitartekaritza Komisioa, Adiskidetze Konferentzia, etab...), demokratikoagoa, zalantzarik gabe, erortzen dena erortzen dela proiektuak aurrera eramateko erabilitako omnipotentzia baino; omnipotentzia hau, ordezkaritza parlamentarioaren gehiegizko interpretazio batetik dator.

Auzi sozial eta ekologiko honen muina, gaur egun Nafarroan dauden ugariena bezalaxe, zeintzutan ETAk ez duen parte hartu, hauxe da: inguruko beste ezein herri baino herriak parte hartzera gutxiago ohitua dagoen administrazioak, egitasmo eztabaidatsuak indarra dela medio ezartzen dituela.

Burrunben eta manipulazio arriskutsuen gainetk, autobidearen auzian nahasturiko agente sozialen arteko elkar ulermenak, Lurraldea herri mugimendu ekologista barne, eman diezaioke amaia era egoki eta iraunkor batean egoera honi. Proba dezagun elkarrizketaren bidea. Hobe berandu sekula baino.

BEGOÑA HUARTE AZPIROTZ
LURRALDEA KOORDINADORAKO KIDEA
*Erredazioan itzulia

BERRIAK ZIRI

GEORGE BUSH
EL DIARIO VASCO
1991-I-17

«Munduak ezin zuen gehiago itxaron»

SAADI MAHDI SALEH
EL SOL
1991-I-17

«Eskura ditzakegun bide guztiak erabiliko ditugu: arma kimikoetatik hasi eta makila eta harriak arte»

ANTONIO ARAGON
DIARIO DE NAVARRA
1991-I-17

«Gipuzkoako hitzarmenek autobideko lanen etorkizuna eta jarraipena argitzen dute»

JON LARRINAGA
EL MUNDO
1991-I-17

«EEren bereziena nazionalista 'lightak' garela da»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Jauregi: «Programa kontserbatzaile eta nazionalista dute EEk eta EAJk»

Sozialistek hiru baldintza jarri zituzten gobernu hirukoitzean egoteko

Ramon Jauregik «Programa nazionalista eta kontserbatzailetzat» jo zuen EAJk eta EEk eskaini ziotena. Bi alderdiok «Malgutasunik eta aldaketa nahirik» ez agertzeak ekarri zuen Gasteizko gobernu hirukoitzerarako negoziaketak haustea, sozialistaren esanetan.

Z.ZAMAKOLA / **BILBO**

Ramon Jauregik eta Marcos Merinok, PSE-PSOEko idazkari nagusiak eta idazkariordeak hurrenez hurren, atzo agertu zuten prentsaurrekoan sozialisten ustez gobernu hirukoitzean parte ez hartzeko arrazoiak zeintzuk izan ziren.

Jauregik salatu zuen «edukin kontserbatzailea eta nazionalista» daukala berari eskeini zioten programak, «EAJrekin eraman dugun politikarekiko atzerapena erakutsiz».

Programaren edukin nazionalista hizkuntza eta hizkuntz politikaren arloan, kulturan eta hezkuntzan kokatu zuen.

Kultura eta EITB euskal nazio eraikuntzerako tresna bezala jotzen direla esan zuen Jauregik. Hain zuzen ere, erantsi zuen programa horretan EITB hizkuntz normalkuntzarako tresna bezala jotzen dela, komunikabide izaeraren gainetik. Jauregik adierazi zuen «zerbaiten tresna izatekotan nazioaren normalkuntza sozialerako tresna» izan behar lukeela.

Hezkuntzan, sozialisten ordezkariak salatu egin zuen bi hizkuntz eredu baino ez direla agertzen programan, diru laguntza politika okerra daramala eta ukatzen diola ikastolak sare publikoan sartzeari.

Ramon Jauregi eta Marcos Merino, hausturaz PSE-PSOEren bertsioa emanez. KEPA

✔ EE eta EAJren programan kultura eta EITB euskal nazio eraikuntzerako tresna bezala jotzen direla esan zuen Jauregik.

MALGUTASUN EZA BILERAN

Jauregik salatu zuen bi alderdi nazionalistek ez zutela onartu ezta «gehigarri batean gure desakordioak agertzea». Era berean gogorarazi egin zuen bide hori 1987.go hitzarmenean hiru gaitan erabili zela, «bitan EAJk eskatuta», nahiz eta adierazi eranskin bakarra eskaini zietela.

Kontseilaritza banaketari buruz, Jauregik esan zuen EEk eta EAJk «negoziazioak hausteko moduan» ipini zizkiotela gauzak. Bi alderdi nazionalisten proposamenean lehendakaria kanpoan geratuta, bion botu elkartuak zenbatzen ziren, eta gero D'Hont-en legea ezarri, «dena sozialistei kontseilaritza bat kentzearren», Jauregiren arabera.

Idazkari sozialistak eritzi zion EAJ behartuta sentitu zela ahultasun egoeran sozialistekin negoziatzera, baina berriro ere indarberrituta dagoela, Xabier Arzalluzek eurekin negoziatzearen aldeko jarrera azaldu arren, «gobernu nazionalista osatzearen aldeko joera» nagusitu dela jeltzaleen barruan.

Sozialistak negozitzeko prest segitu zuen, baina «gure jarrera ezagutzen» dutela gogorarazita, 3 baldintza jarri zien nazionalistei: malgutasunez jokatuta, gehigarriak onartzea; birnegoziaketak onartzea eta 5 kontseilaritza eta azpilehendakaritza gordetzea PSE-PSOErentzat. EEren jarreraren inguruan, sozialistak esan zuen ez daudela «nire arreta politikoaren ikusmira», halere ikuspuntu ideologikotik alderdi nazionalista bezala jokatzea leporatu zion.

Gaur ireki daiteke aldi berri bat EAEko Gobernua osatzeko

Z.Z / **BILBO**

Gaurko erabaki daiteke, EAJ eta EE bikotea noiz bilduko den EArekin, Gasteizen hirukote nazionalistak osatutako gobernurako negoziaketak hasteko.

Asteazken gauean EAJren Asanblada Nazionalak oneritzia eman zion EArekin negoziatzen hasteari, EBBk egindako proposamena onartuta. Atzo, berriz, EEren eta EAJren exekutibak gai hau aztertzeko bildu ziren, bakoitza bere aldetik baina harremanetan, EAJko iturrien arabera.

Hiru alderdion arteko bilkurak, negoziazioen etapa berri bati hasiera emango dio. Hain zuzen ere, jeltzaleek argi utzi zuten sozialistek aukera zutela negoziaketei berrekiteko, harik eta EArekin kontaktuak izan arte. Behin EArekin negoziatzen hasi ostean, «apurtutzat» joko zen aurreko negoziazio etapa.

Oraindik bilera egunaren berri zehatzik ez badago ere, asteburu hau amaitu aurretik izateko aukera haundiak daude. Juan Ramon Gebara eledunak «negoziaketa azkarrak» burutzeko asmoa erakutsi zuen, nahiz eta bizpairu egunetako atsedenaldia ere gomendatu.

GOBERNU HITZARMEN ERRAZA

Lehenengo bileraren emaitzen zain, ez dirudi zaila izango denik negoziazioak aurrera eramatea. EAk hauteskundeen hurrengo egunetik bertatik defendatu du hiru alderdiok osatutako gobernua, eta atzo bertan alderdi honetako iturriek berretsi egiten zuten EAJk eta EEk burututako programa esku artean zutela, ez zutela ikusten «arazo handiegirik» hitzarmena burutzeko.

Egibar jeltzaleen eledunak, Asanblada Nazionaleko tarte batean aipatu zuen ez zuela ikusten arazo haundiegirik sor zitekeenik gobernu nazionalista hirukoitza osatzeko. EAk erantsi zuen EAJ-EE bikoteak zehaztutako programa eskuartean izateak negoziazioak «azkartuko» zituela. Negoziazio hauetan egon daitekeen arazo handiena kontseilaritza banaketan sor daiteke. EEk eta EAJk hitzarmenduta dute PSE-PSOE ez den beste alderdiren bat gobernuan sartuz gero ez duela EEk baino kontseilari gehiago izango. Kontutan hartuta EAk EEk baino 3 parlamentari gehiago lortu zituela hauteskundeetan, gerta liteke desadostasunak sortzea.



Ardanza eta Arzalluz hizketan, Arteako Asanblada hasi aurretik. EFE

Martxoaren 30ean disolbatuko dute Nafar Parlamentua

A.U. / **IRUNEA**

Nafarroako Parlamentua martxoaren 30ean disolbatuko da, foru hauteskundeen data udal hauteskundeena bezala, maiatzaren 26rako finkatua gelditzen delarik. Berez hauteskundeak ekainaren 10ean izan behar zuten, baina Sanferminak direla eta, egokiago dirudi udal hauteskundeekin batera ospatzea.

Hau horrela izateko, Nafarroako hauteskunde Legearen 12 eta 13. artikuluak aldatu beharko dira. Puntu hau izan zen eztabaidagai atzo arratsaldean Aladino Colin, Lehendakaritza eta Barne kontseilariak talde parlamentarien ordezkariekin mantendutado bileran.

UPN, PSOE, PP, EE, EA eta CDSko ordezkariek aho batez onartu zuten Legearen aldaketa. Ondorioz, hemendik aurrera, eta lau urtetik behin, maiatzaren azken igandean izanen dira Nafarroan udal eta foru hauteskundeak. Orain Nafarroako Gobernuari dagokio Lege proiektua egitea eta Parlamentura pasatzea.

Halaber, hauteskunde kanpaina hamabost egunetara mugatzea erabaki zuten parlamentari taldeek. Euskadiko Ezkerreko parlamentari den Ramon Arozarenak EGUNKARIAri adierazi zionez, berak hauteskunde kanpainako gastuak ere gutxitzea proposatu zuen, proposamen honek aurrera irten ez bazuen ere.

Garaikoetxeari egin entzuketen epaiketa apirilaren 10ean

BILBO

Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiaren telefonoan ustez egin ziren legez kanpoko entzuketei buruzko epaiketa apirilaren 10ean burutuko da Bilboko Justizia Epaitegian. Hala erabaki zuen atzo Euskal Herriko Epaitegi Gorenak. Bi aldeek aurkeztutako frogak onartzea eta euskara itzultzaile bat izendatzea ere erabaki zuen epaitegi honek. 1986an Garaikoetxeak Zarauzko bere etxeko telefonoan «zubi» bat egin zela ohartzean ezarri zuen salaketa eta kasua Donostiako Epaitegi Probintzialera igorri ondoren, fiskalak entzuketa telefoniko delitutzat azaldu zuen kasua. Donostiako fiskalak azaldu zuenez, entzuketa horiek Luis María Retolaza Gasteizko barne sailburu ohiak agindu zituen eta bost hilabeteko gartzela zigorra eta zazpi urte inhabilitazio eskatu zituen. Jose Antonio Goikoetxea Ertzaintzako sarjentuarentzat eta Javier Zumaldearentzat ere antzeko zigorrak eskatu zituen entzuketa horien egile izateagatik. Laguntzailetzat jo ditu fiskalak beste bi ertzain eta komunikabide sare ofizialeko zerbitzu burua.

Irurtzun-Andoain autobidea

«Enfrentamendu zibilaren tranpan ez erortzeko» deia luzatu du HBk

Formazio abertzaleko alkateek manifestu bat eman dute aditzera

Herri Batasunako alkateek, Irurtzun-Andoain autobidearen inguruko gatazka dela eta sortu den giroaren aurrean, Euskal Herriko hegoaldeko udaletxeetan mozio bat aurkeztuko dutela iragarri eta manifestu bat eman zuten ezagutzera atzo Hernanin egindako bileraren ondoren.

PELLO URZELAI / **DONOSTIA**

Hernani eta Laudioko alkateek irakurri zuten manifestua. CARLOS VILLAGRAN

Herri Batasunako alkateak Hernanin bildu ziren atzo goizean, Irurtzun-Andoain autobidearen inguruan Gipuzkoako Batzar Nagusietan parte hartzen duten alderdiek, HBko kargu publikoen kontra luzatutako deskalifikazioak aztertzeko. Bilera bukatu ondoren, ezagutzera eman zutenez, Euskal Herriko hegoaldeko udaletxeetan autobidearen gatazkari buruz mozio bat aurkeztuko dute eta baita Euskal Herriari zuzendutako manifestu bat zabaldu ere.

Manifestu honetan, Ajuria Eneako Hitzarmeneko buruzagiek «mezu dramatikoa eta apokaliptikoa» igortzea, hala nola, «arazoa korapilatzen eta problema koordenada faltsuetara desbideratzen» aritzea kritikatu dute.

Beste alderdien jarreraren aurrean, «Gipuzkoa lurraldean hautatua izan den lehen indar politiko garenez, eskubideak irmotasunez defendatzea» erabaki dute HBko alkateek. Halaber, «zinegotzi guztiekin batera, legezko diferentziak errespatuz eta alderdikeria merkeak gaindituz, herriaren zerbitzuan gogotik lanean» jarraitzeko konpromezua hartu zuten alkateek.

Dei berezi bat luzatu zuten HBko auzapezek, «enfrentamendu zibilaren tranpan ez erortzeko deia», alegia.

HIRU PUNTUTAKO MOZIOA

Udaletxeetan, tokian tokiko beharrek mar katutako egunean aurkeztuko den mozioan, hiru puntu nagusi defendatuko dira. Lehenik, «Leitzaran harana, Autobidearen trazaketak zeharka ez dezala, horrela, Parke Natural izendapena ahalbideratuz». Bigarrenik, «elkarrizketa eta kontrastearen bidea bultzatzea, inplikaturiko alderdien artean akordio kontsentsuatu batetara iristeko», eskatuko dute. Eta, hirugarrenik, «alderdien arteko kontsentsura iristen ez baldin bada, herri kontsulta edo erreferenduma egin dadila Gipuzkoan». Mozio horretan, Gipuzkoako Diputazioaren zerbitzu teknikoen txosten bat aipatzen da, non «Leitzarango harana, bertako florak aldaketa jasan arren, Gipuzkoan gizartuegia ez dagoen enklabe bakarra» dela esaten den.

«Kalekoa delako» erabili zuten gotzaiek 'preso politiko' hitza

BILBO

Bilboko gotzaiek plazaratutako azken pastoralean 'preso politiko deritzanak' espresioa erabili izanak «ez du esan nahi preso hauentzat tratamendu desberdinik eskatu nahi denik, eta ezta ere, gaur egungo marko politikoa zalantzan jartzen denik ere», Luis Maria Larrea Bilboko gotzainak eta Juan Maria Uriarte bere laguntzaileak adierazi zutenez.

Preso politiko hitza erabili izateagatik gizarteko zenbait sektoretatik kritikak jaso ditu 'Presoen Senitartekoak' izeneko pastoralak, eta bi gotzainek agiri bat kaleratu zuten atzo kritika horiei erantzuteko. Mezua presoak pertsona bezala hartzea zela diote Larrea eta Uriartek eta batez ere preso komunei zuzendutakoa.

«Kaleko hizkuntzan erabiltzen den espresioa delako» hartu zuten gotzainek 'preso politiko deritzanak' hitza, agiri horretan esaten denez. «Bai batzu eta bai besteek delitu arruntak burutu dituzte, baina profil soziologiko desberdina dute, euren jatorria eta baldintza sozialak kontutan hartuz», diote gotzainek testuan, baina horrek ez duela tratamendu desberdinik eskatzen uste dute. ETArekiko lejitimizazio asmoa ere ikusi dutela zenbaitzuk presoei buruzko pastoralean, salatu zuten Luis Maria Larrea eta Juan Maria Uriartek kazetarien aurrean atzo ezagutarazi zuten agirian.

EAk SESBri laguntza ekonomikoa ukatzeko eskatuko du Gasteizen

GASTEIZ

Eusko Alkartasunak SESBri laguntza ekonomikoa ukatzeko eskatuko dio Gasteizko Legebiltzarrari, Lituania eta herri baltikoen auzia argitu arte. EAk ez legezko proposamen bat aurkeztuko du Legebiltzarrean, honek premiazko prozeduraz aztertu eta onar dezan. Osoko bilkurak EAk aurkeztutako proposamena onartuz gero, estatu espainolari deialdi bat egingo dio, honek Europako erakundeetan SESBri laguntza ekonomikoa ukatzea eskatu dezan, SESBk errepublika baltikoen gehiengo borondatea errespetatu arte.

Horretaz gain, Eusko Legebiltzarrak armada sovietarrak Lituanian eginiko erasoa gaitetsi dezala eta horren berri Madrileko gobernuari, SESBkoari eta baita ere errepublika baltikoko arduradunei eman diezaiela eskatzen du.

Eusko Legebiltzarrak iazko Apirilaren 27an ez legezko proposamen bat onartu zuen, militarren parte hartzea gaitetsi zuen eta Lituaniaren autodeterminazioaren alde agertu. EAk aurkeztutako proposamenean, sovietar armada ez dagoela legitimatirik errepublika baltikoen borondatea eraldatzeko adierazten da, eta gainera, parte hartze horrekin perestroikaren lorpenak zalantzan jartzen direla dio.

EAren ustez, SESBko militarren parte hartze berri batek nazioarteko komunitateari eginiko erasoa suposatuko luke, eta hori onartezina dela dio, «Golkoko une larriekin batera etorri bada ere».

Lurraldeko partaideek Ajuria Enean utzi zuten gutuna. OLALDE

Irtenbide demokratikoa laguntzeko eskatu dio Lurraldeak Ardanzari

FELIX IRIARTE / **GASTEIZ**

Irtenbide demokratikoa dela egokiena Leizarango autobidearen auzian, eta lagun dezala eskatu dio Lurraldeak Jose Antonio Ardanza iharduneango lehendakariari. Lurraldea koordinakundearen bozeramaleek adierazi zutenez, hiru irtenbide daude auzi honetan. Bata, «Lemoiz ereduaa», ez dute begi onez ikusten Lurraldeakoek, «erantzun biolentoak paper erabakikorra jokatu zuelako». Bigarrena ere, «Aranguren zabortegiaren eredua», ez da irtenbide egokiena, indarraren bidez inposatuta dagoelako.

Lurraldeak aurkezten duen hirugarren irtenbidea, kontsentsuaren bidez lortutako irtenbidea, da egokiena koordiakunde honen ustez, «herritarren gehiengoa horrelako irtenbide baten alde bait dago». Irtenbide horren alde badago, 26ko manifestaziora gonbidatua dagoela adierazi zuten Lurraldeakoek.

TEATRO PRINCIPAL - ANTZOKI ZAHARRA

GAUR OSTIRALA
BIHAR LARUNBATA ETA IGANDEAN
Arratsaldeko 8-etan

MASKARADAk
aurkezten du
"Marxkarada"

Bere hamargarren urteurrena, ikuskizun berezi batez ospatu nahi izan du Maskaradak, ohizko zirkuito eta ikuslegoaz gain, bide berriak urratzen lagunduko diona. Hona hemen, bada, asmo eta ahalegin guzti horien emaitza, mundu osoaren patrimonioa diren Marx Anaiengan oinarrituriko lana: MARXKARADA.

Iraupena: Ordu eta laurden bat.

SARRERAK SALGAI
ANTZERKIDE TFNO. 48.11.55

Donostiako Udala
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA

Lokarria elkartea sortu da Parisen Euskal preso politikoak laguntzeko

Hilaren 26rako jai bat antolatu du auzi gastuak ordaintzen laguntzeko

Parisen sortu berri den Lokarria elkarteak ipar Euskal Herriko preso politikoei laguntza eskaintzea izango du helburu nagusi. Mayi Irigoien lehendakariak, presoekiko elkartasuna eskatu die Frantzian bizi diren euskal herritarei, Parisen egin berri duen elkartearen aurkezpenean.

J. LAUTRE / **BAIONA**

Euskal preso politikoen sostenguz sortu berria den talde honek, heldu den urtarrilaren 21ean abiatuko den auzi luzeari buruz, Euskal Herritik joandako jendea aterbetzen laguntuko ditu eta 26ean, erromeria bat antolatuko du auzi gastuak pagatzen laguntzeko.

Abendo hastapenean sortua, elkarteko lehendakaria, Mayi Irigoienek aurkezten du «Taldea Parisen bizi diren euskaldun andana batek baita ere Copel, borrokan diren presoen antolatzeko batasunean diren kide batzuek osatzen dugu. Horrelako batasun bat sortzeko beharra sentitu dugu lehenik Paristar jendeak Euskal Herrian egiazki pasatzen denaz informatzeko eta bestetik euskal presoen alde ekitaldi eta apairu batzuk antolatzeko».

Lokarria batasunak gehienbat Iparraldeko presoei ekarriko die laguntza «zeren Parisen jadanik badago Euskadirekin elkartasunezko komitea, hau hegoaldeko presoetaz arduratzen dena. Bi elkarteak elkarrekin lan egiten dugu».

Lokarria elkarteak, jendea jakinean ezartzeko prentsaren bidez eginen du gehienbat lana. «Lehenbizirik, auziaren lehen eguneko goizean, abokatuen kolektiboak egitekoa duen prentsa aurrekoari buruz, gure laguntza ekarriko diegu lokalak aurkituz. Orai, auzia aintzin ari gara lehenik hemengo euskaldunen jakinean emaiten Euskal Herriko egoeraz. Konkretuki, eskatzen diegu Euskal Herritik auzira etorriko direnen beren etxetan hartzea». Auziaren erditsutan, hilabetearen 26an, Lokarria taldeak erromeria bat antolatzen du Nanteuil karrikako 14.an, 'Convention metroa'. Erromerian parte hartuko dute Baigorriko gaiteroek eta Pariseko euskaldun musikalariek. Parisen egoteko arazoak dituen batek elkarteari eskatzen ahal du laguntza telefono hontara deituz: 16(1) 43.26.78.21.



Mayi Irigoien, «Lokarria» elkarteko bozeramalea.

Salhaketa eta HB bat datoz senideen manifestazioarekin

BILBO

Biharko, hilak 18, euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen senitartekoek antolatu duten manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du Salhaketa, presoen aldeko elkarteak. 'Giza eskubideen alde. Presoak Euskadira' lemarekin bat datozela dio elkarte honek zabaldu duen prentsa agiriak, «aldarrikatzen den eskubidea preso sozialentzat ere eskatzen dugulako».

Salhaketak adierazi duenez, «urte asko daramatzagu borrokan euskal preso guztiek, politikoek zein sozialek euren kondenak, Euskal Herriko presondegietan bete ditzaten lortzeko, hori legedi penitentziarioan agertzen delako». Presoen aldeko elkarte honen ustez «gartzeletako arazoa hurbilagotik ikusiz, delito askoren sustraiak dagoen problema estrukturala da zuzendu beharrekoa».

HB-K ERE DEIA LUZATU DU

Bestalde, Herri Batasunak «ezinbesteko» bezala jo du biharko manifestaldian parte hartzea, «bertatik aterako den oihu ixilak gartzeletako ormak iragan eta elkartasun oihu bihurtzea nahi badugu», atzo igorritako komunikatuak adierazten duenez.

Alderdi abertzalearen ustez, euskal preso politikoen egoerak «errepresioaren mugak» iragaten ditu, presoen suntsiketa fisiko eta sikikoa helburu duela. Honetaz gain senitartekoen kolektiboak «laguntza eta errespeto osoa» merezi dituela adierazten du komunikatuak.

UAk Gobernua ahalik azkarren osa dadila eskatu zuen atzo

F.I. / **GASTEIZ**

Mari Enriqueta Benito eta Teresa Mendaza UAko parlamentariek atzo adierazi zutenez, UAk «patxadaz» eta «axolagabekeriaz» jarraitzen du Eusko Jaurlaritzaren gobernu osaketari dagokionean. Eurak esan zutenez, hasieratik esan zioten Lehendakariari ez zutela gobernu osaketan parte hartu nahi, euren ordezkaritza txikia bait da.

Dena den, hauteskundeak egin zirenetik igarotako denbora, luze jotzen dute eta jadanik, gobernua zeintzuk osatu behar luketen erabakita egon behar lukeela salatu zuten. Teresa Mendazak esan zuenez, UAk ez du «ulertzen» orain arte hain ondo konpondu diren sozialista eta jeltzaleen arteko gobernua zergatik ez duten berregin.

Arabako foralistek PSE-PSOE rekin negoziazioen haustura atzean, jeltzaleen aldetik beste formula batzuk onartzeko maniobrak daudela uste dute. Esan zutenez, eurari berdin zaie gobernuko partaideak batzuk ala besteak izatea, gobernu horrek aurkeztuko duen egitasmoa bait da «garrantzitsuena», eta batez ere programa horretan Arabako lurraldeari egiten dizkioten aipamenak.

GALDEGAIA

Sauveur Baxo

EGUNKARIA.— Sauveur Baxo, CFDT sindikatuko arduraduna eta Donapaleun sortu den Kantonamenduaren Geroa' komitearen sortzaileetarikoa zara. Honek jendetzaren nahikeria altxatu nahi du eskualdeko ekonomiaren heriotzaren aurka. Mobilizapen egun handi batera deitu duzue jendea gaur Donapaleura, baina nahi hori aski al da, egungo Donapaleuko manifestaldi-tik landa, zerbait aldatzeko ?

SAUVEUR BAXO.— Ez ditugu ekonomia sendo baten ahal guztiak gure alde, baina gure soluzio bakarra, geroari buruz, mobilizapen horri jarraikitzea da, ekonomiaren dozierei buruz elkarrekin jarriz. Hori da gure aterabidea. Ageri da, botere publikoei buruz bereziki, gure txokoan ez garela hainbat lagunduak. Hautetsiekin badago ere problema bat, ez baitituzte hemengo dozierak aski defendiatu. Uste dugu gure abotsa entzun araziz, dozier zenbait aitzin arazten ahal ditugula. Hori nahi genuke jendeari konpreni arazi.

Hasi dugun Komite horrek ez dakigu noiz arte iraunen duen. Baina gure nahia da iraun dezan dozier horik arrimatu artino, baina gero ere. Geroari buruz, behar dugu elkarrekin pentsaketa egin. Behar ditugu beste dozier batzu aitzina arazi, bide nagusi batena adibidez. Dozier frango dira kantonamenduan eta esperantza dugu elkarrekin joaten ahalko garela. Zergatik ez bizi luze bat proposa Komite horri?



Salbador Baxo.

Lerro artean

Gauez

Distortsio nabarmena azaldu da egun hauetako egunkarietan. Denbora, orduaren distortsioa. Azken orduaren garrantzia handitu egin da egun hauetan. Gerraren hasierarekin agerian gelditu da. Kasu honetan, gerraren hasiera orduak ez du kazetaririk harritu, gauez espero bait zen, gauez izatea iragarrita bait zegoen. Bagdadekiko ordu diferentzia dela eta, egunkari gehienek ez dute arazo handirik mende bukaerako notizia jasotzeko beren lehen orrialdeetan. Gerra hasieraren ordua 02.40 izan da Bagdadeko erlojuetan. Euskal Herrian, 12.40. Hogei minututan berria zabaldu zen mundu osora. Beraz, egunkari gehienek, eta batez ere, ixteko ordua malguago dutenek aukera izan zuten albisteari heltzeko. ***Eginek*** bi edizio kaleratu ditu. Lehenengoan, bonbardaketak hasiak zirela jasotzen zuen eta bigarrenean lehenengo datuak zehazten zituen. Madrilgo egunkariei dagokienez, periferiara bidaltzen dituzten edizioan —arratsaldeko zortziretan ixten dena— notizia jaso gabe gelditu dira.

Antza denez, gauez ez da bakarrik gerra hasten. Gure herrian, gauez ere erabaki garrantzitsuak hartzen dira eta kontutan hartzeko gertaerak izaten dira. Egunotan, EAJ-EE eta PSE-PSOEren arteko negoziaketen haustura gauez gauzatu zen eta herenengun EAJren Asanblada Nazionala beradu arte izan zen bilduta Artean, estrategia erabakitzen. ***Deiak*** biltzen zuen bakarrik atzo bilera honen berri zehatza: *«EAJren Asanblada Nazionalak baimendu egin du komisio negoziatzailea EArekin elkarrizketan hasteko»*. Izan ere, Gobernu osaketaren ingurukoak dira nagusi bertako egunkarietan, hemengo arazo politikoei dagokienez. Ajuria Enean pasatutako orduak aipagai dituzten bertan izan zuten kazetariek. Bilerako barne kontuak eta anekdotak aipatzeko ordua da. ***Deiako*** Roberto Urkizak kontatzen zuen atzo Jose Antonio Ardanza Autonomi Estatutuaren bila joan zela bere bulegora sozialistei eztabaida puntu bati zegokionaren irartzeko. ***Egineko*** Iñaki Irion-dok aipatzen zuen sozialistak aparte bildu zirenean guztiz erlajaturik zeudela. ***Eginek*** ere, Juan Manuel Idoigaren eskutik haustu-raren eta egoera berriaren interpretapen bat eskaintzen zuen. ***El Correo Español*** egunkariak, analisiez gain, aspektu berri bat azpimarratzen, honako titularraren bidez: *«EAJ eta EE arteko hitzarmenaren klausula batek eragozten du hirugarren kideak Euskadiko Ezkerra baino pisu gehiago izatea».*

PELLO URZELAI

Euskara

'Nafarroako herri izendegia' argitaratu du Euskaltzaindiak

Nafarroako Gobernuaren gomendioz egina, atzo aurkeztu zuten Iruñean

Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak, Nafarroako Gobernuaren gomendioz, argitaratu duen 'Nafarroako herri izendegia£ aurkeztu zuten atzo Iruñean. Nafarroako herrien izenei buruz burutu den ikerketa sakonena dela adierazi zuten.

ANA UNANUE / **IRUÑEA**

Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaria den Estebe Petrizanek izendagiaren aurkezpenean adierazi zuenez, «lana hiru zatitan egin da, Euskararen legeak finkatutako hiru eremuei jarraituz: eremu euskaldunean ekin zitzaion ikerketari, eremu mistoan gero eta, azkenik, eremu ez euskaldunean».

Orain arte eremu euskalduneko izenek bakarrik dute ofizialtasuna eta gainerako bi eremuetakoak ofizialdu beharrak «txosten honen interesa ugaldu baino ez du egiten», Petrizanen ustez.

Ikerketa lana Jose Maria Jimeno Juriok koordinatu du, laguntzaile gisa Patxi Salaberri, Iruñeko Magisteritza eskolako irakaslea aritu delarik. Laguntzaile zerrenda zabalagoa da eta Onomastika Batzordearen lana urte térdiz luzatu da.

Toponimoen arazoa arrazionaltzen saiatu direla esan zuten. JOXE

Endrike Knörr, Onomastika Batzordeko lehendakariaren esanetan, «Nafarroako herri izenei buruz egin den azterketa sakonena da hau». Izen bat baino gehiagoren artean hautatu behar izan denean, forma dokumentatuek izan omen dute lehentasuna. «Hizkuntzak badu bere historia eta ezin da horrekin jolastu» ziurtatu zuen Knörrek.

Txostenerako lehenbiziko informazio multzoa dokumentazio idatzitik atera zen, eta, orobat, gaurko hizkuntza mintzatua, batez ere datu historikoekin bat datorrena, hartu da aintzat.

Euskaltzaindikoek beren eginkizuna ikuspegi akademikotik aholkuak ematea dela ziurtatu zuten, «Euskaltzaindiak ertzantzarik ez duela» eta erabaki politiko-administratiboak beregain ez daudela gogoraziz. Halaber, euskararen normalizazio bidean, herrien izenekin politika egin ez dadin eskatu zuten.

IRUÑA ALA IRUÑEA

Ildo honetatik, duela gutxi foru exekutiboak Nafarroako hiriburuaren izenari buruz hartutako erabakia ere aipatu zen. Jakina denez, Euskaltzaindiak Iruñea gomendatu bazuen ere, Gobernuak Iruña aukeratu du izen ofizialtzat.

Jose Luis Lizundia, Onomastika Batzordeko idazkariak, «tradizioa kontuan hartuta, jatorrizko izena Iruñea iruditu zitzaigulako» aukeratu zutela esan zuen. Hala ere, administrazioaren erabakiaren aurka joateko asmorik ez dutela ziurtatu zuten, arrazoi linguistikoez gain gizarte mailakoak ere kontutan hartu behar direlako.

Petrizanek, Hizkuntz Politika Zuzendaritzak eremu euskalduneko izen ofizialak erabakitzerakoan jarraitu dituen erizpideak azaldu zituen. «Toponimoen gaia arrazionalizatzen saiatu gara» ziurtatu zuen. Horrela, euskaraz eta erromantzez modu desberdinez deitu dituzten herrietan bi izenak onartu dira. Gainontzekoetan berriz izen ofizial bakarra finkatu da.

Eremu euskaldunean izendatze elebidun asko egin badituzte ere, eremu mistoan eta ez euskaldunean joera hau gutxitzen saiatu direla aurreratu zuen Petrizanek. Ondorioz, izena euskalduna bada, Euskaltzaindiak jada erabakia duen izena proposatuko dute izen ofizial bakar bezala. Ondorioz, Otxagabia erderaz ere 'tx' eta 'b'z idatziko litzateke. Izena erromantzea balitz, bere hortan utziko litzateke euskaraz ere —Cortes, adibidez, euskaraz ere 'c'z litzateke—.

Atzo inauguratu ziren Getariako Kultur Etxea eta Azkizurako bidea

J.A. / **DONOSTIA**

Getariako San Anton jaien barruan, herrian egindako zenbait herrilan inauguratu zituzten atzo Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariek, Imanol Murua Diputatu Nagusia buru zutela, eta baita Getariako Udaleko ordezkariak ere.

Azkizu auzorako lehengo bidea aldapatsua zen oso eta estua. Orain egin duten bide berriak kilometro bat eta berrehun metro pasatxo dauzka eta horietarik 1.000 metro berriak dira. Azkizurako bide berriaren batezbesteko zabaleroa lau metro t'erdikoa da, eta aldaparik handiena % 9koa.

Ozio eraikuntza enpresak egin dituen lanok, guztira 41 milioi pezeta pasatxoko kostua izan dute, eta erdibana ordaindu dituzte Foru Aldundia eta Getariako Udalak.

Imanol Muruak, Jose Luis Telleria Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Julen Goikoetxea Herrilanetako diputatuak eta Mariano Camio alkateak inauguratu zuten Kultur Etxe berria. Herriko plazan, eskola zaharra zen etxean egin dute, eta musika eskola, eskulan ikastaroetako lekua eta bilera gelak egingo dira.

340 komunikabide enpresa sortu ziren iaz Espainian

MADRIL

Espainian, komunikabideekin zerikusia duten 340 enpresa sortu ziren 1990. urtean. 1989ko aldean bi bider gehitu dira sektore honetan eratutako elkarteak.

Enpresa gehienak Madril eta Barcelonan sortu ziren, komunikabide elkarteen % 50 hartzen bait dute. Elkarte hauen barnean publizitate enpresak, harreman publikoak, argitaletxeak eta aholkularitza enpresak sartzen dira.

Ihaz sortutako enpresen % 8 elkarte mugatuak dira eta milioi t,erdi eta bi milioi tarteko haserako kapitala dute. Madril eta Barcelonaren ostean Sevillak eratu ditu alor honetako enpresa gehienak, osotasunaren % 10 hartzen bait du. Segidan Bilbo eta Valencia daudela kontutan hartuz, Espainiako Komunikabideen Aholkulari Elkartearen (ASECOM) esanetan «probintziako prentsa geldirik dago».

Ikerketa burutu zuen Jesus Gonzalezen ustez, Madril zein Barcelonan agertutako enpresa askok «ez du etorkizunik, Sevillako Erakusketa Unibertsala eta Barcelonako Olinpiaden inguruan soilik lan egingo dutelako».

Bide seinaleak euskaratzearen alde Iparraldeko 225 pertsonalitate

XAN GOENAGA / **BAIONA**

Iparraldeko berrehun pertsonalitatetik gora izenpetu dute, Euskal Herrian Euskaraz taldeak plazaratu duen herri iragarkien euskaratzeko eskaera. Elkarte eta hautetsiak, pertsonalitateak, talde kulturalak nahiz politikoak, anitz dira, izenpetu dutenak. 225 izen kontatzen dira, horietan, gizarte arlo guztietako pertsonalitateak, kirol, kultur, politika, irakaskuntza, komunikabideak, eliza, justizia eta beste zenbait sailetakoak. Izenpetzearen aldeko oldar bera ezagun da euskal elkarteetan, elkarte eta enpresa izenpetzaileak hirurogeitik gora dira. Azkenik, Iparraldeak ezagutzen dituen talde abertzale politiko guztien siglek sinatzen dute ageria.

Izenpetze bilduma hori, hautetsiei zuzendu zaie, beren herrian zerbait egin dezaten, horretarako duten ahalmen eta boterea erabiliz. Ezen, bideetako iragarkietan, bi maila bereiztu behar da. Frantses legearen arabera, herri eta karrika izenak, herriko etxeen ardurapean daude; norabide seinaleak aldiz, Estatuaren zerbitzuen ardura dira.

Herri batzutan frantsesezko izenaren parean euskarazkoa ikusten bada ere, ez da hori izan oraino ipar Euskal Herriko herri guztietan jarraitu den jokamoldea. Herriko etxeetako gainerako zereginetan (idatzizko ohar publikoak, karriken izenak) Azkaine, Arbona, Donibane Lohitzune eta Hazparnek egin dute urrats bat aintzina. Beste herri guztietan frantsesa baizik ez da ikusten.

Izenpe bilketa hori, Euskal Herrian Euskaraz taldeak daraman euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpaina orokorrean kokatzen da. Ofizialtasunaren bidean, lehen urrats gisa, euskara idatziari lotu zaio taldea. Izen bilketa horrek, Herriko Etxeak beren gaitasunen arabera, erabakien hartzera deituak diren bezala, Estatu mailako neurrien hartzeko, departamenduko iragarkiei zuzenduriko kanpaina bat abiatua da.

Bilboko Udaleko euskara zerbitzuak 325 milioitako aurrekontua aurten

G.A. / **BILBO**

Euskarako Udal Zerbitzuak eta Bilbo Euskalduntzenek 1991rako «minimoen» aurrekontua aurkeztu zuten atzo. Euskara Zerbitzuak burutu dituen ekintzak eta zerbitzu berriak biltzen dituen aurrekontuak 325 milioi, gehi, sail honetan lanean ari den langilegoaren soldata aurrikusten ditu.

Koldo Celestinok, Euskara Zerbitzuko zinegotziak, argi utzi zuen ez dietela inoiz eman eskatutako dirurik, iaz aurrekontu orokorren % 0,5 eman zietela zehaztuz. «Iaz 300 milioi eskatu genituen eta azkenean, 180 milioi eman zizkiguten. Gure ustez diru hau ez da nahikoa Bilbok dituen beharrizanetarako. Lotsagarria iruditzen zaigu Bilbo bezalako hiri batentzat horrelako aurrekontua ematea», salatu zuen Celestinok.

Iazko maiatzerako udalak onarturiko Euskara Zerbitzurako aurrekontu guztia «konsignatua» zegoen arren, gastatutako diruari «errentabilitatea» atera zitzaiola adierazi zuen. «Dirua ondo gastatua egon da, herri partaidetza bultzatzeko bideak jarri eta zabaldu direlako. Berreuskalduntze prozesuan herri partaidetza oinarrizkoa dela uste dugulako, aurtengo aurrekontua erakunde eta herri mugimenduen artean egin da», azaldu zuen zinegotzi abertzaleak.

BILBOK EFEKTU BIDERKATZAILEA

Bilbok Bizkaia berreuskalduntzeko duen garrantzia azpimarratu zuen, «Bilbok efektu biderkatzailea dauka. Egunero Bilbora jende asko etortzen da eta asteburuetan hainbat bilbotar Bizkaiko beste herrietara joaten da». Bilborako beharrezkoak diren bitarteko guztiak jartzea oso garrantzitsua dela adierazi zuen Celestinok.

Argulu Bilbo Euskalduntzeko kidearen esanetan, euskarak Bilbon duen egoera «nahiko tamalgarria da». Ezinbestekotzat jo zuen Bilborako euskara programa «minimo bat». «Programa honen bitartez gizarte alor ezberdinetan 3 gauza lortu nahi ditugu: euskararekiko jarrera positiboa sortzea, jendeak euskara ikas dezan bultzatzea eta azkenik, jendeak euskara erabili dezan baliabide batzuk eskaintzea», esan zuen.

Atxartekoekin elkartasunean greban daude Bizkaian eraikuntza enpresak

Sindikatuek balorazio ezberdina egin dute atzoko greba egunaz

Bi egun hauetan Bizkaiko hormigoi, porlan eta hondar banatzaileek Atxarte eta Atxa Txikiko langileekin elkartasunean egin duten grebari buruz eritzi ezberdinak daude, Ascobiko lehendakariak Bizkaian dena geldituta zegoela zioen bitartean UGTk eragina eskaxa izan dela esan zuen.

GORANE AGIRRE / **BILBO**

ASCOBIko lehendakaria den Luis Andres Merodiok atzo Bizkaiko hormigoi, porlan eta hondar banaketa zerbitzu guztia geldituta zegoela adierazi zuen. «Grebak eragin osoa izan du, kontratista askok ez dute lan egin ahal izan», zehaztu zuen Merodiok. Atzo eta gaurko banaketa ezak 130 milioiko galerak eragingo dituela azaldu zuen ASCOBIko lehendakariak.

Atxarte eta Atxa Txiki harrobietako enpresarien eledunak atzo jakinerazi zuenez, «presio bide hauen bidez administrazioa arazoaren larritasunaz jabetuko dela» espero dutela esan zuten.

ELA sindikatuak oso positibotzat jotzen du Bizkaiko eraikuntza saileko patronalak atzo hasi eta gaur arte luzatuko duen greba. «Atxarte eta Atxa Txikiko harrobietako langileekin elkartasunean burutu duten greba oso positibo iruditzen zaigu, eguneko arazoa konpontzeko bide bezala, horregatik bat egin nahi genuke grebarekin eta hori eragin duten arrazoiekin», adierazi dute ELAko ordezkariek. Ildo beretik, bi egunetako greba honek «ondorio eskaxak» izango dituela azpimarratu zuten iturri berberek, eraikuntzako enpresa gehienak ondo «hornituta daudelako, eta nahiz egun pare batez hondar edo porlanik ez eraman lanean jarraitzea posible zaie».

ESKALATZAILEEK JAITSI BEHAR

Atxarte eta Atxa Txikiko arazoari dagokionez, bestalde, ELAko ordezkariek argi utzi dute, eskalatzaileek egun indarrean dagoen ustiapen kontsezioari baimenduriko baldintzetan bukatzen utzi beharko lioketela.

CCOO eta LAB sindikatuek gai honi buruzko adierazpenik ez dute egin nahi izan. UGTk berriz, arazoa konpontzeko bidea greba ez dela azpimarratu zuen. UGT sindikatuko ordezkarien esanetan, bi harrobietako arazoa konpontzeko bide egokiena Eusko Jaurlaritza, Patronal eta eskalatzaileen arteko negoziaketa da. Dena den, UGTk argi utzi nahi izan zuen bi egunetako greba Patronalak deitua dela.

Langileek jarritako suzko barrikadak ertzainek baztertu zituzten.

Zegsako langileek bidea moztu zuten berriro Arrigorriagan

J.GARMENDIA / **DONOSTIA**

Arrigorriagako Zegsa Industria Kimikoetako langileek Barakaldon autopista zati bat moztu zuten atzo enpresako egungo egoeraren aurrean protesta gisa. Goizeko 10,30k aldera suzko barrikadak jarri zituzten N-625ean, Arrigorriaga parean, baina Ertzaintzak berehala itzali zituen.

Zegsa Industria Kimikoetako langileak egunero ari dira Arrigorriako trafikoa mozten joan den asteko ostegunetik, hilak 10. Langileek lanpostuetan jarraitasuna eskatzen dute eta protesten kakoa enpresaren egoera zaila da.

Langileen protestak direla eta astelehen eta asteartean Ertzantzak izandako jarrera kritikatu zuen UGT sindikatuak, «neurrigabekoa» ze esanez. Ertzantzak langile batzu erasotu eta «enpresa batzordek idazkaria atxilotzeko mehatxu egin izana salatu zuten sindikatuk iturriek.

Zegsa enpresak 240 langile di eta azken urteetan arazo handiak izan ditu. Langileek enpresari buruz informazioa nahi dute UGTk adie ra eman zuenez. Enpresaren araz areagotu egin ziren 1987tik aurre zuzendari orokor berria sartze Egungo egoera, «zuzendaritza jarrerak, kapital ezak eta bezero g tzeak eragin du» langileen uste

Atzotik aurrera egunean lau o tara gehituko zituzten mobilizazio eta datorren asteko ostegunetik lak 24, greba mugagabea hasiko te.

Mugan kilo bat 'speed' sartu nahi zuten bi lagun atxilotua

VASCO PRESS / **DONOSTIA**

Mugan 'speed' kilo bat sartu nahi zuten bi lagun atxilotu zituen Irungo Polizia Judizialak joan den hilaren 13an. Irungo komisaldegiko poliziek adierazi dutenez, speed kilo hori saltzera iritsiz gero, ehun mila dosi inguru osatuko lituzkete.

Atxilotuak, nafarrak biak, San Adriango hogeitahiru urteko Benito E.G. eta Lodosako hogeitama urteko Jose Manuel M.S. dira. ziak esan duenez, bigarren h lehendik ere bazituen antezeden teak. Biak ere epaitegien esku dituztela esan dute polizi iturriek epaileak gartzelan sartzeko agi eman duela.

Aidanez, Amsterdam-etik ze ten droga eta La Rioja, edota b herrien inguruan banatzeko as zituzten, Poliziak azaldu duen

Itoizko lanen konkurtso aste honetan aterako da

A.B. / **IRUÑEA**

Itoizko urtegiaren lanak hilabete honetan aterako ditu konkurtsora Estatuko Buletin Ofizialak (BOE), Antonio Aragon Nafarroako Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi zuenez. Urtegi honen lanen aurrekontua 16.000 milioi pezetakoa (842 milioi libera) da; Gobernu zentralak finantziatuko ditu.

El Ferial (Bardeak) urtegiari egin zuen bisitaldian, Itoizko urtegia eta Pitillasko aintziraren arteko Nafarroako kanalaren zatiaren finantziaketaz ere hitzegin zuen Aragonek. Nafarroako Gobernua harremanetan jarri da Administrazio zentralarekin, zati honek duen 45.000 milioi p tako (2.360 milioi libera) aurre tua elkarrekin estaltzeko.

Nafarroako kanalaren lehen honek Nafarroako Ertaldeko Z Ha. ureztatuko du, eta Gobernu tzat «guztiz uztartuta» dago Itoi urtegiaren proiektuarekin, N rroako Plan Hidraulikoaren tzetako bat bait da. Proiektu h barruan, urtegia eta kanalaren rrak ez ezik, Unziti, Billabeta e tillasko erregulazio urmaelak sartuta.

Aragon kontseilariak kan lehenengo bost kilometroak jo eraiki dituztela iragarri zuen aurrikusitako epeak beteko di gehituz.

Aldibaterako kontratazioa

50 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE, HAZIENDA, FINANTZA ETA AURREKONTU DEPARTAMENTURAKO.

Eginkizunak:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1990eko kanpainaren gestioa aurrera eramaten laguntzea.

Eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte izatea.
- Eskola graduatua, LH1 edo baliakideren bat.
- Gipuzkoa barruan lekuz aldatzeko prest egotea.
- Prestakuntzako ikastaroa gainditzea.

Lantokia:

Ondorengo edozein herritan: Azpeitia, Bergara, Hernani, Errenteria, Donostia, Tolosa, Irun eta Eibarren.

UDAL ERROLDA IKUSKATZEKO 20 ARDURADUN, UDAL HARREMANETAKO DEPARTAMENTURAKO.

Eginkizunak:

- Udal Errolda egiteko kanpainan laguntzea.
- Udal Erroldan izena emateko orriak araztea.
- Datuak egiaztatzea.
- Erroldaren Udal arduradunekin lankidetzan aritzea.

Eskakizunak:

- Gutxienez 18 urte izatea
- Eskola graduatua, LH1 edo baliakideren bat.
- Gidatzeko karneta.

Lantokia:

- Donostia eta ingurua - 1 eta 2 zonak
- Eibar - 3 zona
- Oñati - 4 zona
- Tolosa - 5 eta 6 zona

Bi deialdiotara:

OINARRIAK:

- Foru Aldundiaren Iragarki Arbelean argitaratuko dira, urtarrilaren 18tik aurrera.
- Foru Aldundiaren Jauregiko Informazio Bulegoan eskatu ahal izango dira.

INSTANTZIAK:

Horretarako prestaturik dagoen inprimaki ereduan entregatuko dira Foru Aldundiaren Erregistroan, URTARRILAREN 31RA BITARTEAN.

OHARRA:

Errolda Ikuskatzeko Arduradungaiek hautetzen duten ZONA adierazi behar dute INSTANTZIAN (Ikus Oinarrien Eranskina).

Donostia 1991 urtarrilak 16.

IDAZKARI TEKNIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Lehendakaritza Departamentua
Departamento de Presidencia

Urtarrilak 18 GOLKOKO GERRA 2. eguna

Hasi da tanke borroka Kuwaiteko mugan

Aire erasoko helburuen % 80 lortu dute aliatuek bonbaketari samaldekin

Ehundaka bonbaketarik milaka hegalditan Irakeko gune estrategiko ia guztiak birrindu eta gero, Kuwaiteko muga bertan hasi da gerraren bigarren urratsa. Bi fronteetako milaka tanke, lehorreko bataila izugarri batean ari dira basamortuan. Aliatuen abantaila nabaria da, baina Estatu Batuek ere onartu dutenez, azkarregi da «garaipena ospatzeko».

X.Z.—I.F. / **DONOSTIA**

Nazioarteko indarren 'Basamortuko Ekaitza' —gerra operazioaren izena— 00.30etan hasi zen atzo (02.30 Golkoan, iluntzea Estatu Batuetan). Lehen berria Bagdaden gaineko bonbardaketak izan ziren; hegazkin uhin bat, eta beste bat... Baina gero jakin zenez, bonbardaketek Irakeko gune militar eta estrategiko guztiak zituzten helburu.

Iluntzean, Jordania eta Iraneko zenbait irratik jakinarazi zutenez, Kuwait bertan hasi zen bataila. Emirgoaren eta Saudi Arabiaren arteko muga inguruetan, bi fronteetako tankeak borrokan hasi ziren. Aldi berean, artilleria eta misil irakiarrak Golkoko kostaldeko birfindegi eta petrolio putzuak erasotzen hasi dira.

Eraso hauez gain, Saddam Husseinen erantzun militarraren ahalbienak ez zirudien handiegia atzo. Israelen aurka Saddamek hainbestetan iragarritako misil erasoa ez zen gauzatu. Hala ere, oraindik posiblea dela eraso hori jakinarazi zuen Moshe Arens Defentsa ministro israeliarak eta Israeleko Indar Armatuak alerta egoeran segitzen dute lehen erasoaren momentu beretik. Eraso kimikorik ez da gertatu oraingoz, jakin ahal izan denez.



F-15 hegazkin bat hegaldi batetik itzuleran Saudi Arabian: fuelaz bete eta berriro erasora. AP

BALDINTZARIK GABEKO ERRENDIZIOA

Estatu Batuek baldintzarik gabeko errendizioa esijitu diote Saddam Husseini, Marlin Fitzwater Etxe Zuriko eledunak atzo iragarri zuenez. Errendizioa errazteko ez da su etenik egongo eta etengabe eutsiko dio erasoari Estatu Batuetako Armadak, bere aliatuekin.

'Basamortuko Ekaitza' ekintza arrakastatsu gertatu zen, Richard Cheney EEBBetako defentsa idazkariaren ustez. Helburuen %80a lortua zela adierazi zuen atzo arratsaldez Washington-en. Dena dela, ez zela oraindik garaia iragartzeko garaia gaineratu zuen.

F-18 hegazkinaren eta haren pilotuaren galera aitortu zuen Defentsa Idazkariak, eta baita Erresuma Batuko hegazkin bonbaketari batena ere, bi soldadu zeramatzan Tornado bat. Galera hauen berri, lehorreko batailak gertatu baino lehenago eman zuen Cheneyk.

LUZE IRAUN DEZAKE

«Denbora luze xamarraz» iraun dezakeen «ekintzaren lehenbiko fasean gaude», gaineratu zuen Richard Cheneyk. Zuhurtasuna da egokiena momentu hauetan, Pentagonoko buruzagiaren arabera, eta ez gehiegizko euforia.

Colin Powell generalak, EEBBetako Indar Armatuen Estatu Nagusiaren buruzagiak, azaldu zuenez, ehun baino gehiago Tomahawk misil jaurtiki zituzten estatubatuarrek Iraken kontra. Irakiarrek ez zuten paradarik, Powell-en arabera, Scud misilak erabiltzeko. Baina, hala ere, misilak ezkutatuta izan ditzatekeela ohartarazi zuen Pentagonoak atzo arratsaldez, Isralei adi egoteko gomendio bereziaz.

Ukatu egin zuen Powellek Irakeko Airezko Indarra suntsitua izatea. Aginte militar aliatuaren beste komandante baten eritziz (Maurice Schmitt general frantsesa), Irakeko gerra hegazkinen %50 deuseztatu dituzte. Dena dela, «Irakeko airezko espazioa kontrolatzeko gai izan gara», adierazi zuen general estatubatuarrak. Haren arabera, Estatu Batuetako indarrez gain, Erresuma Batuko, Frantziako, Arabia Saudiko eta Kuwaiteko armar erabili ziren.

> «Ekintzaren lehenbiziko fasean gaude», komentatu zuen Cheney Pentagonoko buruak.

> Irakeko gerra hegazkinen % 50 deuseztatu dituzte oraingoz, iturri militar aliatuen arabera. Misilak ezin izan dituzte jaurti oraingoz baina ez da horren aukerarik ahaztu.

CNN kateari zentsura ezarri diote Iraken

X.Z. / **DONOSTIA**

CNN Estatu Batuetako telebista kateak utzi egin zion atzo Bagdad-etik zuzenean egiten zituen telefonozko informazioak igortzeari, irakiarren aginduak betez. Indar aliatuen lehenbiziko airezko erasoei buruzko informazioan ihardun zuen CNNren ekipoak. Mundu osoan gerraren gaineko komunikabide jarraituena bilakatu da CNN. Euskal Herrian ere ikusi daiteke antena parabolikoaz. Orain arte ez zion CNNri zentsurarik ezarri Irakeko gobernuak Golko gatazkari zegokionez.

Birfindegi saudiar bat jo du lehen kontraeraso irakiarrak

GORKA ARRESE / **DONOSTIA**

Indar irakiarren kontraerasoek ez zuten kalte handirik egiten asmatu, bart arratsera bitartean. EEBBetako F-18 hegazkin bat eta Erresuma Batuko beste bat botatzea lortu zuten atzo, eta Arabia Saudiko petrolio birfindegi bat jotzea.

Nahiz eta informazio iturriak nahasiak eta batzutan kontraesankorrak izan, iparramerikarrek hildako bat izan dutela onartu zuten atzo. Irakiarrek F-18 hegazkin bat bota eta gidari bat galdu dutela argitu zuen Richard Cheney EEBBetako defentsa idazkariak. Hala ere «baxak izan dira eta gehiago ere izango dira» jarraitu zuen.

Bagdag Irratiak irakiarren hamalau hegazkin bota dituztela jakin erazi baldin bazuen ere, ukatu egin zuen halakorik Cheneyk. Bestetik, Irna agentzia iraniarraren arabera, F-15 iparramerikar batek itsasoa jo zuen, pilotoak salto egitea lortu arren.

Tom King Erresuma Batuko defentsa ministrariak Tornado hegazkin bat galdu dutela adierazi zuen, eta ez dituztela aurkitu bertan zihoazen bi gidariak. Jean Pierre Chevenement Frantziako defentsa ministrariaren hitzetan, «lau Jaguar ukitu dizkigute guri, baina denek lortu dute itzultzea». Irakiarrek Arabia Saudiko Golko Pertsikoko kostaldean jotako birfindegia Khafji-n dago. Bertako jabea Japoniako 'Arabian Oil Company' da.



I. MARTIARENA

EEBBk ez zituen erabili F-117 hegazkin «ikustezin» modernoak

Pilotoek diotenez, «paseoak» izan dira Irakerainoko hegaldiak

Estatu Batuetako aginte militarrak F-15 bonbaketariak erabiltzea nahiago izan du, F-117 Stealth 'ikustezinak' beharrean. Gerra kimiko eta bakteriologikoa erabili den seinalerik ez da ezagutzen oraingoz. Irane-ko berri agentzia ofizialaren arabera, 18.000 tona leherkari jaurti dituzte Iraken, irakiar bakoitzeko kilo bat, gutxi gorabehera.

DAHRAN

Erasoaren pisua F-15 Eagle ('arranoa') hegazkin bonbaketariek eraman zuten. Prentsak azken egunetan zioenez, F-117 Stealth itxura futuristikoko hegazkinak erabili behar zituzten, baina oraindik behar bezala frogatuta ez daudela eta, gordetzea nahiago izan dute. F-117 batek 100 milioi dolar (100.000 milioi pezeta, 5.000 milioi libera) balio ditu. F-15ak, 42 milioi dolar, «bakarrik».

F-15 bakoitzak 250 kilo leherkariko hamabi proiektil daramatzate aldean eta 2,5 match-eko abiadura lor dezake hegan, hau da, bi aldiz eta erdi soinuren abiadura. Bonbak helburuetaraino bideratzeko gida sistema elektronikoz hornituak daude.

Bonbaketari hauez gain, beste hegazkin batzuk ere hartu dute parte ekintzetan, bereziki Erresuma Batuko Tornado-ak eta F-4 Phantom-ak. Kuwait-eko Aire Armadako Hawk hegazkin batzuek ere hartu dute parte ekintzan.

Tropa aliatuak buruzagitza iparramerikarraren ordenuenpean daude. 'Desertuko Ekaitza' operazio militarraren komandante gorena beraz, EEBBko desertuko tropena da, Norman H. Schwarzkopf generala, 'Desertuko Hartza'.

Eraso hegaldi batean etorri den pilotoari ongietorria, base saudiar batean. AP

«Orain zuek izan behar zarete Desertuko Ekaitzaren tximista», esan zien Norman Schwarzkopf generalak bere soldaduei.

DESERTUKO HARTZAREN ARENGA

Riad-eko bere basetik, soldadu eta piloto aliatuak arengatu Schwarzkopf generalak. «Orain zuek izan behar zarete Desertuko Ekaitzaren tximista», esan zien bere tropei. Soldaduak bisitatu zituenean beren begietan lana ondo egiteko ardura ikusi zuela adierazi zuen generalak, «gure nazio handira lana ondo egina itzul gaitezen».

Hegazkinek antza izan dituzten galera urriengatik, triunfalismoa zen atzo nagusi Dahran eta Arabia Saudiko beste base militarretan. Piloto britainiarrek esan dutenez, «pasioa» izan dira Iraken gaineko eraso hegaldiak. Beste iparramerikar batek komentatu zuenez, Irakengandik jasotako erantzun ahularengatik, «Gabon arbola» bat bonbardatzen ari zirela Bagdadeko hegaldietan.

George Bush.

George Bush: «Gerra hau ez da beste Viet Nam bat izango»

GORKA ARRESE / **DONOSTIA**

■ Nazio Batuen Erakundeak Iraki Kuwaitetik irteteko epea amaitu baino lehentxeago, **astearte arratsaldean sinatu zuen gerra agindua George Bush EEBBetako lehendakariak**, Marlin Fitzwater Etxe Zuriko eledunak atzo adierazi zuenez.

■ Asteazken gauean telebistaz eginiko diskurtsoaz jakin erazi zien iparramerikarrei EEBBek Irak airez eraso egin zutela. «**Ez dugu huts egingo**» ziurtatu zuen Bushek, kanpoan manifestari bakezaleek «**geldierazi ezazu bonbaketa!, geldierazi bonbaketa iada!**» oihukatzen zuten bitartean. «**Gerra ez da luzea izango**» azpimarratu zuen serio, «**ezta beste Viet Nam bat ere**. Eraso honen helburua ez da Irak konkistatzea, Kuwait askatzea baizik». Norman Schwarzkopf Golkoko indar iparramerikarren komandante buruarekin mintzatu eta dena «trazatu bezala» gertatzen ari zela argitu omen zion.

■ «**Kuwaiten askapena hasi da**» hitzekin hasi zuen Bushek, atzo Etxe Zuriko eledunak prentsari irakurritako agiria. Oso goiz jaiki zen Bush, goizeko 5.00etan, eta prentsa aretora hurbildu zen berehala: «**gauzak ongi doaz**» adierazi zien kazetariei, «**zuek berri ematen ari zareten bezalaxe**». Gorbatarik gabe jantzita agertu zen. Umore onez, lasai. Hain goiz zergatik jaiki zen galdetu zioten kazetariek. Eta berak erantzun: «Normalean goizeko bostetan esnatzen naiz. Gaur, hona hurbiltzea bururatu zait, besterik gabe».

■ «Gure helburuak argi daude» errepikatzen du behin eta berriz. «**Sadam Husseinen tropak utzi egin beharko dute Kuwait**, Kuwaiteko Gobernu legitimoak dagokion tokia hartuko du eta **Kuwait libre izango da berriro**». Bushek ez du patxadarik galtzen, ez bide du arrenkurarik ere. «**Sadam Hussein indarrez bidaltzea beste erremediorik ez zeukan koalizio multinazionalak**. Orain, espero dut, herri irakiarrak bere diktadorea komentzitu behar duela armak utz ditzan, Kuwaitetik irten dadin eta nazio bakezaleen komunitatera biltzen laga diezaiola Iraki».



Saddam Hussein.

Sadam Hussein: «Bushek arazo pertsonal bat bezala hartu du krisia»

GORKA ARRESE / **DONOSTIA**

■ «Koldarrek traizioz egin dute eraso. Bush Satan-ek krimen bat burutu du sionista kriminalekin batera. **Hasi da Gerra Handia, gerra guztien ama**, hasi da, Jainkoaren laguntzaz irabaziko duen Ongiaren eta Jainkoak nahi badu, atzera egingo duen Gaizkiaren arteko gerra». Horrela hasi zuen Sadam Husseinek Irakeko herriari eginiko deialdia Bagdad Irratiaren bitartez.

■ Koran-eko bersikulo batekin egin zion sarrera gerrarako deialdiari, eta «**Kriminalek porrot egin dute**» eta «Allah u Akbar (Handia da Jainkoa)» esaldiak izan ziren gehien errepikatu zituenak.

■ Irakiarrei ez ezik, nazio arabiar guztiei zuzendu die deialdia. «**Fahd errege saudiarra**, lurralde sakratuen traidorea, nazio arabiarraren eta nazio islamikoaren traidorea, **kriminal bat besterik ez da zoritxarrez**». Eta askatasun eguna ere iragarri zuen: «**Palestina maitea eta beren seme-alaba pazientziadun eta borrokalariak askatuak izango dira**. Askatuak izango dira Golan eta Libano, eta **arabiarrak libre izango dira euren lurraldean**, eta libre izango dira zapalduak izan diren herriak ere».

■ Bagdag Irratiak adierazi zuenez, Sadam Husseinek Mundu Antiaereo Kuartela bisitatu zuen atzo goizean, baita Irrati eta Telebistako egoitzak ere. **Bagdadeko kaleetatik barrena ibili zen**, Armada eta Defentsa Ministraritzako egoitzetaraino. «**Irabazi egingo dugu, Fahd, saudi herria ere zure aurka jarriko bait da gurekin gerra honetan**. Tropa guztiahoriek, Fahd, musulmanak dominatzeko eta aberastasunak eramateko ekarrarazi dituzu».

■ «**Ez ezazu mundua erre, Neron-ek Erroma erre zuen bezala**» eskatu zion George Bush EEBBetako lehendakari. «Herri iparramerikarrari ere zuzentzen natzaio gaur, zera esateko: **Bushek arazo pertsonal bat bezala hartu du krisi hau**, eta gerra hau objetibitatez neur dezazuen eskatzen dizuet. Zeuek hegazkin, tanke eta indar militar handiagoa daukazue Irakek baino, baina **nazio baten indarra beregan duen fedea da**».

Alfer ahaleginen datak

ABUZTUA. Hilaren 2an Kuwait inbaditu egin zuten Irakeko tropek. Kairora bildutako arabiar herrialdeetako kanpo arazoetarako ministrariek salatu egin zuten erasoa, Jordaniakoak, Iemen-ekoak, Sudan-ekoak eta Libiakoak ezik. Hilaren 6ean Iraken kontrako enbargoa onartu zuen Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Segurtasun Kontseiluak. Irak erasoz gero arma kimikoak erabiltzeko prest zegoela esan zuen Husseinek. Hilaren 9an 'Desertuaren babesa' ekintzaren hasiera. Hogeitamalau estatutako indarrek hartu dute parte bertan. Hilaren 12an Israelek Palestinako lurralde okupatuak eta Libano eta atzerriko tropek Saudi Arabia uztea eskatu zuen Husseinek Kuwaitetik erretiretzako.

IRAILA. Europar Ekonomi Elkarteak herrialde hauetako irakiar militarrak botatzea erabaki zuen. Hilaren 25ean, Irakeko airezko garraioen blokeo erabaki zuen NBEk. Hilaren 25ean bazituzten 250.000 soldadu EEBBek erregioan.

AZAROA. Atzerritar bahituri guztien largantza proposatu zuen Husseinek. Hilaren 29an «beharrezko diren bideak oro» hartzea erabaki zuen NBEk Kuwait liberatzeko. Txina abstenitu egin zen, Iemen eta Cuba kontra. Bush-ek zuzenkako negoziaketak proposatu zizkion Saddam Hussein-i bakezko irtenbidea lortzeko. Hussein-ek errefusatu egin zuen Nazio Batuek eman ultimatuma.

ABENDUA. Hilaren 1ean Bush-ek proposatutako negoziaketak onartu egin zituen Bagdad-ek. Hilaren 15ean Tarik Aziz Irakeko Washington-era egiteko zuen bidaia eten egin zuen. EEBBen eta Iraken arteko harremanak indargabeturik gelditu ziren. Hilaren 24ean Israel mehatxutu egin zuen Bagdadek.

URTARRILA. Hilaren 2an NATOk esku sartu egin zuen gatazkan: berrogeitabi gudu hegazkin Turkiaren Irakekiko mugara. Hilaren 4ean, onartu egin zuen Irakek EEBBekiko elkarrizketa. Geneve-n, Suitzan, bilduko ziren Aziz eta Baker kanpo arazoetarako ministrariak. Hilaren 5ean, uko egin zion Husseinek Europar Elkartearekin harreman zuzenak izateari. Guido de Marco NBEren Biltzarre Nagusiaren Idazkariak dei egin zuen berriro bakezko irtenbidera. Hilaren 7an «EEBBek egin erasoaren aitzinean, palestinar herriaren elkartasun guztia» azaldu zion Arafat-ek Hussein-i. Hilaren 9an, Baker-en eta Aziz-en arteko elkarrizketaren porrota. Bi egun geroago, «EEBBak Pertsiako Golkoaren jabe izatea ez dugu onartuko», esan zuen Ali Jamenei Iran-eko izpirituzko buruzagiak. Hilaren 11an Hussein Jordaniako erregearekin elkarrizketatu zen Javier Perez de Cuellar NBEren idazkari nagusia. Hurrengo egunean, Bagdad-en, Saddam-ekin berarekin elkarrizketatu zen Perez de Cuellar. Bake negoziaketek porrot egin zuten. Hilaren 14ean EEBBen eta Israelen interesak erasoko lituzkeela esan zuen Palestinaren Askapenerako Erakundeak Iraken aurkako gerra hasiko balitz. Hilaren 15ean, Abu Iyad PAEko bigarren burua hil egin zuten. Azkeneko bake ahaleginak NBEren egoitzan.

Saddam Husseinek ezin izan zituen gauzatu Israeli eginiko mehatxuak

Yitzhak Shamir-ek EEBBen erabakiaren berri zuen ordubete lehenagotik

Bagdad-ek ez zuen Israel eraso egin atzo. Gerra hasiz gero, eginen lukeen lehenbiziko gauza Palestina liberatzea izanen litzatekeela esana zuen Irak-eko buruzagia den Saddam Hussein-ek, batik bat, israeliar armadak urriaren 8an hogeitabat palestinar Jerusalemen hil zituenez geroztik.

JERUSALEM

Zeev Livne Israeleko Indar Armatuen ordezkariak atzo azaldu zuenez, «Irakek Israel erasotzeko ahalbidea txiki-txikia da». «Estatu Batuetako hegazkinek, Irakeko H-2 eta H-3 aireko baseak, Jordaniarekiko mugan daudenak, suntsitu egin dituztela dirudi», gaineratu zuen Livne generalak.

Aipatu baseetatik Israel erasotzea zuen Irakeko armadak, 'Al Hussein' eta 'Al Abbas' misilen bitartez. Misil hauek Soviet Batasunak Bagdad-i esleitutako 'Scud B' misilen kopia dira.

Esanak esan, mundu guztia dago gerrarako prest Israelen. Bi hegazkin bonbaketarik Libanoko zerua zeharkatu egin zuten atzo, IRNA Iraneko albiste agentziak azaldu zuenez. Estatu Batuek ezarri 'Desertuko Ekaitza' ekintzari sustengu logistikoa ematea zuketen helburu hegazkin hauek.

Eliahu Ben Elisar defentsa arazoetarako parlamentu batzordeko lehendakariaren arabera, «israeliarrok itxaron egin behar dugu» eta EEBBen Iraken gaineko oraingo gaipena «garapena iraunkorra dentz egiaztatu».

Hiritar jendea gudurako gerturik dago. Israeliarren gas kimikoen kontrako maskarak erabiltzeko aholkua eman du bertako Gobernuak. Kale batu beharrik egon ezik, etxean geldi

Judu ortodoxoak dantzan eta otoi egiten Auhen Harresiaren ondoan, Jerusalemen, gerra hasi eta gutxira. AP

> Poz handiaz eta gerrarako prest hartu dituzte israeliarrek Iraken aurkako erasoaren lehenbiziko ondorioak.

ditzea da komenigarriena israeliar agintarien arabera.

SHAMIR-EK ALDEZ AURRETIK ZEKIEN

Iraken aurkako erasoa hasi baino ordubete lehenago abisatu zuen Pentagonoak Yitzhak Shamir Israeleko lehen ministroa, bertako Estatu Irratiak atzo azaldu zuenez. Israeliar general nagusiek Tel Aviv-en bilduta eman zuten atzoko egun osoa. Airezko Indarrak eta Hiritar Babesak alarma handien egoeran iraun zuten egun osoz.

Funtsezko industrietako eta koarteletatik kanpo zeuden erreserbistak oro mobilizatu dituzte Indar Armatuek. Honez gain, polizia, suhiltzaile zerbitzua eta gainerako ekonomi baliabideak ere kontrolatuko ditu armadak.

Israeleko gobernuak, prentsak eta populazioak berak poz handiz hartu zuen Irakek kontrako erasoaren albistea. Israelek ez zuela gerran parterik hartuko adierazi zuen Davis Levi bertako kanpo arazoetarako ministroak.

Ariel Shoval Estatu Batuetako israeliar enbaxadoreak, bestetik, Isralen eta EEBBen arteko kordinaketa iragarri zuen baina hau zertan den zehaztu gabe.

Palestina, krisialdiaren beste ardatza

LUIS FERNANDEZ / **DONOSTIA**

Kuwait inbaditu eta hamar egun beranduago, abuztuak 12, Saddam Hussein lehendakari irakiarrak bere «bake proposamena» luzatu zion munduari: Ekialde Erdiko arazo guztiak osotasunean tratatu behar direla, bai Kuwaitena, eta baita Palestinakoa eta Libanokoa ere. Mendebaldeak eta Estatu Batuen aliatuek berehala ezezkoa eman zuten eta tinko eutsi diote ezetzari ordudanik.

Lehen unetik, Palestinaren Askatasunerako Erakundea (PAE) Iraken jarreraren alde agertu izan da. Iasser Arafat lider palestinarra Bagdaden izan da behin eta gehiagotan. Palestinaren auzia konpontzeko unea hau izan zitekeelakoan, saio diplomatiko etengabeak egin ditu.

Arazo palestinarra, konpondu beharrean, larritu egin da azken hilabeteetan. Batez ere, urriak 8, Jerusalem-eko meskiten eremuan izandako sarraskiaren ondoren. Soldadu israeliarrek 21 palestinar hil zituzten orduko hartan.

Harrezkero, Intifada, harrien errebolta, labainen errebolta bilakatu zen, eta labainez hogei bat eraso egin dituzte israeliarren kontra. Honek, jakina, errepresioa areagotu egin du, eta bereziki larria izan zen 1990eko azken asteburuan, Al Fatah mugimenduaren sorreraren 25. urtemugan.

Nazio Batuetan (NBE), bitartean, Estatu Ez Alineatuak behin eta berriro saiatu ziren Palestinari buruzko Nazioarteko Bake Konferentzia bat eskatzen, baina EEBBk oztopatu zuen proiektua. Azkenean, abenduan, Konferentzia «une egokian» konbokatzeko «borondatea» aipatu zen Segurtasun Kontseiluko erabaki batean. Israelen errepresioa ere salatu zen testuan, baina presio biderik zehaztu gabe.

Aurretik, Javier Perez de Cuellar NBEko idazkari nagusiak, informe pertsonal batean bada ere, aipatu zuen Palestinaren gaia, Jerusalemeko sarraskia izan eta egun gutxira. Perez de Cuellarrek esan zuenez, «arazoarentzako konponbide erreal bakarra herri palestinarraren autodeterminazio askea da».

Eraso «iparramerikar-europar-sionistari» aurre egiteko deia palestinarren artean

TUNISIA

Iraken aurkako «eraso iparramerikar-europar-sionistari» aurre egiteko deialdia egin zien Palestinaren Askatasunerako Erakundeak (PAEk) arabe, musulman eta «bakea nahi duten indar guztiei», EEBBetako hegazkinek Iraken kontrako lehen bonbaketa erasoa egin eta berehala.

«Egun beltza da gaurkoa munduaren historian» adierazi zuen PAEk Tunisian duen egoitzan, eta «Irak gure anaiaren eta nazio arabiarraren aurkako erasoari aurre egitera ukaten direnak ez ditu Historiak barkatuko. Horregatik berriro ere nazio arabiarreko agintari guztiak deitzen ditugu, batasun iparramerikar-europar-sionistaren erasoari aurre egiteko».

Palestinarren Askatasunerako Erakundeak dioenez, EEBBk eta bere aliatu sionista eta europearrek aldez aurretik baztertu zuten gatazkaren konponbide baketsua, Bushek erabakita bait zeukan erasotzea eta orain dela hiru aste prestatuta urtarrilaren 17an telebistaz irakurritako diskurtsoa.

«Iraken aurkako erasoa traidore eta injustoa da» aldarrikatu du Palestinaren Askatasunerako Erakundeak. «Estatu Batuek nazioarteko legea defendatzen dihardutela esaten dutelarik, Israelek mugagabeko babesa dauka gure haur, gure emazte eta gure lurralde sakratuaren kontrako krimenekin jarraitzeko».

GERRA SANTURAKO DEIALDIA

Gazzah eta Zisjordaniakó lurralde okupatuetako etxeraldi deiari (couvre feu / toque de queda) jaramonik egiten ez diotenek heriotz arriskua dutela, abisatu dute Israeleko agintari militarrek.

Lurralde okupatuetako milioi bat eta zazpirehun mila lagunentzat luzatu dute etxeraldi deia, baita Jerusalem hiriko Siluan eta Shuafat auzoetakoentzat ere, bertan manifestari palestinarrek «gerra santu deialdia» egin bait dute EEBBen eta Israelen aurka.

Etxeraldi deia betetzen ez dutenentzat, neurri gogorrak iragarri ditu Israelek.

Indarraren erabilpenak «nazioarteko zuzenbidearen porrota» azaldu du

Mundu mailako liderrak diplomaziaren porrotarengatik «penatuta»

Mundu osoko zenbait mandatarik azpimarratu dutenez, nazioarteko zuzenbidearen porrota adierazten du Golkoko gerra pizteak. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Iraki emandako ultimatuma bete eta 18 ordura hasi zen erasoa. Ultimatumaren ondorioa, gerra, nazioarteko komunitatearen «derrota» da, lorpena beharrean, Aita Santuak berak aipatu duen bezala.

LUIS FERNANDEZ / **DONOSTIA**

Indarra, Aita Santuaren eritziz, ez da nazioarteko arazoak konpontzeko bidea, «inoiz ere ez zen izan eta ez da izango».

Atzo eguardian publiko egindako deklarazio batean, Joan Paulo II Aita Santuak une horietan sentitzen zuen «atsekabe sakona» azaldu zuen Vaticanon. Gerraren hasiera «nazioarteko zuzenbide eta komunitatearen derrota larria da», azpimarratzen zuen Aita Santuak adierazpen horretan. Bagdad gainean erasoa hasi bezain laster, atzo goizaldean, bere kapila pribatura joan zein Joan Paulo II.a otoi egitera, Vaticanon informatu zutenez. Aldi berean, «hasitako lehenbailehen amai dadin» espero du Juan Paulo II.ak.

Italian baita ere, Giulio Andreotti lehen ministroak, gai bera ukitu zuen Senatuaren aurrean egindako hitzaldian. Golko Pertsikoko krisialdi era baketsuan konpontzeko ezintasunak, nazioarteko ordenu juridikoaren porrota azaltzen du, Andreottiren eritziz.

Hala eta guztiz, lehen ministroak Italia gerran sartzeko baimena eskatu zion legebiltzarrari, eta baita lortu ere. Oposizioak, hala ere, gobernuak bakea lortzeko egin behar zen guztia ez duela egin salatu zuen Erromako senatuan.

Erasoaren kontrako tono kritikoagoan, Fidel Castro Cubako lehendakariak, gerraren hasiera «frakasoa» zela aipatu zuen prentsaurrekoan. «Frakasoa, arazoak era baketsuan konpontzeko nazioarteko erakundeen eta politikoen ezintasuna demostratzen duelako», esplikatu zuen. Hirugarren Munduko ekonomiarentzat gerrak ekar ditzakeen ondorio txarrak ere azpimarratu zituen Castrok.

Perez de Cuellar, larri eta penatuta, kazetariekin New York-en. REUTER

> Aita Santuaren eritziz, indarra, «inoiz ere ez zen izan eta ez da izango» nazioarteko arazoentzat konponbide.

NAZIO BATUEN PAPERA

Cuba izan zen, Iemenekin bat, ultimatumaren 678 ebazpenaren kontra azaldu zen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko estatu bakarra. 678 ebazpenaren testuak hauxe zioen: «Baimena ematen die Kuwaiteko gobernuarekin elkarlanean diharduten Estatu kideei (...), beharrezkoak diren medio guztiak erabiltzeko». NBEko Idazkari nagusiak, Javier Perez de Cuellar-ek, erasoa gertatu baino ordubete lehenago jakin zuen 'Basamortuko Ekaitza' hastear zegoela, Bush lehendakariak esanda. «Oso atsekabetuta eta penatuta nago, gerra aurrean daukagulako, nahiz eta nik eta beste nazio askotako pertsonaia askok irtenbide baketsuaren aldeko ahaleginak egin», esan zuen Perez de Cuellarrek.

Herrialde musulmanak zatiturik daude erabat gerraren aurrean

XABIER ZABALTZA / **DONOSTIA**

Israeli begira zeuden misil irakiarren suntsipenak, biziki lasaitu du giroa **Jordanian.** Irakek ekin izan balio gerrari Israelen kontra, Jordania izanen zatekeen gerratokia. Arabiar herrialdeek uko eginen zioten Israelen alde borroka egiteari eta luzatu eginen zatekeen gerraldia.

Moteldu egin ziren atzo Saddam Husseinen aldeko manifestaldiak Amman-en. Emititzeari utzi egin zioten Jordaniako irratiek Bagdaden bonbaketaren berri izatean. Lehenbiziko momentuetan ez zen adierazpen ofizialik izan. «Gure anaia Irak Estatu Batuek egin erasoaren biktima da», esan zuen bertako irrati ofizialak berremititzeari ekitean. Hussein jordaniar erregeak, bestalde, bakea oraindik posible dela esan zuen atzo.

Adierazpen ofizialik ez atzo **Sirian.** Astindura eta Iraken erantzunaren beldurra izan ziren nagusi egun osoz. Iraken tresneria militarraren suntsipenagatiko ahunak ere somatu ahal ziren, Irakeko armada Israeli aurre egiteko beharrezkoa da eta. Saddam Hussein da gerraren errudun nagusia gobernuan dagoen Baaz partiduaren egunkari ofizialaren arabera. «Inork ezin dezake negarrik egin Irakeko gobernamenduagatik». Sana agentzia ofizialak eta Dimaxk Irratiak Georges Bush EEBBetako lehendakariaren diskurtso osoa emititu zuten. Hala ere, Siriak Bagdaden bonbaketan parte hartua izatea gezurtatu egin zuen Tehran-eko siriar enbaxadoreak, SPA Saudi Arabiako agentziak esandakoari ukoa eginez.

IRAN: ISLAMARENTZAT KATASTROFE

«Katastrofe historikoa» deitu zion atzo Hachemi Rafsanyani **Iran-eko** lehendakariak gerraren hasierari. «Harroak, Estatu Batuek zuzendurik, gure baliabideak suntsitzen ari dira», gaineratu zuen Rafsanyanik. «Anaia arabiarren arteko harremanak konpondu egin beharko dira, geroko gertaerei begira» adierazi zuen.

Irakek ez du **Turkia** eraso asmorik azaldu, Turgut Ozal herrialde honetako lehendakariaren arabera. Ankarako Parlamentuari baimena eskatu eginen dio bertako gobernuak gerrari ekiteko. Turkiako gobernua oreka bila dabil. Batetik, Iraken zatiketan parte hartu nahi luke gerra amaitutakoan. Bestetik, Bagdaden erasotutako herrialdeko hegoaldean izan dezaketen eraginaren beldur da. Incirlik basearen erabiltzea eska lekiekeela EEBBei adierazi zuen Yildirim Akbulut lehen ministroak.



Jordaniarrak, janaria pilatzen Amman hiriburuan, gerra hasi bezain laster. AP

Kuwait-en eta ez beste inon egin dezatela gerra, eskatu zien atzo Muammar al Gaddaffi **Libia-ko** iraultzaren buruzagiak, Javier Perez de Cuellarri, NBEren idazkari nagusiari, eta Guido de Marcori, Biltzarre Orokorraren lehendakariari, igorri mezuetan. Gaddafiren arabera, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak hartu xedapenak anexionatutako emirgoan esku sartzeko ematen die nazioarteko indarrei soilik. Bagdadek sufritu bonbaketen aurka zen Gadaffi.

Gorbatxov: «Atsekabetuta nago gerrarik ez izatea lortu ez dugulako»

GORKA ARRESE / **DONOSTIA**

«Bart gauean hasi zen gerra Golko Pertsikoan» esanez hasi zuen atzo Mikhail Gorbatxovek Soviet Batasuneko herriei telebistaz luzatutako mintzaldia. «Agintari irakiarrek euren tropak Kuwaitetik erretiratzeko Nazioarteko Komunitatearen agindua bete ez dutelako gertatu da tragedia» jarraitu zuen. «Atsekabetuta nago gerrarik ez izatea lortu ez dugulako, nahiz eta ahal genuen guztia egin dugun, gatazka, bitarteko militarrik gabe konpon zedin».

Telebistaz hitzegiten hasi artean, Iraken dauden sovietarretarik inork ere ez zuela kalterik izan adierazi zuen. «Baina tropa eta teknika militarren erabilera handi honek, ikaragarrizko kalteak eragingo dizkie herritar arabiar, iparramerikar eta orohar Nazioarteko Komunitateko guztiei».

«Sovietar herriak jakin beza, Soviet Batasuneko agintariok ahal dugun bezainbeste egingo dugula gerra lehenbailehen gera dadin» hitzekin amaitu zuen telebistako agerraldia. Soviet Batasuneko lehendakaria ahalegin diplomatikoetan aritu zen azken unerarte, Sadam Husseinekin harremanetan jarri nahian eta tropa irakiarrak Kuwaitetik erretira zitzan komentzitzeko.

Europako herrialdeak ekintza armatuen beldur

DONOSTIA

Ekintza armatu posibleetatik gordetzeko, barne seguritate neurriak indartu dituzte Golko Pertsikoko gerran parte hartzen ari diren herrialde europarrek.

Erresuma Batuan, Polizia eta Armadako gizon espezializatuak jarri dituzte Londresekо aireportuetan, eta British Airways konpainiak geldierazi egin ditu Abu Zabi, Dubai eta Riad-era iragarritako hegaldiak oro.

Grezian ere neurri handiak hartu dituzte, Estatu Batuetako iturrien arabera, arabiarren ekintza armatuen Europako gune nagusiena izan bait liteke. Atenas-erako hegaldi guztiak gelditu egin dituzte konpainia iparramerikarrek.

Suitzako Geneve hirian diplomatiko eta banakari hainbati babes poliziala eskaini diote, eta «helburu estrategikoak izan daitezkeenak» zaintzen ari dira. Alemanian, EEBBetako kontsulatuko inguruak babesturik dauzka, manifestariak egoitza aurreraino hurbil ez daitezen.



TOMAHAWK misilak izan dira Golkoko gerran lehen protagonistak. Itsaso Gorrian, Golko Pertsikoan eta Aden-eko Golkoan kokatutako EEBBetako gerrauntzietatik horrelako ehun misil baino gehiago jaurti dituzte Iraken aukeratutako helburuetara. 2.400 kilometrotako tiramena daukate makina hauek, eta bidaia horren ondoren, helburutik 280 metro baino urrunago ez erortzeko ziurtasuna daukate (militarren arabera). Lur edo itsasgainetik oso altuera gutxira egiten dute hegan, 50 bat metro, eta radarrek ez dituzte harrapatzen. Leherkari konbentzionala zeramaten oraingo honetan 1983an sortutako misil hauek, baina 200 kilotoitako buru nuklearrak eramateko gai dira, hau da, Hiroshiman eroritakoaren potentzia hamar aldiz.

Exilioko kuwaitiarrek pozez hartu dute 'Basamortuko Ekaitzaren' hasiera. Irudiko hauek Bahrain-en daude ingelesez idatzitako bertako egunkari bat irakurtzen. «Gerra martxan da. Kuwaiten askapena hasi da», diote titularrok. Inbasioa baino lehenago, hiritar kuwaitiarrak Kuwaiteko biztanlegoaren % 30 ziren; gainerakoak langile atzerritarrak ziren.



EEBBtako soldaduentzat, dena primeran!



Otoitza, gerra aurretik: EEBBtako Wisconsin untziko marinel bat. Untzi honetatik eta beste batzuetatik bota dituzte Tomahawk misilak.

«Moses-en partez, Saddam-entzat» dio bonba erraldoi horrek. Saddam-en partez Moses-entzat, momentuz gauza gutxi; eraso kimikoa ez da gertatu oraindik, gas maskarak ipini arren ez dira beharrezkoak izan.



Gerra ohiartzunak gora bultzatu ditu munduko burtsen baloreak

DONOSTIA

Abuztuaren 2tik atzo bitartean munduko balore merkatuak lozorroan egon dira. Baina, atzo, gerraren ohiartzunak bultzatuta ikaragarrizko gorakadak ezagutu dituzte. Bilbokoak honela 20,76 puntu irabazi zituen, indize orokorra 307,74an ezarriz, Paris-koak 7,05ean, Wall Street-ek 78 eta Tokiokoak 1000 yennetik gora irabazi zituzten.

Batzuentzat tragedia bat izan dena, beste batzuentzat ez da hala gertatu. Izan ere, munduko balore merkatuetan ez da joan zen abuztuaren 2az geroztik atzokoaren adinako mugimendurik ezagutu.

Uztailaren amaieran munduko burtsak oso egoera onean zeuden, nahiz eta munduko egoera ekonomikoak atzeraka egin. Ordutik egundaino burtsetan beherakako joera nagusitu da. Baina atzo ikaragarrizko gorakada ezagutu dute, ezustean.

Madrileko burtsak, esaterako, 12,10 puntu igo zituen. Pedro Gerrero Madrilgo burtsako Elkartearen presidenteak lasaitasunez joka zezatela eskatu zien inbertsoreei. Bilbokoak 19,99 —maximo historikoa, 306,97an ezarriz— eta Hong Kongekoak 3,5. Japonian ere 1.000 yenetako igoera izan zuen nikkei indizeak, % 4,4koa alegia.

Goizean goizetik Milan, Paris, Brussele eta Londreseko burtsetan % 6ko igoerak izan zituzten. Munduko burtsek bultzatuta positiboki erreakzionatu duten, beraz.

USTE ZENAREN AURKA

Adituen hitzetan, «heranegun Wall Streeteko burtsak izandako bilakaerak honelako zerbait susma erazten zuen». Izan ere, gainontzeko burtsetako indizeek beherapen txikiak ezagutu zituzten edo bere horretan mantendu ziren. Bien bitartean, iparrameriketakoak 18,32 puntu irabazi zituen.

Mundu guztiak pentsatzen zuen gerra hasiz gero petrolioaren prezioak gora egingo zuela eta burtsek are gehiago egingo zutela beherantza. Baina errealitatea uste zenaren aurkakoa izan da. Londresko brent kupel petrolioaren prezioa bost dolare baino gehiago jaitsi zen eta honek burtsetako «euforia» ekarri zuen.

Gerra epe motzera bukatu daitekeela pentsatzen da eta hori onuragarria zaie munduko burtsei. «Izan ere, inbertsoreek oinarri zihurrak behar dituzte beren inbertsioak planifikatzeko. Orainarte Golkoko krisiarekin zer gertatuko zer jakin ez zekienez, balantzak nora joko zuen zain mantendu dira»



Petrolioaren prezioa igotzea eta burtsak gehiago jaistea espero zen. EFE



I. MARTIARENA

Petrolioaren prezioak behera egin zuen atzo erasoaren ondorioz

DONOSTIA

Estatu Batuek agindutako erasoaren hasierako arrakastak eragindako baikortasuna zela eta petrolioaren salneurriek behera egin zuten merkatu gehienetan. New Yorken esate batera, 9 dolar merketu zen petrolio kupela 23 dolarretan ipini zen beraz. Londreseko merkatuan, 26 dolarretako salneurriarekin zabaldu zen, baina eguerdirako 21,55 dolarretara jaitsi zen.

Irakiarrek Arabiako birfindegia erasotu zuela jakiteak ere ez zituen petrolio salneurriak igoerazi. «Birfindegi hori ez zegoen martxan, beraz, nahiz eta erasoa egiazkoa izan, ez du eragin zuzenik izango salneurrietan», azaldu zuen analista batek. Gainera, Kairon (Egipto) adierazi zutenez, petroliuntzien joanetorriak ez ziren eten gerra piztu zen une eta lekuan.

Frantziako petrolio konpainiek, erregaien prezioak bere horretan uztea erabaki zuten. 'Total' eta 'Esso' konpainiek, salneurriak ezartzeko orduan moderazioa eskatu zieten gasolina hornitzaileei.

Estatu Batuetako bost konpainia handienetarikoek ere erregai salneurriak ez igotzea erabaki zuten, frantziarrek bezala. Konpainia hauek —Mobil, Amoco, Chevron, Unocal eta Conoco— kritika gogorrak jasan Irakek Kuwait hartu ondoren erregiak garetitu egin zituztelako. Madrilgo Industria Ministrariak petrolio-produktoen kontsumoa gutxiagotzeko neurriak ezartzeko lege-dekretoa bidali dio Ministro Kontseiluari.



Petrolio produktuen kontsumoa mugatzeko neurriak har daitezke.

Ministro Kontseiluaren joan den bileran onartutako planari aurrera eramateko babes legala ematea da dekretu-lege honen helburua. Produktu hauek aurrezteko bost epeko plangitza onartu zuen Espainiako Gobernuak.

ERITZIA

JOSEBA TOBAR ARBULU

Petrolio eta armagintza enpresak garaile

Golko Pertsiarrean hasitako gerraren ondorio ekonomikoak aurrikusterakoan, gerrak berak suposatzen dituen gizabaliabide, lehengaiak eta bestelako baliabideak suntsitzea neurtu beharrekoa da. Nola geratuko dira munduko, Europako zein Espainia edo Euskal Herriko ekonomiak, petrolioaren prezioa kontrolatzeko, sarraski izugarria ekar dezakeen eta izendatzeko, izenik topa ezin diezaiokedan bidegabekeria horren bidez?

Estatu Batuek ez dituzte beren desorekak konponduko. Petrolioaren prezioa dela eta, petroliodun herriek ez dute, berez, arazo haundirik jasoko. Petrolio gabeko hirugarren munduko herriek jasanen dituzte, gerrak badirau eta petrolioa garestitzen baldin bada, eraso ekonomikorik garrantzitsuenak.

EEEn, Espainian eta Frantzian eta Euskal Herrian inflazioa areagotu daiteke, baita langabezia handitu ere, zeren alde batetik, garestitu egingo bait dira lehengaiak, eta bestetik, inbertsioak egiteko arazoak izanen dira. Bestalde, nola ez, betiko demagogia erabiliz, hemengo langilegoaren bizkar, soldatak murriztu guraz, berehala ezarri nahi izanen da inflazioa handitzearen kontrako lehen erantzuna.

Baina krisi ekonomikoa Golko Pertsiarraren gatazka hasi baino lehenagokoa da.

Beraz, krisi ekonomikoa areagotzen baldin bada, funtsean errua egitura eta merkatu kapitalista kontrolatzen dituztenei dagokie eta ez beste inori.

Lurzoruaren Kudeaketa eta Desjabetzapen Zerbitzua

1991ko Urtarrilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 4 zk.an, "Legorretako Esnaola Auzoko errepidetik finketan sartzeko bidea" (6-ML-117/90 Gakoa) Egitasmoaren behin behineko onarpena eman da argitara.

Iragarkian Proiektu honek erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua ere ageri da.

Donostia, 1991ko Urtarrilak 14.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Herrilan eta Garraio Departamentua

Krisiaren eragina etxean

Elikagai horniketa arazorik ez da izango EHko supermerkatuetan

Azken aste honetan eta, bereziki, atzo goizez jendez gainezka egon dira

Gerraren beldurrez, euskal herritarrek normalean baino salmenta handiagoak egin dituzte azken egunotan eta supermerkaturik gehienak jendez gainezka izan dira. Jendearen jarrerak harritu egin ditu supermerkatuetako saltzaile eta arduradunak, horniketa arazorik ez dela izango zihurtatuz.

DONOSTIA

Atzo ere normala den baina mogimentu eta salmenta gehiago izan zen Euskal Herriko denda eta supermerkaturik gehienetan, nahiz eta erakundeek behin eta berriro azpimarratu duten horniketa arazorik ez dela izango.

«Jendea izuti dabil. Gerrak «gosea» ekarriko duen beldurrez, supermerkatuetara jo dute aurrean harrapatutako guztia bereganatuz. Baina gure ustez —adierazi zion **EGUNKARIA**ri Oiartzungo Mamut supermerkatuko salmenta arduradunak— ez dago horretarako arrazoirik».

Urtarrila nahiko hil eskaxa izaten da salmenta mailan, eguberritako jaien ondoren kaletarren patrikak huts-hutsik egoten direlako. «Atzokoa egun arras arraroa izan zen. Deigarria da urtarrilean gaudelako, urte aro honetan normalki erdi hutsik izaten direlako supermerkatuak».

Batipat jende zaharra eta helduak izan ziren erosketa handiak egin zituztenak. Diruzainek aipatzen zutenez, «gaur gerra zibila gertatu zeneko komentario asko entzun ditugu, arrazionamendua zela, gorriak ikusi zituztela. Gosea bazter guztietatik». Badirudi, beraz, gerrak gosea ekarri dezakeen beldurrak eragin dituela euskal herritarrak neurriz kanpoko erosketak egitera.

Supermerkatuetako stand-etan ez da inolako produkturik falta. C. VILLAGRAN

Jendeak gehien erosten dituen gaiak ez dira egun gutxitan kontsumatzen diren produktu freskoak, almazenatzekoak baizik. Lekale, arroza, azukra, olioa, txarkuteria gaiak eta gauza enlatatuak dira, saltzaileen esanetan, egunotan gehien saldu direnak, peroduktu iraunkorrak alegia.

SALMENTA NEURRI MUGATZAILERIK EZ

Honiketa arazorik izango ez dela ere azaldu dute supermerkatuek. «Ez dugu uste horniketa arazorik izango denik, guk behintzat ez dugu inolako neurri berezirik hartuko. Supermerkatuetako standak beteta daude eta ez da ezer falta». Gainera momentuan behintzat erosketa mugarik ez dutela ezarriko aipatu zuten.

Iazko urrian antzerako egoera eman zen merkantzia garraiolari autonomoen grebarekin. Saltzaileen ustez, egungoa eta ordukoa ez daude parekatzerik. «Merkantzia garraiolariek greba egin zutenean horniketa arazo handiak izan genituen Orain, aldiz, guk ez dugu horniketa arazorik espero. Gertatzen den gauza bakarra da jendeak normalean baino gehiago erosten duela, zihurrenik kontsumitu dezakeena baino askoz gehiago».

«Jendeak erosketa masiboak egiten jarraitzen badu guk eskaria handituko dugu. Egunean egunean falta diren produktuen zerrenda egingo dugu eta beharrezkoa balitz eskaria handiagotu. Baina jendeak gehiago erosteagatik ez du esan nahi hornidurarik gabe geratuko garenik».

> ✓ Produktu iraunkorrak dira gehien saldu direnak, lekale, arroza, olioa, txarkuteria gaiak eta gauza lataratuak.

> Euskal Herriko Kontsumitzaile Elkartearen ustez, jendearen jarrera kontsumitzaile guztien aurka doa, prezioek gora egitea ekar dezakeelako.

NORMALTASUNA DENDA TXIKIETAN

Dena den, gerrak eragindako tentsioa ez zen atzo supermerkatu guztietan isladatu. Honela, Pryca eta Carrefour-eko supermerkatuetan eguna normaltasun osoz garatu zen. Bertakoen esanetan, gerra eta krisi garaietan jendeak erosketa handiagoak egiten zituela «badaezpada». «Normaltasun hau noraino iritsi daitekeen inork daki, baina momentuz gure stok-ak eskari handiei aurre egin diezaieke. Luzera neurri mugatzaileak egon litezke erregaietan esaterako baina ez lehen mailako elikagaietan» zihurtatu zuten. Merkatal zentruez gain, dendetara ere jo genuen bertako salmentek gora egin zuten ala ez galdezka. Hauetan ere normaltasuna izan zen nagusi atzokoan. «Guk ez dugu ez-ohizko ezer nabaritu. Gainera gurean jendeak egunetik egunera egiten ditu erosketak eta ez ditugu salmenta handiak izaten. Dena den, jendea askotan arrazorik gabe larritzen da. Badirudi burutik joanda gaudela. komunikabideek jaurtitzen dituzten mezuek ere bultzatzen dute jendea neurrizko kanpoko gauza hauek egitera».

Erosleak kezkati dabiltza. C. VILLAGRAN

LARRITZEKO ARRAZOIRIK EZ

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteak herenegun azaldu zuen ez dagoela arazorik jendea horrela larritu dadin. Erakunde honen esanetan jendearen portaera hau kontsumitzaile guztien aurka doa, eskaria handitzen bada prezioek ere gora egin dezaketelako.

«Kasu hauetan —argitu zuten— jende xeheena irtetzen da gaizkien. Izan ere, familia askotan ez da erosketa handirik egiteko dirurik izaten. Jendeak masiboki erostean prezioek gora egin dezakete guztien kalterako, baina, bestaldetik, etxean almazenatuta ezer ez daukatenez, oinarrizko elikagairik gabe geratzeko arriskuan daude».

ELA: «Langabeziaren hazkundea eman daiteke gerrak luze jotzen badu»

ELA sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrietak adierazi duenez, «Golkoko gerrak ekonomian arazoak ekar baditzazke, zonalde honetan munduko petrolio erreserben % 70 egoteagatik izango da, petrolioa ezinbestezko energia iturria delako munduko nazioetan».

Jose Elorrietak gaineratu duenez, «ekonomiarloan gertatuko dena ezin da momentu honetan aurreratu, baina munduan produzitzen den petrolioaren bosten bat merkatutik kanpo geldituko litzateke, honek ekar ditzakeen ondorioekin».

Dena den, guzti honek ekonomia hazkundearen murriztea eta inflazioaren gehitzea suposatuko lukeela nahiko garbi ikusten du ELAren idazkari nagusiak. «Ekonomiak atzera egingo balu eta honen ondorioz inflazioa gehitu, ondorioak benetan ezkorrak izango lirateke».

Gainera, ELAko idazkari nagusiak azpimarratu du, munduan eta baita Euskal Herrian ere langabeziaren hazkundea eman daitekeela, gerrak luzera jotzen badu.

UGT: «Ondorio ekonomikoak imaginaezinak dira»

UGT sindikatuak gerraren aurkako bere jarrera azaldu du. Sindikatuak adierazi duenez «inolako interes ekonomikok ez du bizitza bakar baten galera justifikatzen».

Apolinar Rodriguez akzio sindikalerako idazkariak adierazi du krisi honek ekonomian izango dituen ondorioak «imaginaezinak» direla, «nahiz eta orain arte Golkoko gerrak Espainia eta Euskal Herriko ekonomian eragin zuzenik ez duen izan».

Dena dela, gerrak ez duela soldata krisirik sortuko azaldu du, «ez bait gaude atzerapen ekonomiko batean murgildurik».

Espainiako Gobernuak Golkoko arazoan daukan parte hartzea «onartezina» dela azaldu dute, eta «EEBBen izakera inperialista eta berarekin dauden estatuek honen aurrean hartu duten paper laguntzailearen erakusketa» dela gerra gaineratu du.

Sindikatuko iturriek argi utzi nahi dute «gure gerraren aurkako jarrera ez dela Sadam Husseinen politikaren aldekotasunarekin nahastu behar».

CCOO: «Hondamendi ekonomikorako urratsak eman dira»

CCOO sindikatuko Konfederakuntza Idazkaritzak Golkoko gerrarekin «ekonomia, sozial eta gizarte mailan kalkula ezinezko ondorioak ekar ditzakeen hondamendirako lehen urratsak» eman direla adierazi du.

Espainiako Gobernuari indar militarren erretiratzea eskatzen dio CCOOk bere idatzian, eta «Espainiako langileak inplika ditzakeen neurririk ez hartzea» esijitzen diote. Langilegoari beren lantokietan gerra eta gobernuaren jokabidearen gaitzespena ager dezaten eskatu dio.

Sindikatuak «gerra gelditu eta indar militarra zonaldetik erretira daitezen» eskatzen du. Halaber, «irakiarrek Kuwait utz dezaten eta mendebaldeko indarrek ekialdetik alde egin dezaten» esijitzen du, «nazioarteko instituzioen bitartez konpondu ahal izateko zonaldeko egoera larria».

Bihar bi ordutako geldialdi orokorra egiteko proposamena luzatu dio UGT sindikatuari eta gerraren aurkako ekitaldi bateratu guztietara atxekitzen da CCOO bere komunikatuan.

CGT: «Gerraren ekonomi-emaitzak langileriaren bizkar»

CGT sindikatuak,«atzo bertan burtsak ezagutu duen goititzea lekuko, kapitalisten interesen zaintzeko egiten den gerra» dela esan du. Gerra horren prezioa, minutuko 800 milioi libera kosta dela jakinik, gastuak, langileriari dizkiotela ordain araziko diote ez eta petrolio konpaini saltzaileei.

CFDT sindikatua kezkatua agertzen da, gerra horrek gizarte mailan izan dezakeen ondorioengatik baina erru osoa Sadam Husseini botatzen diote. Aliatu indarren erasoan, nazioarteko eskubideen zaintzeko ezinbesteko urratsa ikusten dute. Nahiz eta gerran izan, negoziazio bidea beti irekirik atxiki behar dela diote eta horretarako, beren aldetik, nazioarteko mailan arabiar, palestinar eta israeliar sindikatuekin dituzten harremanak zainduko dituztela bereziki adierazi digute.

EHLE, Euskal Herriko Langileen elkarteak langileria eta herri zapalduen bizkar egiten den gerra dio, langile abertzale gisa beraz, gerra horren gelditzeko mobilizazioetan parte hartzera deitzen dute.

Segurtasun neurri bereziak gerraren aurrean

ESTHER ZARRAUA / **DONOSTIA**

Frantzia eta Espainiako gobernuek segurtasun neurri bereziak hartu dituzte, Iraken aldeko talde arabiarrek eraso terroristak egingo dituzten beldur bait dira. Bai Frantziak, eta baita Espainiak ere Segurtasun Indarrak jarri dituzte Golkoko gerran parte hartzen duten herrien egoitza diplomatikoak, interes estrategikoko enpresak eta base militarrak zaintzen. Mugak dira poliziaren kontrol handia duten beste puntu batzuk, eta Espainiako Gobernuak arabiar herrietatik datozenak zergatik eta zertara datozen ondo ikertzeko agindua eman duen bitartean, Frantziak galerazi egin die irakiar herritarrei Frantzian sartzea.

● Poliziak babesten zituen Madrilen kokatutako Irak, EEBBak eta Israel-eko enbaxedetako giroa lasaia zen. Irak-eko enbaxadak bestalde, ez zuen inolako adierazpenik egin. Ildo beretik, Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministroak kontaktu zuzenak izan zituen Golko aldeko espainiar enbaxadekin han bizi duten egoera ezagutu asmoz. Amman-en dagoen espainiar enbaxadoreak osteguneko goizaldean egoera normaltasunekoa zela esan zuen, Arabia Saudia, Egipto eta Jordaniakoek ere gauza bera adierazi zuten, denak bat etorriz informazio urria zutela esaterako orduan.

● Rota eta Zaragozako base militarretan asteazkenetik osteguneraco gauean egondako mugimendua «ohizkoa» izan bazen ere, Cadiz-eko Moronekoan eta Torrejon de Ardozekoan ez zen hala izan. Torrejoneko bizilagunek esan zutenaren arabera, bost minutuero irten eta lurra hartzen zuten hegazkinen zarata entzuten zen. Bertako irakaskuntza ertainetako institutoetan ez zuten eskolarik izan atzo, ikasleek greba egin eta basearen aurrean manifestazioa egitea erabaki zutelako Golkoko istiluaren aurrean beraien desadostasuna erakusteko.

Zortzi diputatu eta hiru senadore suspenditu alderdi sozialistak

Indarra erabiltzearen aurka azaldu ziren Legebiltzarreko bilkuretan

Zortzi diputatu eta hiru senadore suspenditu egin dituzte alderdi sozialistaren militantziatik joan den asteazkenean Golko Pertsikoan indarra erabiltzearen aurka botoa eman zutelako, Pierre Mauroy Lehen Idazkari sozialistak adierazi zuenez.

J.M.S./L.E. / **DONOSTIA**

Suspenditutako hamaika legebiltzarkideen artean Max Gallo eurodiputatua aurkitzen da, 75 intelektualen taldeko partaidea. Talde honek gerraren aurkako deialdia egin zuen eta bakearen aldeko manifestaldia konbokatu. Defentsa ministraritzako ordezkoa den Gilberte Marin Moskowitz diputatua ere hamaika horien artean aurkitzen da. Jean Pierre Chevenement Defentsa ministroak ere gerraren aurka botatu zuen, baina bere suspentsioa ez zuten iragarri.

Diputatu eta senadore horiek Asanblada Nazionalean eta Senatuan egindako bozketetan aurka jarri edo abstenitu egin ziren Michel Rocard lehen ministroak egindako proposamenean. Hamaika legebiltzarkideek «ezingo dute ordezkatu, hitzegin edo idatzi gehiago alderdi sozialistaren izenean» esan zuen Mauroy-ek. Erabakiaren ardura «pertsonala» hartu zuela esan zuen.

Pierre Mauroy arduratu da «pertsonalki» suspentsioaren erabakiaz.

ERASOAK FRANTZIAREN AURKA

Frantziako Kontsulatua Constantina-n, Aljerretik ekialdera 400 kilometrotara, eraso zuen atzo partaidetza frantsesaren aurka protestatzen zuen talde batek. Lehendabiziko salairuan sartu ziren, baina poliziak aurre egin zien segituan kanpora bidaliz. Kalteak eta erasotzaileen ideologia politikoa ez dira ezagutzera eman.

Ehundaka gazte aljeriarrek erasotu zituzten Air Franceren delegazioa eta Frantziako zentro kulturala Constantinan, eta bandera frantsesa erre. Estatu Batuen aurkako oihuak egin eta Aljeriak herri mendebaldarrei hidrokarburoak ez saltzeko eskatu zuten Iraken alde jarriz.

MITTERRAND GERRA ARDURADUN

Mitterrandek gerraren ardura guztia bere eskuetan daukа. Protesta eskasak ezik, batasuna lortu du bere inguruan. Sorpresa gutxi da gertakariei begira Frantzian. Atzo hasi fasea zehazki argitaratuzen eta jendearen erreakzioak onespen baten inguruan dira gehienak. Adostasun politiko orokorra aldaiteke, ekintza militarrak gaizkituko balira frantsesentzat, eta ondorio ekonomikoak gogorrak balira. Atzo eguerdian Roland Dumas ministroak ziona, «Saddam Husseinek bere populua gerraren zorigaitzean eror arazteko ardura grabea hartu du», gehiengoaren ikuspegia da. Elyséeko Jauregian dira Frantziak eraman ekintza militarren aginduak hartzen, Mitterrandek asteazken gaueko 22.15etan gerran sartzea ofizialki erabaki geroztik. Han dira Chevénement Defentsarako Ministroa, Joxe Barne Ministroa eta Schmidt Generala, armadako Estatu Nagusiko burua bilduak dira, Gerra Kontseilua osatuz.

Felipe Gonzalezek lasaitasuna eskatu zuen une larri hauetan

MADRIL

Felipe Gonzalez lehendakariak lasaitasuna eskatu zion herri espainiarrari une larri bat delako, nahiz eta gerra arriskua ez izan Estatu espainiarrean. Seguritate Plan bat jarri dela martxan iragarri zuen Ministro Kontseiluaren bukaeran. Energia neurriak beharrezko diren garaian ezarriko direla esan zuen.

Ustezko eraso terroristen aurrean prestatu da Seguritate Plan hori. Gerra piztu ondoren, Golkoan dauden untzi espainiarren arriskua «lehen baino txikiagoa» dela esan zuen Gonzalezek, «Marinel espainiarrentzat ez dago arriskurik». Etengabeko kontaktua dagoela Golkoan dauden fragata eta bi korbetekin jakinerazi zuen. Espainiak ez du bere jarrera aldatuko eta gatazkan zuzenki ere ez du parte hartuko. Nazio Batuen erabakiak betearazteko laguntza logistiko eta humanitarioa emanez jarraituko duela esan zuen lehendakari sozialistak Moncloa Jauregian egindako Ministro Kontseiluaren ondoren.

Gaur egungo egoeraren errudunztat Saddam Hussein akusatu zuen eta operazioak Kuwaitetik erabat erretiratu arte ez direla amaituko segurtatu zuen. Gerra lehenbaitlehen amaitzearen itxaropena agertu zuen «ahal den hildako gutxienekin».

Iraken «errakzio positiboa» kalte gehiago ez izateko balioko lukeela esan zuen. «Inoiz ez dira desagertzen komunikazio zubi guztiak» erantzun zuen harreman diplomatikoetaz egindako galdera bati.

Barne seguritatea, irakiarren atentatuen aurrean, Gobernua kezkatu egiten duela baieztatu zuen, baina biztanlegoari «lasaitasuna» eskatu zion, beharrezko neurriak hartu direlako. «Janarien banaketa bezalako arazo psikologikoek» ez dute Gobernua kezkatzen. Alor horretan «inongo arazorik» ez dagoela esan zuen eta populazioaren artean «urduritasunik» ez dela sortu behar, bai ordea «ezohizko salmentak egin nahi dituzten espabilatu batzuen abusúak ebitatu».

Talde radikalek martxan jar ditzaketen lisker publikoetan parte ez hartzeko eskatu zien Gonzalezek espainiarrei, segurtasun baldintzak zalantzan jarri nahi dituztelako. Buruzagi parlamentarioekin telefonoz hitzegin zuela ziurtatu zuen eta gaurko osoko bilkuran Kongresuak Espainiaren jarrera apoiatuko duela espero du. Alderdi politikoen jarrera errespetatuz «Iraken jokaeraren analisi falta, Kuwait inbaditu zuela ahaztuz» nabari dela esan zuen. Bakearen aldeko lana jarraitu behar da Gonzalezen ustez, oreka bilatuz.



Felipe Gonzalez.

«Inoiz gatazka bat ez duela hainbeste baztertu Komunitate Internazionalak baiezta dezaket, konponbidea indarrez ez zuen nahi» adierazi zuen Gobernuko lehendakariak. «Une delikatua eta dramatikoa da. Saddam Husseinen eromena nabaria da eta indarraren erabilera legitimoak indarraren erabilera ilegitimoaren menpean jartzea ebitatuko du» erantsi zuen. Operazio militarrak ez dira geldituko Kuwaiten askatasuna ebidentea izan arte, Irakek erretiratzea ez badu erabakitzen, Gonzalezek zehaztu zuenez.

PERCHA
EDITORIAL & OBRA GRAFICA
OBRA GRAFIKOAREN EDIZIOA
LITOGRAFIA
GRABATUA
SERIGRAFIA
PESCADERIA,11
TFNA.: (943) 39 38 93
FAXA: (943) 40 00 50
20110 PASAI SAN PEDRO
(Gipuzkoa)

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA
Iragarki honen bidez interesatuei jakin erazten zaie, Amarozko Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzen adjudikaziorako eskaerak aurkezteko epea datorren Otsailaren 14ean, arratsaldeko ordubietan amaituko dela.
Tolosa,1991ko Urtarrilaren 17an.
ALKATEA

Frantziak bigarren erasoaldian parte hartu zuen 12 hegazkinekin

Lehenengoan ez ziren izan hegazkinak irakiarrenak bezalakoak direlako

Frantziako hamabi hegazkinek Iraken aurkako bigarren erasoan hartu zuten parte. Horietatik lau ikutuak izan ziren, baina zauritu arin bakarra izan zen pilotuen artean. Aurretik Mitterrand-ek Bush-ekin hitzegin zuen. Lurreko tropa frantziarrak erasotzen hasi gabe zeuden oraindik.

JOXEMI SAIZAR / **DONOSTIA**

Jean Pierre Chevenement Golkoan dauden soldaduak bisitatu zituen irailean. REUTER

Jaguar hegazkin bateko pilotua da zauritu arina eta bere familiari abisua eman diote Jean Pierre Chevenement Defentsa ministroak adierazi zuenez. Hamabi hegazkin frantziarrek Kuwaiten hegoaldea erasotu zuten eta ekintzan lau hegazkin ikutu zituzten, bat oso larriki kaltetuz, baina pilotu guztiak bizirik eta arriskutik kanpo daude.

Schmitt generalak, Armadaren Estatu Nagusiko buruak, hegazkin frantsesek, estatubatuarrekin batera, erasotu zuten zonan Scud misilak, defentsa antiaereoak SAM 6 eta SAM 8 misilekin, eta defentsa antiaereoko kanoiak eta metrailetak zeudela esan zuen. Guzti horiek medio elektronikoen bidez bakarrik deuseztu zitezkeela esan zuen Schmitt generalak.

HASIERA BESTERIK EZ

Chevenement ministroak Estatu Batuekin protokolo akordioa sinatu zutela iragarri zuen eta Frantziak Irakeko lurraldean ez duela parte hartuko. «Guzti hau hasieraren hasiera besterik ez da» adierazi zuen Defentsa ministroak. Hegazkin frantziarrek indar aliatuek Iraken egindako aire erasoaren lehenengo fasean ez zuten parte hartu. Horren arrazoia hegazkin frantziarrak eta irakiarrak berdinak izatean dago. Berdinak izanik sistema elektronikoek ezin dituztelako bereiztu ez zuten parte hartu atzoko 00.30etako erasoan. Kuwaiteko helburu militarren aurkako bigarren erasoldian berriz, parte hartu zuten hegazkin horiek.

Golkoan dauden soldaduak laguntzeko odola hotza eta abertzaletasuna argi eduki dezatela eskatu zien frantsesei Chevenementek.

BERROGEI HEGAZKIN GOLKOAN

François Mitterrand lehendakariak Kuwait askatzeko indar militar frantsesen partaidetzarako baimena eman eta handik ordu t'erdira egin zituen adierazpen hauek Defentsa ministroak.

Frantziak 40 hegazkin ditu Golkoan: hamabi Mirage 2.000 ehizegazkin, lurreko erasorako 24 Jaguar eta errekonozimendurako lau Mirage F1-CR. Cehevenementek «Errepublikako lehendakaria eta Gobernuaren izenean afektu, onespen eta konfidantza» adierazi zien soldadu frantziarrei. Bakea lortzeko Frantziako Armadaren arrakasta desio duela adierazi zuen.

Espainiako 3 untziak enbargoa betearazten segitzen dute

DONOSTIA

Estatu espainiarrak bidalitako hiru untziek lehengo lekuan segitzen dute Estatu Batuek Irak erasotu eta gero ere. Defentsa Ministraritzako eledun batek adierazi zuenez, 'Numancia' fragatak eta 'Infanta Cristina' eta 'Diana' korbetek lehengo helburuekin segitzen dute —enbargoa betearaztea alegia—, eta «orain-go egoerarako aurrikusitako agin-duak betetzen ari dira». Untziak zehatz-mehatz non dauden argitu ezin dutela adierazi zuten Ministeritzatik. Operazio militarren gunetik urrutiratu zirela azaldu zuten hala ere.

Bostehun marinel baino gehiago dira Espainiako Armadak gatazka gunera bidali zituenak. Datozen egunotan, beste fragata bat, 'Extremadura' delakoa, Mediterraneoko ekialderantz abiatuko da NATOko indarrekin —NAVOCFORMED— bat egitera. Turkiaren defentsarako eta inguruko itsas trafikoa kontrolatzeko eratu du Aliantza Atlantiarrak flota hori.

Honez gain, Torrejon (Madril), Zaragoza, Rota (Cadiz) eta Morónéko (Sevilla) base militarrak funtsezkoak dira Estatu Batuetako Aireko Armadarako, eskala teknikoetarako beharrezkoak izan bait zaizkio baseok.

Espainiaren pasrtehartzea joan zen irailean hasi zen 'Santa Maria', 'Cazadora' eta 'Descubierta' untziak bidalita. Hiru hauek ordezkatzera heldu ziren orain gatazka gunean jarraitzen duten hirurak. Hauen ordez joan daitezke, gerra hasi eta gero ere, 'Victoria' fragata eta 'Vencedora' eta 'Infanta Elena' korbeta, nahiz eta Espainiako Defentsa ministraritzak data zein izan daitekeen argitu ez duen.

Legebiltzarra beranduegi bilduko dela dio Anguitak

MADRIL

Espainiako indar politiko guztiak, hasi eskubitik eta ezkerreraino, gerraren aurka jarri ziren atzoko lehendabiziko orduetan, Estatu Batuen eta indar multinazionalen lehendabiziko bonbardaketak izan ondoren. Alderdiek bilerak inprobisatu zituzten egoera aztertzeko eta gaur Kongresuan egingo den osoko bilkura prestatzeko.

PSOEren Antolakuntza idazkariak, Jose Maria Benegasek, Golkoko gerran «ahal den hildako kopuru txikiena» izateko itxaropena azaldu zuen. Saddam Hussein «intransigente fundamentalistak» gerra «ebitaezina» egin duela baieztatu zuen Txiki Benegasek, nahiz eta nazioarteko komunitateak gerra ekiditeko saio posible guztiak egin. Egoera lehenbailehen normalizatzea espero du ordezkari sozialistak.

Jose Maria Aznar PPko lehendakariak gerraren hasieraren errua lehendakari irakiarrari leporatu zion baita ere.

IUren koordinatzaile nagusiak hitz gogorrak izan zituen Gobernu espainarra eta Estatu Batuen aurka. «Espainia inplikatuta dago gerran, nahiz eta laguntza logistikoa emanez egon, intendentzia Armadaren zati bat delako» adierazi zuen. «Gerra hasi eta handik 48 ordutara Legebiltzarra bilduko den Estatu bakarra gara» salatu zuen Anguitak. Estatu Batuak eta Iraken arteko gerra hastea «astakeria» dela eta «une hauetan mendebaldetarra izateagatik lotsa sentitzen dut» adierazi zuen. «Inbaditzailea bidaltzeko egingo den kaltea mila aldiz handiagoa izango da» adierazi zuen eta aliatuei gogoraerazi zien, arazoak arazo gehiago sortu gabe konpondu behar diela. Bakearen aldeko pertsona guztiak mobilizatuko dituela iragarri zuen Julio Anguitak «ez gerra geldierazteko bakarrik, gure untziak itzul daitezen baizik».

BASEAK ERABILTZEN EZ UTZI

Estatu Batuei Espainian dituen baseen erabilera debekatzea eskatu zuen Anguitak. Espainiaren partaidetza militarraren aurka, Estatu Batuek zuzentzen duten indar multinazionalen laguntza logistikoa barne, jartzen den edozeini IUk «laguntza politiko, sozial eta juridikoa» emango diola iragarri zuen. Mediterraneoko estatuek jasango dituztela ondorioak adierazi zuen politikari komunistak eta interbentzioak «beste gatazka eragingo duen sentimentu panarabiar fundamentalista» sortuko duela esan zuen. Estatu espainiarrak hartutako papera kritikatu zuen eta PSOE, PP eta CIU alderdiek «haiseratik gerraren logikan» instalatu direla salatu zuen. IUk Estatu Batuek hasitako ekintza belikoa salatu zuen «ondorio kalkulaezinak» dituen gerra ekarriko duelako.

Julio Anguita. EFE

CDSko idazkari nagusia, Jose Ramon Caso, gerraren aurka azaldu zen baita ere. Irtenbide diplomatiko eta negoziatuaren alde jokatu du alderdi zentristak azken hilabete hauetan eta militarki parte hartu gabe Iraken aurkako enbargo ekonomikoak jarraitzea nahi zuen.

Alderdi katalan nagusiek (CIU, PSC, IC, ERC) ere gerra hastearen aurka posizionatu ziren eta lehenbaitlehen bukatzea espero dute.

Atentatu bat sinagoga baten aurka Lyon inguruan

LYON

Lyon ondoko Venissieux herriko sinagogaren aurka atentatu bat egin zuten asteazken gauean, gerra hasi baino ordu batzuk lehenago. Eliz musulmanaren aurkako erasoan ez zen biktimarik izan. Hiru koktel Molotov bota zituzten herenegun gaueko 22.30etan sinagogako atearen kontra, Minguettes auzoan. Koktelek ez zuten kalterik sortu.

Lekukoek esan zutenez, atentatuaren ustezko egileak Polizia iritsi baino lehenago ihes egin zuten zenbait gizon izan ziren. Atentatua ez du inork erreibindikatu oraindik. Tenpluaren inguruan polizia neurriak hartu ziren, «Vigipirate» operazio antiterroristaren barneko bigarren fasean.

Sinagoga horren aurkako erasoa Irak eta Saddam Husseinen aurkako kanpaina bezala interpretatu daiteke, nahiz eta atentatuaren egiletza inongo talde terroristak ez aitortu. Poliziak segurtasun neurri bereziak hartu ditu arabiarren egoitzak eta estatubatuarren interesak babesteko.

Erantzun eta balorazio ezberdinak Euskal Herrian

Ardanza: «Gerra abuztuaren 2an hasi zen eta ez gaur goizaldean»

Anasagasti EAJko diputatuaren ustez Espainia jarrera zuzena izaten ari da

Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak adierazi duenez, abuztuaren 2an hasi zen gerra, eta «defentsa lejitimoan» jokatu baino ez du egin orain nazioarteko komunitateak. Hala ere, epe motzekoa izango dela uste du Golko Pertsikoan piztu den gerra.

GASTEIZ

«Gerra abuztuaren 2an hasi zen eta ez gaur goizaldean» adierazi zuen atzo Jose Antonio Ardanza, Gasteizko Jaurlaritzako iharduneango lehendakariak. Bere ustez, Irakek Kuwait erasotzerakoan piztu zen gerra, «orain hasi dela onartuko bagenu eta beraz horren ardura nazioarteko gizarteak duela pentsatu, Bigarren Mundu Gerra herrialde demokratikoak hasi zutela Hitler-en kontra onartuko genuke», esan zuen atzo Ardanzak.

Bere ustez, «defentsa lejitimoan erantzun behar izan dio nolabait ere Iraki nazioarteko komunitateak». Gatazka hau lehenbaitlehen bukatzea desio duela esan zuen Ardanzak, eta denbora luzez iraungo ez duenaren esperantza duela.

Golko Pertsikoan gertatzen ari denari buruz gobernu zentrala ez dela ari elkarte autonomo desberdinak informatzen azaldu zuen Gasteizko Jaurlaritzako buruak, baina alderdi politiko desberdinek, eta horien artean EAJk, jaso dutela berririk Madriletik. Beste iturri batzutatik jasotako informazioa ere baduela EAJk esan zuen, eta gerra hasi aurretik, gertatuko zenaren jakinaren gainean zegoela.



Jose Antonio Ardanza, EAEko lehendaria.

ESPAINIAK JARRERA ZUZENA

«Gauza hauek nola hasten diren badakigu, baina inoiz ez da jakiten nola amaituko diren» adierazi zuen Iñaki Anasagastik, EAJk Madrilen duen diputatuak. Hala ere, ez asaldatzeko eskatu zien euskal herritarrei, «gatazka hau ez luzatzeko baldintzak badaudelako»

Gerra notizien aurrean Espainiako Gobernuak izan duen jarrera «zuzena» izan dela uste du EAJko Madrileko bozeramaleak. «Enbargoa betea izan dadin bijilantzia lanak burutzea zuten helburu espainiar tropek eta horretarako zuten lekuan daude, ez azken gertaeren lekuan» azaldu zuen Anasagastik.

HB: «Ezin da ahaztu gerra hau petrolioa kontrolatzeko dela»

DONOSTIA

Herri Batasunak esan du hasi berri den gerra hau petrolioa kontrolatzeko baino ez dela. «Herri arabiarra ez da Euskal Herriaren etsaia, eta ezin dugu ahaztu gerra hau petrolioa kontrolatzeko dela» adierazi zuen HBk. Gainera, gerra honen bidez EEBBen nahia herri pobreak kontrolatzea dela azpimarratzen du. «Hasi berri den gerra, Irakeko herri eta estaduaren kontrakoa da, eta horrekin batera eskienitako informazioak herritarren artean hilik ez direla izango sinestarazi nahi digute» salatu du HBk. Bestalde, iparamerikarrek munduko potentzia militaristena eta maltzurrena direla azpimarratzen du ezker abertzaleko alderdiak. «EEBBek dira Vietnam eta Corea eta Latinoamarikako herriak erasotu zituztenak, armen ugalkortasuna indartu dituztenak eta Israel eta mundu zabaleko diktadoreei babesa eman diotenak» dio HBk. Madrileko gobernuak bebesa eskeintzen ari da Bushen armadari, abioien garraiorako babesa eta infraestruktura eman diolako HBren ustez.

Bakerako armadarik ez dagoela ikusi da Golkoan, EAren ustez

GASTEIZ

«Eusko Alkartasunak, alderdi bakezale eta antimilitarista gisa, ezin du Golko Pertsikoko gerra onetsi, hau ekiditzea gure esku ez badago ere» dio EAk atzo kaleratutako idatziak. Gerra piztuarazi duena Sadam Husseinen jarrera izan dela uste badute ere, EAkoek «tamalgarri deritzogu gerra geldiarazteko diplomaziak azaldu duen gaitasun ezari». Halaber, «Justizia eta askatasunaren idealak baino interes ekonomikoak piztuarazi dutela gerra» esaten da komunikatuan. Armada guziak bakearen izenean eratzen diren arren, «azkenean beti gerra egiteko izaten direla» uste du EAk eta ondorioz, «Armadarik gabeko gizartean alde borrokatu behar dugu».

EAk Kuwait, Kurdistan eta Irakeko herriekiko elkartasuna adierazten du, «beraiek izango bait dira zigortuenak, euren eritzia ere azaldu gabe gerran murgilduak direnak».

Nafarroako Gobernua Golkoko gerra ekintzen alde azaldu da

A.U. / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak, Golko Pertsikoko gerrak eragin duen nazioarteko egoera aztertu ondoren, gizarte nafarrari zuzendariko manifestoa kaleratuu zuen atzo.

«Nazioarteko komunitateak Golko Pertsikoko gatazkari irtenbide baketsua emateko egin dituen saio guziak alferrikakoak izan dira, sistematikoki Irakeko erregimen erasotzailearen intransigentzi irrazionalarekin topo egin dute eta» hasten da komunikatua. Jarrera horren ondorioz kuwaitar lurraldea askatzeko gerra ekintzei ekin zaiela dio idatziak, ekintzon aurrean «Nafarroako Gobernuak Nazioko Gobernuak hartutako erabakiekin bat egiten duela» gaineratuz. Halaber, gerra lehen bait lehen buka dadin eta ahalik eta heriotz gutxien izan ditezen nahi duela esaten da idatzian.

Azkenik, «Ekialde Erdikoan benetako bakea lortzeko Nazioarte Bake Konferentzia» eskatuz amaitzen du Nafarroako Gobernuak.

EE: «Nazio Batuen erabakiak bete egin behar ditu Irakek»

BILBO

Ramon Peñagarikano Euskadiko Ezkerraren Kanpo Harremanetarako arduradunak atzo agertu zuen bere alderdiaren ustez bakea lortzeko halabeharrezko pausua Irakek NBEren erabakiak betetzea dela. «Guk beti esan dugu Nazio Batuen erabakiak aurrera eraman behar direla eta gerra aurrera joan arren Irakek Kuwaitetik kanpora alde egin behar duela».

Honekin batera, EEko ordezkariak agertu zuen Ekialde Ertainari buruzko Nazioarteko Bilkura burutu beharko litzatekeela, baina beti ere Irakek Kuwait uztea izanik lehen pausua. Nazioarteko Bilkuran Herri Palestinarraren arazoa ezezik, bestetzu ere aztertu beharko lirateke, «hala nola Libanoko egoera», Peñagarikanoren arabera. Nazioarteko Indar Militarrei buruz, Peña- garikanok ziurtatu zuen hauek ere erretiratu egin beharko liratekeela, baina hau ez litzatekeela gertatu be- har Irak Kuwait-tik erretiratzearekin batera, hurrengo pausu gisa baizik.

EMK-LKIk: «ordenu berria dago jokoan»

BILBO

EMK eta LKI alderdiek gerra geldiarazteko aldarrikapena egin zuten atzo igorritako komunikatu batetan. Alderdion eritziz, Golkoko gatazkan asko dago jokoan. «Alde batetik beharbada ehundaka mila lagunen bizitza eta bestetik Ekialdeko herrien gainbeheratik sortutako ordenu berriaren argiztapen praktikoa».

EAEko segurtasuna aztertzeko bilerago bernadoreek

GASTEIZ

Euskal Autonomi Elkarteko herritarren segurtasuna koordinatzeko onartu dituzten neurriak zehaztu zituen atzo J. M. Egiagarai, gobernu espainiarrak EAEn duen ordezkariak gobernadore zibilekin. Zentru ofizial, enpresa, «zenbait leku estrategiko», aireportu eta mugetako segurtasuna ziurtatzeko neurriak aurretiaz ari zirela prestatzen adierazi zuen Egiagaraik.

EUSKAL KULTURAREN BATZARREA

EKB osatzen duten erakunde, elkarte eta talde guztien elkarlanari esker euskaltzalegoari bere zerbitzuak eskaintzen dizkio:

- Aholkularitza Juridikoa
- Prentsa Boletina
- Dokumentu Zentrua
- Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideen Gidaliburua
- BAT/Soziolinguistika-Aldizkaria
- Herri mailako lanerako Planifikaziorako Orientabideak
- ...

Baleazaleen kalea 12, 1-A
20011 DONOSTIA
TL. 46 66 76 / 50. FAX-a 46 68 94

Gerraren kontrako mobilizazioak Euskal Herrian

Irakaskuntzak greba egingo du gaur eta eguerdian manifestazioak izango dira

Atzo milaka lagun bildu zen herri eta hiriburuetan 'Gerra geldierazi' lemapean

Gerra hasi zena jakin bezain pronto batzarrak egin zituzten ikasleek atzo goiz erdian eta Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan manifestazioak egin ziren eguerdian gerraren kontra. Iluntzean milaka lagun bildu zuten konzentrazioek eta gaur irakaskuntzan greba eta eguerdian manifestazioak egiteko deia luzatu zuen Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak.

EGUNKARIA

Gerraren kontra erantzun jendetsua, indartsua eta etengabea behar dela esan du Gerraren Kontrako Batzordeak. KEPA

Bart ilunabarrenean izandako bileren ondotik, Pertsiko Golkoan piztu den gerraren kontrako mobilizazio eta protesta ekintza ugari hasi da Euskal Herri osoan. Atzo gauean bertan milaka lagun bildu ziren Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak eta Bakearen Aldeko Euskal Iniziatibak eginiko deiari jarraituz. Batzordeak atzo gaueko bederatzietatik aurrera gerrari kontra egiteko entzerronak egitera deitu zituen ikasleak.

Gaur irakaskuntza ertainean eta unibertsitatean greba egiteko deialdia egina dago eta eguerdiko hamabietan manifestazioak izango dira hiriburuetan, Bilbon Arenalean, Donostian Bulebarrean, Iruñean Gaztelu plazan, eta Gasteizen Virgen Blanca plazan.

Ondoko egunotarako ere protesta ekintzekin jarraitzeko asmoa dute Golkoko gerraren kontra dauden taldeek. Urtarrilak 20, igandea manifestazioak izango dira Euskal Herriko hiriburuetan Gerraren Aurkako Euskal batzordeak deituta. Aurretik, larunbat iluntzeko zortzi t'erdietan, konzentrazioak egiteko deia luzatu du Bakearen Aldeko Euskal Iniziatiba taldeak.

Atzo Hego Euskal Herrian goiz erditik aurrera kalera ateratzea erabaki zuten irakaskuntza ertaineko ikaslegoaren hirutik batek. Hainbat eskolatan klaseek normal jarraitu zuten baina beste askotan batzarrak egin ondoren, bapateko manifestazioak egin zituzten.

Iruñean lau mila lagun inguru bildu ziren eta manifestazio bukaeran Gobernu Militarraren aurrean eserita egon zen ikasle jendea. Bilbon ehundaka gaztek hartu zuten parte manifestazioan. Arenaletik atera eta Gobernu Zibilera abiatu ziren, bertatik berriz Arenalera bueltatzeko. Behin han Batzordeko kideek mobilizazioetan parte hartzera eta intsumisiora deitzen zuen agiri bat irakurri zuten. «Gerraren aurka mobilizatu egin behar da eta armada espainiarrean parte hartzeari uko egin» azpimarratu zuten Batzordeko kideek.

11.30etatik hasi ziren ikasleen manifestaldiak Gasteizen. Ordu horretan, hiriko bi tokitatik bildu eta manifestatu ziren ehundaka gazte, 12.30etan Virgen Blanca enparantzan multzo biak elkartzeko gero. Bertatik bi manifestaldi ezberdin atera ziren, bata Sindicato de Estudiantes-ek deitua eta bestea Gerraren Aurkako Batzordeak. Lehendabizikoak 300 bat ikasle bildu zituen eta bigarrenak 2.000 inguru, biak eurijasa izugarri batenpean Gobernu Militarraren egoitzaraino hurbildu ziren. Poliziak galerazi zien gazteei gehiegi hurreratzea.

Baionan manifestazio bakarra arratsaldeko seirak eta zazpirak bitartean egin zuten. Isila izan zen, antolatzaileen esanetan «egoeraren larritasunari eman dakiokeen erantzunik egokiena» hori delako. 500 lagun inguru bildu ziren orain arte berexirik ibili diren bi batzordeen deiturik 'Golkoko gerrari ez, mendebaldeko armadak kanpora' zioen banderola bakar baten gibelean.

Jean Lissar, Frantses Estatu mailan hirurogeitamabost pertsonalitateren deiaren ildotik muntatu zen gerlaren aurkako kolektiboaren kideak, gerla horretan, Iparra Hegoaren kontrako lehen enfrentamendu zuzena ikusten zuen, aberatsek pobreen kontra eramaten dutena.

Gerlaren Aurkako Euskal Batzordeko Irene Itursarrik, «Nazio Batuak eta Irak, bi estatu inperialisten arteko gerla horren aintzinean, herri zapalduen eskubideen alde agertu behar dela» erraten zuen.

Talde ezberdinek aho batez kondenatu dute Golkoko gerra

J.G. / **DONOSTIA**

Golkoan hasi berria den gerraren aurka ahots ugari entzun da Euskal Herriko talde desberdinen artean. Esaterako, Kakitzaten esanetan «gerra hau insumisioaren alde azaltzeko soberako arrazoia da» eta datozen egunetarako iragarri diren mobilizazioen bitartez, «gizadiaren aurka erahilketa den guda» geldierazteko saioetan parte hartzeko gonbitea luzatu dute.

Elkarte sindikalek ere gogorki kritikatu dute gerra eta berehala gelditzea eskatu dute. «Talde zein erakunde guztien aldetik gudaren aurkako esfortzuak bateratzeko» deia luzatu dute UGTk, CCOOk, LABek, USOk, CGTk, ESK-CUISek eta STEE-EILASek izenpetutako agiri batean. Gizarte ososko langileak bat egin dezaten eskatu dute talde sindikalek.

Salaketen ildoan, Ikasle Abertzaleek ere 'Golkoko Gerraren aurkako Euskal Batzordearen' deialdiarekin bat etorri dira eta iragarritako entzerrona, greba eta manifestazio ororen alde azaldu dira. Taldeak egindako eskakizunen artean, guda berehala gelditzearena dago, «gizarteak ez bait du nahi gerrarik, militarrek baizik».

Euskal Herriko gizartearen sektore ezberdinetan agertutako eritzien artean, KEMek ere gerraren aurka azaldu da eta insumisioaren, obejezioaren eta desertzioaren aldeko deialdia egin du. Halaber, euskal Batzordeak antolaturiko ekitaldi guztiak jarraitzea eskatu dute.

Kalte ekologikoen beldur da Eki

J.A. / **DONOSTIA**

Estatu Batuek eta bere aliatuek bart hasi duten gerrak ondorio ekologiko latzak ekar ditzakeela salatu du Eki talde ekologistak. «Gerrak ekarriko dituen gizasemeen heriotzez eta kalte ekonomiko eta politikoez gainera, inor gutxik aipatzen dituen kalte ekologikoak ere eraginго ditu» azaldu du Ekik.

Pertsiar Golko inguruan mila arma nuklear inguru daude Ekik dioenez, «eta horregatik arma horiek erabiltzeko, edota istripuak gertatzeko arriskua handia da» adierazi du talde ekologistak.

Ekik bere kezka azaldu du baita ere «petrolio putzuak lehertarazi ditzaketelako, eta hori horrela gertatuz gero, laino poluitzaile handia sortuko litzatekeelako, negutegi efektoa areagotzeko arriskuaz».

Larrea: «Bakearen otoitzak behar dira»

J.A. / **DONOSTIA**

Atzo goizean Bilboko Gotzaitegiak egindako adierazpenetan esan zuenez, oso minduta daude Pertsiar Golkoko gerrak milioika lagunei ekarriko dion hondamendiagatik. «Gerra hasi dena jakin bezain laster, orain milioika gizon-emakumek izango duten sufrimendu eta egonezina geure egiten dugu» adierazi zuen atzo Luis Maria Larrea Bilboko gotzaiak.

«Jainkoaren aurrean bakearen aldeko errezu gehiago eskatu nahi diegu fededun guztiei, kristau ala ez» esan zuen Larreak. «Jaungoikoari berriz, gizakumeen artera bakea ekar dezala eskatu nahi genioke».

Larrea gotzainak, ahalegin berezia eskatu zuen «orain gerrarekin sufrimenduan bizi diren guztiei lagundu ahal izateko».

Aste honetako ARGIAn

- IRURTZUN-ANDOAIN AUTOBIA irtenbidearen atzetik.
- ELKARRIZKETAK OKUPATZAILEEKIN Etxeak utsik zertarako?
- RUPER ORDORIKA: Iturri guztiak ireki ditut.
- ITZULPENGINTZARI BURUZ mahai ingurua

Biharko prentsa gaurtik

Gobernuak eta gerrila indartsuenak suetena akordatu dute Somalian

Gerra zibilaren oinarrian borroka tribalak daude, ez ideologikoak

Somaliako gobernuak suetena akordatu du azken asteetan, Muqdisho hiriburua konkistatzeko gertu egon den gerrila talde nagusiarekin, Somaliako irrati ofizial baten arabera. Oraingoz, iturri independentienteek edo Somalian borrokan diren gerrila talde desberdinek ez dute egiaztatu edo gezurtatu albistea.

LUIS FERNANDEZ / **DONOSTIA**

Somaliako irratiak aipatuz, BBCk zabaldu duenez, sueten akordioa Mohamed Siad Barre lehendakari somaliarrak berak negoziatu du gerrilarekin, hain zuzen Somaliako Kongresu Batua (SKB), borrokan dauden talde armatuetariko indartsuenarekin.

Erreboltariek abenduan hasi zuten Muqdisho hiriburuan kontrako eraso gogorra, baina gerra lehenago hasia zen. Gerrila talde bat hasi zen borrokan 1988an, baina SBKren ofentsiba 89ko uztailean izan zen. Hil honen hasieran, Siad Barre lehendakaria edozein momentutan eror zitekeela zirudien, baina hiriburuko parte garrantzitsu batzuk kontrolpean mantentzea lortu du Armada ofizialak. Mohamed Siad Barre 1969tik da lehendakaria, eta bere agintea, teorian, marxista izan zen 1978ra arte, ordudanik Mendebaldezalea.

HIRU KLAN ELKARTUTA

Borroka ideologikoa baino, tribala da Somaliako gerrakoa. Etnikoki, herrialde homogeneoa dela dirudi, % 98,8 somaliarrak dira, somaliera mintzatzen dute eta musulmanak dira. Baina, klan edo tribuetan daude banatuta somaliarrak, eta oraingo gerran hiru dira borrokan inplikatutako klanak: Isaq klana iparraldean, Hawiye-tarrak hiriburuaren inguruan eta Ogadeni hegoaldean. Alde honetatik, borrokak badu antzarik Liberiako gerra zibilarekin.

Siad Barreren klana Marehan delakoa da, eta administrazio eta botere guztia beretarren eskuan utzi du azken 20 urteetan. Horri erantzuteko protestak iparraldean hasi ziren, Isaq klana armatan altxatu zen 1988ko maiatzean eta Armadaren errepresioan 50.000 lagun hil zituzten.

Hala ere, Isaq gerrilek (bi daude) iparraldearen kontrola irabazi zuen pixkanaka, eta aldi berean, Ogadeni-tarrek hegoaldeakoa. Hawiye klana borrokan hasitako azkena da, 89ko uztailean tribuko 450 lagun manifestaldi batean hil eta gero.





Hawiye klaneko gerrilariak borrokan. Siad Barre lehendakaria Marehan klanekoa da.

Hiru tribu, lau gerrila

■ **Somaliako Kongresu Batua (SKB).** Lehendakariarekin suetena sinatu duen taldea. Honen partaideak Hawiye klaneakoak dira, eta Somalia erdialdean dute indarra, Muqdisho hiriburuan eta inguruetan bereziki. Borroketan bigarren mailan zegoen, Mohamed Faran Hassan generalak bere gidaritza hartu zuen arte. Militar hau, gaitzizenez Aydid ('Ospetsua') Siad Barre lehendakariaren kolaboratzaile ohia da, eta gartzelan egona da. Aydidekin, SKB da orain nagusi gerran.

■ **Mugimendu Nazional Somaliarra (MNS).** 1982an sortu zuen Isaq klaneko intelektual talde batek. Beren aurkariek diotenez, Somaliako iparralderako independentzia nahi dute, baina hori ez dela beren helburua ziurtatzen dute. Bere liderra Abdulrahman Ahmed Ali da, gaitzizezenez Tur ('Korkobaduna'). Aurreko lider historikoa Mohamed Silanyo zen.

■ **Mugimendu Patriotiko Somaliarra (MPS).** Hegoaldean eragin handia dauka Ogadeni klanaren gerrila honek. Omar Jess koronelak gidatzen du eta nahiz eta oso indartsua ez izan, kolpe gogor eta zehatzak eman izan ditu.

■ **Somaliako Fronte Batua (SFB).** Talde hau ere Isaq klanekek osatzen dute. Lehen MNS taldearekin aliatua zegoen. SFB delako hau kenduta, beste hiru gerrila taldeek koordinakunde bat sortu dute elkarrekin, eta ekintza armatu koordinatuak egiten dituzte, Aydid generalaren agintepean.

Lituanian prentsa askatasuna murriztu nahi dute sovietarrek EEBBen ustez

XABIER ZABALTZA / **DONOSTIA**

Lituanian prentsa askatasuna murrizteko asmoa izan lezake Soviet Batasunak, EEBBetako Estatu Departamenduaren arabera. Erabaki hau hartuko balitz, «norabide okerrean emandako urratsa» izanen litzateke, Margaret Tutwiler aipatu departamenduaren bozeramaleak atzo adierazi zuenez.

Lituaniar nazionalisten aurkako bortizkeria bertan behera uztea eskatu zion atzo, Aleksandr Bessmertnikh Soviet Batasuneko kanpo arazoetarako ministro berriari, James Baker bere homologo estatubatuarrak. Estatu Batuen arabera, Bush-en eta Gorbatxov-en artean otsailaren 11tik 13ra egiteko den gailurra arriskuan jarri du Estoniako, Letoniako eta Lituniako mugimendu independentisten errepresioak.

Bestalde, Lituaniari buruz hitzik ez du eginen Nazio Batuen Erakundearen Idazkaritza Naguisiak. François Giuliani NBEaren bozeramaleak azaldu zuenez, erakunde honek ezin dezake aztertu, kide diren estatuetako barne egoerarik. Lituaniara nazioarteko batzordea igor zezala eskatu zuen herenegun Vilniuseko Parlamentuak hilaren 13an bertako telebistaren egoitzan sovietar militarrek egin sarraskia dela eta. 13 lituaniar hil ziren ekintza horretan.

Giulianik esan zuenaren arabera, NBEren Segurtasun Kontseiluak edo Asambladaren baimena duenean soilik, ihardun dezake Javier Perez de Cuellar NBEko idazkari nagusiak estatuen barneko arazoetan.

Milioi erdi lagun bildu ziren Lituanian 13ko hildakoen hiletetan. REUTER

LABURREAN

EEBBk El Salvador militarki laguntzen jarraituko dute

Estatu Batuek El Salvadorri laguntza militarra eskaintzen jarraituko dute, eta bi hilabete barru berrogeitabi milioi dolar luzatuko dizkio. EEBBk laurogeitabost milioi dolarreko laguntza luzatzen dio urtero El Salvadorri, baina kopuru horren erdia geldieraztea erabaki zuen Senatuak 1990eko azken aldean, 1989ko azaroan izandako sei jesuita eta bi emakumeren hilketa argitu arte ●

TEBBIT kontserbatzaile britainiarrak politika utzi du

Norman Tebbit Erresuma Batuko Alderdi Kontserbatzaileko kideak politika utzi egin du legealdia amaitu aurretik. Tebbit kontserbatzaileen artean joera eskuindarreneko burua zen, alderdiko lehendakari izana, eta joera nazionalistaren aldeko eta europar zalearen aurkako ordezkari nagusiena. Alderdi Kontserbatzailea 1984ean Brighton-eko balnearioan bilduta zegoelarik, IRAk burututako atentatuan larri zauritu zuten, baina hiru urte gero tinko jarraitu zuen lanean Thatcherren aldamenean ●

LABORISTAK eta kontserbatzaileak parekatuta inkesten arabera

Erresuma Batuko Alderdi Laboristak botu asmoak zuzpertu egin ditu The Guardian egunkariak eginiko inkesten arabera, eta gobernuan dagoen Alderdi Kontzerbatzailearekin parekatuta legoke gaur egun. Inkestak ageri duenez, britainiarren %43 laboristen alde dago eta beste hainbeste kontserbatzaileen alde. Demokrata Liberalen Alderdi Zentristaren aldekoak %10 dira, eta %2 bakarrik dago Alderdi Berdeari bozkatzeko prest ●

FILIPINETAKO kolpista ihesia atxilotu egin dute

Billy Bibit, 1990eko apirilean gartzelatik ihes egin zuen koronel kolpista Manilan atxilotu zuten atzo Filipinetako Segurtasun Indarrek. Corazon Aquino lehendakaria boteretik botatzeko 1989ko abenduan izandako estatu kolpean parte hartzeagatik atxilotu zuten Bibit koronela. Bibit Ejerzitoko Mugimendu Erreformistako erakunde klantestinoko burua omen da ●

ATLETISMOA

Nebioloren itzalean Donostiako Nazioarteko Krosa aurkeztu zen

IAAFaren Munduko Kros Challengearen barruan dago Donostiako Krosa

Urtarrilaren hogeitazazpian jokatuko den Donostiako Krosak goi mailako partaidetza izango du. IAAFak ezarritako baldintzak oraindik bete ez baldin badira ere, oraindik ere beste hainbat korrikalari lortuko dituztela uste dute antolatzaileek.

MIKEL ARRIETA / **DONOSTIA**

Nazioarteko Atletismo Federazioko (IAAF) lehendakaria den Primo Nebiolo mahaiaren buruan zegoela, urtarrilaren 27an jokatuko den Donostiako Nazioarteko Krosa aurkeztu zen atzo. IAAFak lehen urtez burutzen duen «Munduko Kros Challengea-ren» barruan sartu da Donostiako proba, (Zornotzakoarekin batera) eta honek zenbait baldintza bete beharra eskatzen du.

Antolatzaileek, rankingaren lehen postuetan dauden zortzi herrialde eta hamabi korrikalari lortu behar dituzte proba hau challengerako baliogarria izan dadin. Atzo emandako zerrenda honen arabera, baldintza hauek oraindik ez dira bete, baina antolatzaileek aditzera eman zutenez, hemendik hogeitazazpia bitartean beteko da.

MAILA HANDIKO PARTAIDETZA

Hala ere, urtarrilaren hogeitazazpian jokatuko den Donostiako Nazioarteko Krosak maila handia izango du. Aurreko urteetan protagonista izan diren Etiopiako korrikalariak arituko ez baldin badira ere, maila ziurtatua dago. Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakaria den Patxi Ripaldak atzoko prentsaurrekoan azaldu zuenez, «IAAFak jartzen dituen baldintzekin ezinezkoa da Etiopiako talde osoa ekartzea. Maila handiko korrikalari asko ekarri behar dira». Filosofiaz aldatu behar izan dute antolatzaileek. Lehengo urteetako edizioetan ez bezala, irtetzeagatik soilik diru sariak emango dituzte aurten.

Partaidetzari dagokionez, honako korrikalari hauek ziurtatu dute Donostiako hipodromoan egongo direla: Marcelo Cascabelo eta Antonio Silo Argentinatik; Alejandro Gomez, Jose Manuel Garcia, Estela Estevez eta Julia Vaquero Espainiatik; Cyrelle Laventure Frantziatik; Richard Nerurkar Erresuma Batutik; Roisin Smyth Irlandatik; Julius Korir, William Mutwol, Wilson Omwoyo eta Susan Sirma Keniatik; Mohamed el Masoudi Marokotik; Viorica Ghican eta Julia Negura Errumaniatik; Marcianne Mukamurenzi Rwandati; Ricardo Vera Uruguaytik eta Pat Porter Estatu Batuetatik.

Albistur, Nebiolo eta Ripalda Donostiako Krosaren aurkezpenean. C. VILLAGRAN

IAAFeko kontseilua Donostian bilduko da gaur eta bihar

M.A. / **DONOSTIA**

Nazioarteko Atletismo Federazioko mandatariak Donostiako Maria Cristina hotelean bilduko dira gaur eta bihar. Primo Nebiolo italiarraren zuzendaritzapean, gai garrantzitsu ugari eztabaidatuko dituzte nazioarteko atletismo zuzendariek Nebioloz gain, Leonid Khomenkov (SESB), Ollan C. Cassell (Estatu Batuak), Lamine Diack (Senegal) eta Arne Ljunqvist (Suedia) zuzendari ordeek, Robert Stinson diruzainak eta beste hemezortzi kidek osatzen dute IAFFaren komisioa.

Primo Nebiolok, atletismoaren urtea izendatu du 1991. urtea. Munduko Indoor Txapelketa Sevillan, Munduko Maratoi Kopa Londresen, Munduko Kros Txapelketa Amberesen, Munduko Ibilketa Txapelketa San Josen eta Munduko Pista Txapelketa Japonian. Azken honek interes berezia sortarazi du nazioarteko mandatarien artean.

Garrantzi handiko ekitaldi hauen antolaketa lanak aztertzeaz gain, beste hainbat gai eztabaidatuko dituzte IAAFeko buruzagiek. Kontseiluko kide guztiak egongo dira Donostian, Kuwaitekoa salbu. Gerra dela eta, Elisa Al Dashti kuwaitarrak ezin izango du Donostiako bileran egon. Gonbidapen eskutitza ireki gabe bidali du berriz ere Dashtik, azalean «Herria borrokan» jarriz.

Primo Nebiolo.

FUTBOLA

Gorrizek eta Gajatek beste bi urterako sinatu dute Realakin

MIKEL ARRIETA / **DONOSTIA**

Agustin Gajate eta Alberto Gorriz jokalariek beste bi urtez sinatu dute Realakin. Bi jokalariek atzo arratsaldean sinatu zuten Donostiako taldearen egoitzan Iñaki Alkiza lehendakariaren aurrean.

Realak komunikabideei luzatutako agiriaren arabera, Javier Exposito entrenatzaile berriaren eskaerari erantzunez heldu dira akordiora Gida Batzordea eta jokalariak. Bi jokalari hauek 1991ko ekainaren hogeitamarrean bukatzen zuten kontratua.

Zorte ezberdina izan dezakete lehenengo taldeko beste zenbait jokalarik. Uriak eta Dadiek adibidez ekainean bukatzen dute kontratua, eta Exposito Boronaten iritzi berekoa baldin bada, bi jokalari hauek taldetik kanpo gera daitezke.

Gajatek eta Gorrizek irrifarre egiteko aitzakia badute. ANDER GUILLENEA

KIROLDEGIA

Espainiako futbolaren saneamendua gaur sinatuko dute LFPk eta CSDk

X.M. / **DONOSTIA**

Espainiako futbolaren saneamendu plangintza gaur sinatuko dute Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta Futbol Profesionalaren Ligak (LFP). Hamabi urteko epean, Lehen eta Bigarren mailako taldeek duten 24.000 milioi pezetako (1.200 milioi libera inguru) zorra kitatu nahi da, Kirolaren Legeak agintzen duen bezala futbol taldeak Elkarte Anonimo bihurtu aurretik. Athletic, Osasuna, Real Madrid eta Barcelonak ez daude Elkarte Anonimo egitera beharturta, baina bai beste guztiak, Reala, Eibar eta Sestao barne.

1:985ean ere egin zen saneamendu plangintza, baina ez zuen ezer konpondu. Orain, Lehenengo mailako taldeen zorrak asko jaitsi badira ere, orotara zorra izugarria da, eta berriz porrot egingo duen beldurra hortxe dago.

Estatuarekin (Hazienda, Segurtasun Soziala...) 16.000 milioi pezetako zorra dute futbol taldeek, eta 8.000 milioitik gorakoa erakunde pribatuekin. Hauek kitatzeko, kinielekin biltzen den dirutzaren % 7a jasoko dute klubek; Estatuak 1.800 milioi pezetako berma eskaintzen du, kinielatan aurrikusitako kopurua ez bada biltzen.

Horretarako banakako konbenioak eskatu beharko dituzte futbol taldeek LFPrekin. Futbol zelaietako sarrerak eta takilaian jasotzen den dirua kontrolatzeko sistimak ere ezarri beharko dituzte, LFPk eta CSDk behartuta. Ligak kluben kudeaketak kontrolatzea ere eskatzen du. Trikimailuren bat igarriz gero, iruzur egin duen elkartea plangintzatik ate utziko lukete, eta desagertu egingo litzateke, ziurrenik.

Klub bakoitzak urteroko diru sarreren % 1a ordaindu beharko du gutxienez, kuota gisa. Elkarte Anonimo bihurtuko diren taldeek LFPek bere kontuen auditoria egitea onartu beharko du gainera, urtero.

Aipagarria, Osasuna da Lehenengo mailan Estatuarekin zorrik ez duen talde bakarra Espainiako Ligan. Athletic aldiz, garbi dago erakunde pribatuei dagokionez. Hala ere, Reala da euskal taldeen artean diru gutxien zor duena.

Lehen mailako zorrak

At.Madrid	2.556.094.017
Betis	2.223.875.278
Barcelona	1.687.772.383
Sevilla	1.192.823.076
Zaragoza	1.069.586.748
R.Madrid	1.055.456.991
Español	837.563.308
Sporting	729.564.259
Valencia	695.414.202
Osasuna	571.140.619
Cadiz	554.909.924
Athletic	534.554.207
Logroñes	484.617.691
Reala	373.886.228
Valladolid	373.489.633
Castellon	319.303.000
Oviedo	316.180.933
Mallorca	285.550.121
Burgos	147.111.382
Tenerife	120.118.389
Guztira	16.109.212.689

** Zifrak pezetatan emanak doaz*

BOST NAZIOAK

Bihar hastekoa zen rugby txapelketa kilin-kolon jarri du Golkoko gerrak

Eskozia eta Inglaterraren arteko lehia ikusgarria iragartzen da

Pertsiar Golkoko gerrak Bost Nazioen Txapelketa jokatzea eragotzi dezake. Rugbyko International Board erakundeak behintzat argi esan zuen: «Gerra pizten bada, txapelketa bertan behera utziko dugu, automatikoki». Jokalari eta teknikoek ere gogo onez hartuko lukete horrelako erabakia.

XABIN MAKAZAGA / **DONOSTIA**

International Boardek adierazi zuen legez, «ezinezkoa da, geure soldaduek gerra egiten duten bitartean, guk Bost Nazioen festa ospatzea Frantzian». Lehen ere horrelakorik eman da. Mundu Gerrak izan ziren urteetan ez zen jokatu, eta ezta 1972an, Irlandako egoera gatazkatsua medio. Pertsiar Golkoan gerra izan arren Bost Nazioen Txapelketa jokatzen bada, britainiarren arteko lehia ikusgarria iragartzen da; Eskozia eta Inglaterraren artekoa, batipat.

Eskoziak, 1.990ean txapelduna partidu guztiak irabazita, rugbyrik ederrena jokatzen du jokoa sarri zabalduz ete meleetan ere indartsu. Kalitate handiko jokalariak ditu, edozein unetan partidua beren alde erabakitzeko modukoak. Sole harroina, Hastings anaiak, Jeffrey... Inglaterrak ordea egutegi ezin hobea du. Twickenham zelaian jokatuko du Es kozia eta Frantziaren kontra, eta kanpoan Walles eta Irlandaren kontra.

HIRUGARREN LERRO INDARTSUAK

Inglaterrak zein Eskoziak hirugarren lerro indarsuak dituzte, eta ostikatzaile onak. Bien arteko jokoa ez da nolanahikoa izango. Parisen Frantzia eta Eskoziak jokatuko duten txapelketaren estreinuko partidua erabakiorra izan daiteke hala ere. Daniel Dubrocaren hamabostekoak garaipena lortzen badu, tituloa ere eskuragarria izango zaio. Larogeitako hamarkadan J. Fouroux selekzionatzailearekin nagusi izan dira Bost Nazioetan, baina iaz porrot izugarria ezagutu zuen.

Serge Blanco kapitainak eta Lagisquet, hiru laurdenetako lerroko zabaltzaileak, Berbizier erdi-melearekin batera, Frantziako selekzioaren oinarria dira. Hirugarren lerroan nobedade nabarmenenak Benazzi marokiarra eta Melville hegoafrikarra dira, biak nazionalizatuak.

ESKOZIA GARAIPENARENA ERREPIKATZERA

Eskoziak, iaz Frantziari 21-0 nagusitu zitza iona Murrayfielden, ohorezko tituloa berreskuratzeko erronka du. Ian McGeechan selekzionatzaileak ordea, errespetu handia dio Frantziari. Potentzialki txapelketako talderik onena osatzen duela ere esan du.

Irlanda bosten artean ahulena izan daiteke, jokalari erabat amateurrez osatua bait dago. Teknikoki maila eskasagoa duten arren, zelaian borrokarako grina izugarria erakusten dute eta ez dira erraz errendatzen. Wallesen arazo larriena berriz, hamahirunakako rugbya da. Jokalari asko pasa dira txapelketa profesionala jokatzera, eta amateurretan besteek baino fitxa gutxiago dute. Aurrekaldean, bigarren eta hirugarren lerroetan ez duten indar handirik; hiru laudenetako lerroak arriskatu egin beharko du beraz. Bi talde britai niarron arteko partidua erabakiorra izango da, galtzaileak 'Egurrezko oKoilara' jasotzeko arrisku handia du eta.

Wallesek entseiu gehiegi lortzeko adina indarrik ez duela dirudi.

✓ International Board erakundeak Golkoko gerra piztuz gero, Bost Nazioen Txapelketa automatikoki bertan behera utziko zuela adierazi zuen, eta ez da ziurra jokatuko denentz.

Irlanda eta Walles 'Egurrezko Koilara' ez jasotzeko gogor lehiatuko dira, baina elkarren arteko partidua galtzen duenak zail izango du arriskua ekiditea.

Frantziako Laurent Rodrigrz.

Amateurtasuna kolokan

Bost Nazioetako Txapelketa, kirolaren amateurtasuna garbien mantendu duen esparrua izan da, orain arte. Profesional kutsua hartzen zuen guztia, txikikeria izanda ere, baztertua zen. Biografia idatzi eta autore-eskubideak kobratu dituzten jokalariak ere, bizitza osorako zigortu izan dituzte.

Ez da erraza ordea egoerak bere horretan jarraitzea. Are zailagoa, 'Rugby League' profesionalak 'Rugby Union' amateurraren oinarriak apurtzeari uzten ez badio, jokalari onentsuenei milioiak eskainiz.

Will Carling Inglaterrako selekzioko kapitainak 100 milioi pezeta (bost milioi libera) inguruko eskaintza bota du atzera. Hamairunakako rugbya hamabosnakakoa irentsi nahian dabil, diruaren argudioaz.

Internacional Boardek eskua zabaldu zuen Edinburghen urrian egindako bileran. Hemendik aurrera, rugby jokalariek dirua jaso ahal izango dute iragarkietan agertzeagatik, hauek rugbyarekin zerikusirik ez dutenean.

Jokatzeagatik kobratuko duten egunak ere ez dirudi oso urrun. Dagoeneko, ezkutuko bideak erabiltzen dituenik ere bada. New Zelandeko Kirwanek, askoren eritziz munduko jokalaririk onena, bere herriko txapelketa eteten denean Italian jokatzen du. Eta zail da musutruk egiten duela sinestea.

LXI. edizioaren egutegia

Urtarrilak 19
Parise Frantzia-Eskozia
Cardiff Walles-Inglaterra

Otsailak 2
Dublin Irlanda-Frantzia
Edinburgh Eskozia-Walles

Otsailak 16
Cardiff Walles-Irlanda
London Inglaterra-Eskozia

Martxoak 2
Parise Frantzia-Walles
Dublin Irlanda-Inglaterra

Martxoak 16
London Inglaterra-Frantzia
Edinburgh Eskozia-Irlanda

SERGE BLANCO Euskal Herriko rugby selekzioarekin jokatzen, ezkerretara, Kataluniaren aurka iragan azaroan. AITOR-en argazkian agertzen den gizonak Frantziako selekzioan jokatuko du Bost Nazioen Txapelketa. Ez da ordea euskaldun bakarra izango. Laskube eta Ondarts harroinak eta Lagisket zabaltzailea ondoan izango ditu kapitainak. Elizagoien, Altuna, Ibarluzia, Irazabal, Azarate eta abarrek badute ondorengorik.

Palmaresa

1970 ... Walles eta Frantzia
1971 ..... Walles
1972 ..... Ez zen jokatu
1973 ..... Berdinduak
1974 ..... Irlanda
1975 ..... Walles
1976 ..... Walles
1977 ..... Frantzia
1978 ..... Walles
1979 ..... Walles
1980 ..... Inglaterra
1981 ..... Frantzia
1982 ..... Irlanda
1983 ... Frantzia eta Irlanda
1984 ..... Eskozia
1985 ..... Irlanda
1986.. Frantzia eta Eskozia
1987 ..... Frantzia
1988 ... Frantzia eta Walles
1989 ..... Frantzia
1990 ..... Eskozia

IZOTZ HOCKEYA

Gasteiz taldea.

Tadek poloniarra fitxatu du Gasteiz izotz-hockey taldeak

IUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

Gasteiz izotz-hockey taldeak fitxatu berri duen bigarren atzerritarra, Rylko Tadek poloniarra, Gasteiza iritsi daiteke gaur bertan. Astean zehar bisatua lortzeko arazo handiak izan ditu, taldeko agintariek Poloniako enbaxadarekin egin dituzten ahaleginak etengabeak izan arren. Toni Vera Gasteiz taldeko lehendakariak atzo baieztatu zigunez, «oso posiblea da ostegunean heltzea» eta larubatean Barcelonaren aurrean jokatu behar duten partiduan nola edo hala egotea da Gasteiz-ek adierazten duen nahia.

Rylko Tadek «pistako edozein tokitan joka dezakeen gizona da» Veraren iritziz. Orain egun batzu Gasteiz-ek talderatu zuen Wronka Adam eta Tadek bera Novitar talde poloniarrean ibili ziren Euskal Herrira etorri baino lehen. «Hortaz, ederki jokatu ahal izango dute, elkarren arteko ezagutza dute eta. Wronka Adam-ek sar ditzakeen goletarako paseak ematerakoan jokalari ibilia da Tadek», argitzen dute taldetik.

Gogoratu behar da Gasteiz izotz-hoceky taldeak bi jokalari txekoslovakiarrarekin harremanak izan dituela azken asteotan Tadek-ekin kontratua itxi baino lehen. Dena den, emaitza garbirik ezean, poloniarrekin sinatu zuten, Toni Verak dioen bezala «txapelketa aurreratuegia bait zegoen gehiago itxoiteko».

BIHARKO ARERIOA BARCELONA

Erabakikorra» da taldearen ustez bihar arratsaldeko 7etan Barcelonaren aurka Gasteizek jokatuko duen partidua. Gasteiztarrek kataluinarrek baino bi puntu gutxiago dute, Boadillarekin Gasteiz-ek jokatu behar duenaz gainera. «Horrexegatik, Tadek-ekin kontatu nahi dugu Barcelonari irabazi ahal izateko, batez ere azken partidutik geneuzkan lesioak behin gainditu gero».

Transeuropa Txuri Urdinek berriz, lidergoari eusteko partidu garrantzitsua jokatuko du gaur gabean Jacan. Donostiarrak talde buru dira mementu honetan, eta Jaca bigarren postuan dago puntu bakar batera. Gaur irabaziz gero, bigarren fasea oso ondo jarriko litzateke donostiarrentzat.

PILOTA

Pilota jolasa ere badela erakutsi eta zaletasuna bultzatzeko ideia

Loiola eta Astigarragan asteazkenero partiduak eta berreneak

Pilotarien iniziatibaz, eta pilota-jokoa jolas bihurtu nahian, entrenamenduak ikusleei zabalduko dizkiete Loiola eta Astigarragako frontoietan, nahi duten guztiak parte hartzera bultzatuz. Bertan entrenatu ohi duten pilotariek haur, heldu eta zaharrek pilota zaletasuna berreskuratzeko helburua eta ilusioa besterik ez dute.

XABIN MAKAZAGA / **DONOSTIA**

Loiolan entrenamendu saioa egin eta Astigarragako sagardotegiren batera joateko ohitura dute han entrenatzen duten pilotariek. Bi gune hauen inguruan sortu da pilota zaletasuna bultzatzea beste helbururik ez duen proiektua. Entrenamenduak jolas bihurtu nahi dituzte Unsain, Arteaga, Salbidea, Lazkano, Aldazabal I eta konpainiak, interesa duen guztiari parte hartzeko gonbitea luzatuz.

Horretarako, lehiaketa kutsua kendu eta hiru txapelketa mota antolatu dituzte: haurrentzakoa, helduentzakoa eta 'barrene' saioa, zaletu guztiei zabaldua. Pilotaren arauak galdu gabe, berrikuntzak egin dituzte, jokoa atseginago bihurtzeko asmoarekin.

Unsain enpresari batekin mintzatu zen, proposamena azaldu eta honen oneritzia jasotzeko asmoarekin. Itxuraz ordea enpresariak ez du ideiaren mamia ulertu, eta eragozpenak jarri ditu jolas hauek egiteko. Unsainek adierazi digunez, «zail gertatu zait ulertaraztea, pilota zaletasuna bultzatzea besterik ez dugula nahi. Enpresaren partiduei ikusleak kenduko dizkiola horrelako zerbaitek... Asteartean enpresari guztiekin bilera egiteko geratu gara».

Pilotaren onerako izango da Loiola eta Astigarragako iniziatiba, eta ez litzateke batere txarra beste herrietara ere horrelako zerbait zabaltzea.



Gazte zein helduengan zaletasuna bultzatu nahi dute pilotariek.

Karteldegia

Gaurko partiduak

MUNGIA. 17.00. Bergara II - Errandonea / Alustiza - Tolosa. Arteaga - Salbidea / Ariznabarreta - Gorostiza.

BERGARA. 16.30. Zabala / Loiarte. Alustiza - Errasti / Arteaga - Martinikorena.

Biharko partiduak

GALARRETA. 16.00. Larra- ñaga - Zestau II / Oyo - Urretabizkaia II. Intxaurburu - Mujika / Gorriz - Agerre. Salaberria - Ezkurdia / Guenbe - Izagirre. Altuna - Orbegozo / M. Lekunberri - Aranburu II.

EUSKAL. 16.00. Arroyo - Zandio / Egialde - Ekiza. Elizalde - Aizpuru / Matxin - A. Lekunberri. Aseginolaza - Barrenetxea / Noain - Etxeberria. Urrutia - Lizaso / Lezea - Iturralde.

DEPORTIVO. 16.30. Agirre - Sanchez / Garma - Aya Zulaika. Iturzaeta - Izagirre / Isusi II - Goldarazena. Ipiña - Otero / Alustiza - Torre. Landea - Otxandio / Lekue - Astola.

MUTRIKU. 16.30. Goñi - Tolosa / Gorostidi - Urretabizkaia. Lazkano - Zubizarreta / Galzakorta - Larrazabal. Mateo / Galardi.

Asteazkenero jokatuko dute, Loiola eta Astigarragako frontoietan txandaka. Haurren taldeak hiru jokalariz osatuko dira, lau t'erdiaren barruan. Buruz buru bi partidu jokatuko dituzte, eta bat banaka, zortzi tantora bakoitza. Nagusien txapelketarako bikoteak osatu dituzte, aldaketarik izatea gerta daitekeen arren. Arteaga-Goikoetxea, Kalonge-Salbidea, Lazkano-Aldazabal I, Pierola-Unsain, Mujika-Soroa eta Txoperena-Oiarzabal lau t'erdian eta frontoi osoan arituko dira, 3. partidua erabakitzeko zozketa eginez. Haurrek binaka jokatzen dutenean aurrelariak eta atzelariak sakea tartekatuko dute, tantoa lortzen duten guztietan.

TENISA

Australiako laugarren ihardunaldian ez zen ezusterik egon

MELBOURNE

Australiako Irekiaren laugarren ihardunaldian ere ez zen ezusterik egon. Zerrenda buru guztiek, Monica Seles eta Katerina Maleeva emakumezkoetan eta Stefan Edberg, Goran Ivanisevic eta Jim Courierrek gizonezkoetan aurrera egin zuten.

Edbergek 6-1, 6-2 eta 6-3ko emaitzaz zailtasun handirik gabe gainditu zuen Eduardo Masso belgiarra. Goran Ivanisevicek ordea, espero baino lana gehiago egin behar izan zuen Ramesh Krishna hindua gainditzeko. Jugoslaviarrak bost set erabili behar izan zituen: 6-4, 3-6, 4-6, 6-1 eta 6-2.

Ikusle serbiar eta Kroazioen artean armailetan egondako borroken ostean urduri agertzen da Ivanisevic, bera ere kroaziarra bait da. Australiako Irekian diharduten gainontzeko jokalariek, Golkoko gerratik Melbournera heltzen diren albeisteengatik urduri daudela azaldu dute.

Monica Seles.

LABURREAN

GASCOIGNEk Maradona ordezkatuko du datorren urtean

Tottenham Hotspurs taldeko Paul Gascoine erdilariak Maradonaren lekua beteko du datorren urtean Napoles taldean Italiako komunikabideek aditzera eman dutenez. Mardonak futbola utzi behar zuela azaldu zuenetik, Napoleseko zuzendariak atzerritar berri baten bila dabiltza. Abertino Bigo entrenatzaileak ez zuen albiseta baieztatu nahi izan, baina atzerritar bat aukeratu behar izanez gero, Gascoine hautatuko zuela adierazi zuen. Tottenhamek ordea ez du Lineker eta Gascoigne saltzeko asmorik ●

GOLKOko krisiak eragin nabaria du kirol munduan

Golkoko gerrak eragin nabaria izan du kirolean. Argelian gaur eta bihar jokatu behar ziren futbol partidu guztiak bertan behera geratu dira, Israeleko taldeek etxetik kanpo jokatu behar dituzte saskibaloi partiduak, Estatu Batuetako kirolariak gerrara deituko ote dituzten zai daude.... Estatu Batuetatik kanpo diharduten kirolari amerikarrek berriz, atentatuak jasango dituzten beldur dira. Munduko Eski Txapelketa jonatzen ari zen talde amerikarra Estatu Batuetarab ueltatu da jadanik ●

BEN JOHNSONek bigarren proba korrituko du bihar

Kanadiarrak zigorraren ondorengo bigarren proba korrituko du gaur goizaldean Los Angeleseko Sports Arena aretoan. Johnsonek oraingo honetan ez duela huts egingo adierazi du. Etxetik kanpo korritzeak, presio gutxiago sortaraziko diola uste du Johnsonek. Guztira, hamar mila ikusle eta berrehun eta berrogehitamar kazetari izango dira kanadiarraren bigarren saio hau ikusten. Ben Johnsonek ezin du gaurkoan ere huts egin ●

OLARRONDO
USURBIL
Tfnoa. 361346 - 365817
OSPA EZAZU
SAN SEBASTIAN EGUNA
GUREKIN
Urdailazpiko iberikoa
Zainzuriak
Langostino erreak
Itsas-sapo errea
Idi txuleta
Postrea eta kafea
3000 pezeta.
ERRETSERBAK BAKARRIK

Ikuskariak

Lau musikariak eszenografiako parte dira. CARLOS VILLAGRAN

Hansel eta Grettel Tanttakaren eskutik

'Hansel eta Grettel bezala' lana otsailaren 2an Donostian antzeztuko dute

Bihar estreinatuko du Tanttaka taldeak bere azken antzezlana Gijon-eko Haurrentzako Antzerki Jaialdian. E. Humperdinck operagileak Grimm anaiek idatziriko ipuina opera moldetara ekarri zuen. Tanttakak opera hau oinarri, erdi kantatua erdi antzeztua den antzezlana burutu du.

LOREA AGIRRE / **DONOSTIA**

E. Humperdinck muskaria Wagnerekin elkarlanean aritu izan zen eta bere operek badute maisu honen eraginik. Herri musika tradizionaletan oinarritu zen opera hau burutzeko. Tanttakakoek eta bereziki obra honen zuzendari eta dramaturgia egile den Garbi Losadak, opera zatirik gustokoenak aukeratu dituzte eta hitzezko pasarteekin elkar lotu.

Garbi Losada zuzendariak adierazi digunez, «historia umoretsua osatu dugu ipuina oinarri dela. Hansel eta Gretel pertsonaiez gain, aita, sorgina eta iratxo bat sartu ditugu lanean. Ipuina erabat formato klasikokoa egin dugu. 'Bazen behin...' gisako ipuin bat da. Aurkezpena, istorioaren bilakaera eta noski bukaera zoriontsua du antzezlanak».

Antzezlanaren azken egunetako ensaioan, musikariak eta jokolariak. CARLOS VILLAGRAN

Tanttaka 1983an sortu zenean, lehen antzezlana kalekoa izan zen eta bigarrena, 'Bai, baina non?', haurrentzako obra izan zen. Geroztik 'Mujer frente al espejo' ('Emakumea ispiluaren aurrean'), 'Ondoloin', 'Agur, Eire... agur', 'De Profundis', 'Flaminio' eta 'Kontuz maite zaitut' antzezlanak kaleratu dituzte. Azken hirurak musikalak izan dira. «Antzezlanak musikatzea oso gustoko dugu eta azken hirurak bide horretaik joan dira. 'Hansel eta Grettel' ere musikala da. Hurrengoa beharbada beste bide batetik joango da, baina ez dut uste» argitu digu Garbi Losadak.

Haurrentzako antzerkia egitea ez zuten helburu, orain lau hilabete inguru proiektu honi heldu ziotenean. «Gure asmoa opera hau egitea zen, ez bereziki haurrentzako izango litzatekeen antzezlan bat paratzea. Ipuin klasiko bat da, haurrentzat idatzia, baina nik uste lan hau ikuslego zabalarentzat dela, ez bakarrik haurrentzat».

Egin dituzten musikal guztietan bezala, azken honetan ere musika zuzenean jotzen duten musikariak eszenografiaren parte dira. Lau dira musikariak: Juan Mari Ruiz (oboe eta adar ingelesa), Jimy Bidaurreta (fagota), Estibaliz Galardi (biolina) eta Ainara Sagarna (pianoa). Musika konponketak Carlos Jimenezek egin ditu.

Eszenografia Victor Rubiok egin du. Fantasiazko baso bat dago taulan. Dekoratu bakarra daba ere mogikorra da, zuhaitzak mogitzen bait doaz. Koldo Losadak eginiko jantzi diseinuei dakgokionez, hauek ere fantasiazkoak dira, pertsonai erreal eta irrealen artean bereizketa egin dela.

BI KANTARIAK JOKOLARI

Hansel-en paperean Angel Pazos, tenorea dago. Grettel pertsonaia Mar Carrero sopranoak egiten du. Bi opera kantari, pertsonaia nagusien paperean beraz. Aitaren eta sorginaren papera Koldo Losadak egiten du (antzeztu eta kantatu) eta iratxoa Itziar Suarez da (antzeztu soilik).

Jokolarien eta kantarien arteko lotura maila berdinduan egotea izan da asmoa. «Noski, kantariak ez dira jokolari eta maila batean hori igartzen da antzezlanean. Baina ez dute jokolariek baino okerrago egiten, desberdin baizik» Losadaren ustez. Zati kantatuak eta hitzezkoak lotuz doaz; ez dago kantaldietarako etenik. Opera klasikoan bezala kantuen hitzak elkarrizketak dira eta istorioaren hariari jarraitzen diote. «Egia esan zailena kantuen hitzak itzultzea izan da, azentua, erritmoa, soinu mota eta beste kontutan izan behar direlako. Ensaioetan kantarien laguntzaz aldatuz joan dira gauzak. Bestalde jatorrizko gure gidoia kasik osotasunean mantendu dugu. Ensaioak baino lehenago nahiko landua genuen eta ez dugu aldaketa handirik egin behar izan». Lehen antzezpena gazteleraz izango bada ere euskarazko bertsioa laster izango dute martxan.

HANSEL-EN PAPERA

Angel Pazos tenoreak egiten du. Grettel berriz, Mar Carrero sopranoak gorpuzten du.

KOORDINATZAILEA
Lorea Agirre
LAGUNTZAILEAK
J.J. Iribar
Imanol Agirre

GARBI LOSADA

Antzerki zuzentzaile bezala lehen lan serioan buru belarri

Garbi Losadak dramaturgia idatzi eta antzezlana zuzendu du, 'Hansel eta Grettel bezala' antzezlanean. Hernaniko antzerki tailerrean gaztetxoekin zuzendari lanetan ibili da, baina berak dioen bezala serioski lehen aldia da jende aurrerako antzezlan bat zuzentzen duela.

Tanttaka taldean hasieratik dago. Donostiako Zorroagan ikasten ari zela antzerkia egiten zuen. Ez du ikasketa berezirik izan. «Karrera ikasten ari nintzela eta beste hainbeste urte antzerki eskola batetara sartzeko pazientziarik ez nuen. Nik nahi nuena antzeztea zen».

Tanttaka taldeak, azken antzezlan honetaz gain 'Flaminio' eta 'Kontuz, maite zaitut' ditu kartelean. Azken bietan antzeztu eta kantatu egiten du. Hirugarrenean zuzendu. Hala ere antzerkiatik bizitzea zaila dela badaki eta denborarik ere ez du beste ezertan aritzeko.

Zuzendariak funtzio desberdinak dituela dio. Kasu honetan dramaturgia berak idatzi duenez, bere fanatasia gauzatzea da helburua. Jokolariek fantasi horretan eurena sartzea. «Antzezlana ondo ateratzen denean taldearen meritoa izaten da normalean. Baina gaizki ateratzen bada errua zuzendariarena da».

Bere lagun batek esan omen zion zuzendariak duen funtzio bakarra jokolariak taulan elkarrekin txokeik ez egitea da.



Angel Amigo: «Produzitu izan ditutan filme guztiak interesatu izan zaizkit»

'Segoviako ihesa' 1981
'La cronica del descubrimiento del viejo mundo' 1990
'Invierno en Lisboa' 1990

LOREA AGIRRE

EGUNKARIA.— Zertan datza zinema produktore baten lana?

ANGEL AMIGO.— Produzitzea da proiektuak gauzatzea. Sarritan errealitate berak ideia alda erazten dute.

E.— Inoiz gertatu zaizu ezinezko zirudiena lortzea?

A.A.— Egin ditudan filme guztiak hasi baino lehenago ziruditen ezinezkoak. Nahiko lenbide zaila da, baina era berean oso arrazionala da.

E.— Norainoko boterea du produktore batek filme baten errodaian?

A.A.— Teorikoki erabateko boterea du produktoreak filme batetan. Baina era berean, produktoreak ez du dena erabakitzen, berari ere zuzendariak erabakitzen dizkio gauzak. Zuzendaria produktoreak baldintzatzen du eta produktorea merkatu legeek.

E.— Zer nolako harremanak izaten dituzu filme zuzendariekin?

A.A.— Batzuetan oso gatazkatsuak dira eta bestetan oso jatorrak. Orokorrean tensiozkoak izaten dira, batzuetan interesak kontrajarriak izaten bait dira. Arazo berdinaren aurrean batek eta besteak hartzen ditugun jarrerak kontrakoak izaten dira. Orokorrean oso arraroa da arazorik gabeko pelikula bat. Baina normala da egunero erabaki mordo bat hartu behar bait dira. Eta batzuetan zuzendariaren gauzak onartzen dituzu eta bestetan berak zureak.

E.— Nola ikusten duzu egun zinema Euskal Herrian?

A.A.— Euskal zinemaz hitzegiten denean, zerbait homogeneoa balitz bezala hitzegiten da eta nik uste dut ez dela horrela. Asko indibidualizatu beharko litzateke. Nik uste dut filme baten jatorria produkzio lekuarena dela, edozein moduko filmea izanik ere.

E.— Ze zinema mota gustatzen zaizu?

A.A.— Denetarik. Entretenigarriak, dokumentalak, pentsaraztera bultzatzen zaituzten filmeak. Erizpide zabaleko naiz.

'Santa Kruz apaiza' filmearekin karlistadei fikziozko errepasoa ematen die Tudurik

LOREA AGIRRE / **DONOSTIA**

Juan Azurmendi, herri txiki batetako sakristaua, Ameriketara joatea du asmoa gauza berrien bila. Parrokiko diruak lapurtuta, Pasaiko portura doa mundu berrira eramango dion itsasuntzia hartzeko. Baina garaiak nahastuak dabiltza, gerra zibila, lehen gerrate karlista lehertu da eta bidai atzeratu egingo da. Santa Cruz apaizaren gerrilarien ezinbetseko lekuko bilakatzen da. Bitartean amodiozko istorio bat sortzen da Juan Azurmendi eta ardo-saltzaile baten artean.

Iazko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen Jose Maria Tuduriren filme hau. Hala ere orain arte ez da zinema komertzialetan ikusi. Filme hau egiteko ideia, orain hamar bat urte baino gehiagoko da Tudurik adierazi duenez. 1979an fikziozko gidoi bat idatzi zuen Santa Cruz apaizaren inguruan, baian proiektua nahasten joan zen eta bertan behera utzi behar izan zuen.

«Santa Kruz nire haurtzaroko oroimenean dago. 'Apaiz odolzalea'ren istorioak nire osaba bati entzunak dizkiot, hau noski liberalen aldetik, familia errepublikarra bait zen. Nire lan zinematografikoa egiteko Gipuzkoako hamaika baserritik pasa izan naiz eta gehienetan kontatu dizkidate Ernialdeko apaizaren inguru kontuak» esan izan du Tudurik.

Tudurik filme honen zuzenketan istoriarekiko fidela izan da, baina fikziozko istori bat kontatzen du. «Pertsonaiaren izakeraren oinarrizko ezaugarriak mantendu ditut, baina bestaldetik fikzioa da nagusi. Ez dut dokumental historiko bat egin nahi izan».

Filme honen gidoia Jose Maria Tuduri berak, Mitxel Gaztanbide eta Jose Vitoriak idatzi dute. Zauli Films produktoraren pena errodatutako filme honen produktorea Angel Amigo izan da.

Santa Kruz apaizaren papera, egun Karraka anzterki taldeko zuzendari den Pedro Bareak bete du. Euskal Herrian egin diren filme ugarietan parte hartu izan du. Juan Azurmendiren pertsonaia Carlos Zabalak gorpuztu du eta ardo-saltzailearena Aitzpea Goenagak.

'Santa Kruz apaiza' iazko ekaina eta uztaila bitartean errodatu zen Iturrioz, Bidania, Salinas, Orio eta Artikutzan. Ehun eta hamar milioi pezetako (bost milioi t'erdi libera inguru) aurrekontua izan du. Angel Amigo produktorearen hitzetan, «errekurtso ekonomiko, tekniko eta artistikoak azken punturaino eraman dira. Produkzio apala du Europako beste filem batzuekin gonbaratzen badugu, baina konplexua ere izan da, kontutan hartzen badugu orain hamar urte filme hau aurrera ateratzeko aktoretik, ez teknikorik ez zela».

ALBISTEGIA

■ **SAMBHU MIMO** Iruñako antzerki taldeak bihar bertan azken antzezlana estreinatuko du Iruñeko Escuela de Teatro Navarra-ko antzokian. 'Txaskido' izeneko antzezlanean hiru dira jokolariak, ohizkoa baino bat gehiago talde honetan. Otsailaren 1ean Donostiako Antzerki Ferian aurkeztuko dute. Zirkoa du gaitzat antzezlan honek. Hori akrobata, pierrot bat, Charli Ribel eta Charles Chaplin zirkolariak kalera boteak dira. Hauen ordez zirkoko jabeak kaleko jende marginala kontratatzen du: droga trafikante bat, bi monja, jubilatu bat eta beste. Azkenean poliziarekin izugarrizko iskanbila sortzen da eta berriro ere lehengo langileak datoz zirkora. Hamabost pertsonai antzezten dituzte orotara, panpinak ere badira. Zuzendaria Barcelonako Antzerki Institutoko mimo irakasle den Andrzej Leparski izan da. Lan hau ere mimoaren bidetik doa, kasik ez da hitzik egiten antzezlanean.

■ **KILI KOLO** taldeak ere antzezlan berria du. Gaur bertan Eibarko Unibertsitate Laboralean arratsaldeko zortzi t'erdietan izango da ikusgai. '013 varios: Informe Prisión' izeneko antzezlan berri hanek Marques de Bradomin antzerkigile gazteen lehiaketa irabazi zuen 1987an. Kili Kolok hamar urte bete berri dituela eta antzezlan honekin ospatu nahi izan dute. Dokumentu deliktibo bat da anztezlan hau. Rafael Gonzalen eta Paco Sanguino dira egileak, Alicanteko Jacara antzerki taldeko partaideak. Antzezlan honetan kartzelako goi agintariek 'urteko txosten kriminologikoa' deiturikoa kaleratzen da. Jokolariak beren kabuz antzezlan hau egiteko aurkeztu diren preso batzu dira. Askatasun baldintzatuan daude preso hauek eta kartzelako arriskutsuenak bezala jotzen dira.

■ **TANTTAKAK** maiatza inguruan beste antzezlan bat aurkeztuko digu. Hau ere musikala. Maiatza Dantzan jardunaldietarako Mikel Laboaren musikaren adaptazio bat eginez, len parateatral bat muntatuko dute.

■ **PRODUCCIONES ACCION** berriro ere. Jada bigarren aldiz atzeratzen dute 'La espada del Pendragon' antzezlana datorren asteartean estreinatuko dela ziurtatu digute, haurreko bietan huts egin badute ere. Arturo erregearen inguruko istorioetan oinarritzen da lan hau.

■ **ELS JOGLARS** laster Barakaldo Antzokian izango dira. Kartelean duten 'Columbi Lapsus' lan iskanbilatsua aurkeztuko dute. Aita Santuaren boterearen eta politikako mafiaren inguruko anztezlan honetan, molde umoretsu eta ironikoetan agertzen zaigu Aita Santuaren irudia.

GOMENDIOZ

Ez mogitu, hil zaitez eta berpiztu

IMANOL AGIRRE

Aurten ekialdeko zinema kasik lehen aldikoz ikusteko parada izan da Zinemaldi askotan. Eta honen berritasuna gorapaitua izan da zinema zale guztien aldetik. Estreinatu berri dugu ekialdeko filme bat, onenetariko kontsideratu izan dena. 'Quieto, muere, resucita.' izenpean Vitali Kanevski-k zuzendua da.

1947an, stalinismoa indarrean zegoen garaian, Soutchan hiri txikia zona okupatu bihurtzen da. Valerka eta Galia hamabi urtetako bi gaztetxo dira. Maitasunezko istorio bat aurrera aterako dute, gerrako preso japoniar eta sobietar komunak inguruan direla. Barre eta jolasekin egiten diote aurre giztasuna galdu duen egoerari. Nagusiak baino zoriontsuago eta indartsuago dira etorkizunean itxaropena galdu e dutelako. Benetan gomendagarri da filme honek kontatzen duena ikustea. Filme gogorra eta aldi berean xamurra da. Bestelako zinema datorkigu ekialdetik.

Maskarada
TELF.: (94)
446 77 81-412 05 09

HIKA
ANTZERKIA
ETA OHEA EGIN GABE
TXAPLIN TROPELA
TELF.: (943) 43 00 10

EUSKARA IKASTAROAK DONOSTIAN: ALTZA euskaltegia. Txirrita Bertsol. 23. 39 43 75. MONPAS euskaltegia. San Franzisko 61. (Zemoria 5). 27 27 11. RIKARDO ARREGI. Sanchez Toca 1-1. 46 46 55. ERRENTERIAN: ORTZADAR euskaltegia. Beheko kalea 11. 52 66 57

IRAGARKI MERKEAK
TEL.: (943) 42 69 96

37x8,5mm.
EGUN BAT: 420pta./21l.
ASTEBETE: 2.080pta./104l.
BI ASTE: 3.600pta./180l.
HILABETE: 5.500pta./275l.

37x17mm.
EGUN BAT: 840pta./42l.
ASTEBETE: 4.160pta./208l.
BI ASTE: 7.200pta./360l.
HILABETE: 10.100pta./505l.

37x34mm.
EGUN BAT: 1.680pta./84l.
ASTEBETE: 8.320pta./416l.
BI ASTE: 14.400pta./720l.
HILABETE: 20.200pta./1.010l.

37x34ko 2MODULO
EGUN BAT: 3.360pta./168l.
ASTEBETE: 16.640pta./8.32l.
BI ASTE: 28.800pta./1.440l.
HILABETE: 40.400pta./2.200l.

37x34ko 4MODULO
EGUN BAT: 6.720pta./336l.
ASTEBETE: 33.280pt./1.664l.
BI ASTE: 57.600pta./2.880l.
HILABETE: 80.800pta./4.040l.

Sambhu antzerki taldea azken ensaioetan buru belarri dabil. JOXE

'Sambhu': «Gorputzaren lengoaia hitzena baino indartsuagoa da»

Mimo talde honek Iruñean aurkeztuko du 'Txaskido' bere obra

'Sambhu Teatro' taldeak Iruñean antzestuko du larunbata eta igandean 'Txaskido' ('klaskada') bere azken obra, Nafarroako Antzerki Eskolan.

A.BARANDIARAN / **IRUÑEA**

Taldea orain dela urte bat osatu zen, Juan Antonio San Jose 'Sambhu' eta Azuzena Zabaletari Carlos Salaberri gehitu zitzaienean. Orduan hasi zen mamitzen orain aurkeztu duten obra. Taldekideen esanetan, «hasieran zerbait indefinidoa zen, helburu zehatz gabekoa. Saioak aurrera joan ahala, ideia bat gorpuzten zioan». Ideia simple bat komplexua bihurtu zitzaien, eta zuzentzaile bat aurkitu beharra somatu zuten. «Bartzelonatik Andrzej Leparski ezagutzen genuen, Mimo eta Pantomima Eskolaren zuzendaria, eta gustatu zitzaion gure proiektua. Prozesu luzea izan da, baina oso gurea da, denok asko jarri dugu obra honetan».

Zuzendaria eta taldearen arteko lana izan dela diote, baina nabari zaie euren lana dutela. Zuzentzaileen lana zaldi bat gidatzea bezalakoa izan da, koreografia eta irudiak ideiari lotuz.

'Txaskidon' errealitatea eta idealismoa nahasten dira, horretarako asko lagundu du mimoaren mintzairak, gorputzaren mintzaira, alegia.

Kili Kolo antzerki taldeak hamar urte beteko ditu antzezlan berri batekin

EIBAR

Gaur estreinatuko du antzezlan berria Eibarko Kili Kolo taldeak Eibarren. Unibertsitate Laboraleko aretoan arratsaldeko zortzi t'erdietan, '013 Varios: Informe prision' antzezlana ikusgai izango da.

Antzerki moldetara ekarri duten dokumentu deliktibo bat dela adierazten dute taldeko partaideek. Kartzela batetako preso arriskutsuenak bide zuzenera ekartzeko erabiltzen diren indarrezko jarrerak aztertzen dira lan honekin.

Antzezlan honek, 'Marques de Bradomin' antzezlanen saria jaso zuen 1987an. Rafael Gonzalez eta Paco Sanguino antzerkiaren egileak, Alicanteko Jacara antzerki taldeko kideak dira. Bi jokolari hauek 1980an kartzela batean egin zuten antzezlan baten ondorioz otu zitzaien lan hau idaztea.

Kili Kolo taldeak orain hamar urte hasi zenetik, antzerki teknika desberdinak lantzea eta kaleratzea izan du helburu. Mimoa, txotxongiloak, itzalak, kale antzerkia, testu inprobisatuak landu izan dute.

Bekarioen hirugarren musika kontzertuak gaur hasiko dira Bilbon

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Gaur hasiko dira Bilbon Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako bekarioen hirugarren kontzertuak, Campos Elíseos antzokian hain zuzen ere. Bi izango dira bederatzi gazte hauek eskainiko dituzten saioak. Bata, gaur arratsaldez izango da eta beste bat bihar, biak ere arratsaldeko zortziretatik aurrera. Kontzertu hauen helburua, bekadunak orainarte betetako lana Bizkaiko gizarteari eskeintzea litzateke.

Hildo honetan, azpimarragarria da klarinete laukote batek joko duen Imanol Bageneta bekadunaren Clarimaforo II musikalanaren mundu mailako estrenaldi hau. Kontzertu hauek oso garrantzitsuak dira bekario hauentzat Aldundiko Kultura diputatua den Tomas Uribetxebarria atzo adierazi egin zuenez. «Bizkaiko gizartearen aurrean aurkezteko aukera izugarria dute neska-mutil hauek. Kontserbatorian bertan hasitako bide baten amaiera lirateke III bekarioen kontzertu hauek».

Itziar Ugeda, Imanol Bageneta, Ana Isabel Galan, Ines Gomez, Carlos Alvaro Seco, Jose Garate, Miguel Ituarte eta María Victoria Aja dira Aldunditik diru laguntzak jaso dituztenak.

KEPA

LABURREAN

SANTAMARIAk jaso du 'Manuel Lekuona Saria'

Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrak 1991ko 'Manuel Lekuona Saria' Karlos Santamariari ematea deliberatu zuen Arabako Foru Aldundian eginiko azken bileran, euskal kulturaren alde burutu duen lan gaitzarengatik (opera omnia). Santamariak eginiko lana ugaria eta zabala da. Besteak beste liburu hauen egile da: 'Jacques Maritain y la polemica del bien comun', 'La Igelsia hace politica' eta 'El desarme nuclear'. Zeruko Argia, Jakin, Anaitasuna eta beste zenbait prentsa argitalpenetan kolaboratu izan du ●

ROSTROPOVITX gaur Victoria Eugenia antzokian

Mstislav Rostropovitx errusiar biloncello jole ezagunak Donostiako Victorio Eugenia antzokian izango da gaur, arratsaldeko zazpi t'erdietan. Orkestra Lituaniar-Alemaniarrarekin joko du. Hilaren 21ean, astelehenean, Bilbokò Arriagan izango da. Cultura Musical elkarteak antolatutako kontzertu honek segidarik izango du, Krystian Zinerman piano joleak kontzertu bat eskeiniko bait du urtarrilaren 27an ●

RUDI BARNET hogeitabost zinema espezialistekin bilduko da

Gaur bilduko da Donostikoa Zinemaldiko zuzendari berria, Rudi Barnet, Europako hogeitabost zinema espezialistekin, berak esan bezela, «gaisoturik topatu duen zinemaldi hau aurrera ateratzeko». 39. Zinemaldia diseinatzeko zuzendari flandiarrak telebista ezberdinetako ordezkariak, zinema munduko jendea, dekoratzaileak, teknikoak eta beste konbokatu ditu bilera honetara. ●

JOHN CAGE musikoa Barcelonan dago

Musika instrumentala, balleta, opera eta plastika sormena, 'happening' deiturikoetan biltzen zituen John Cagek orain hogeitamar bat urte. Orain ildo berberari jarraikiz, Barcelonan lan musikal eta plastikoen erakusketa bana paratu ditu. Espai Poblenou aretoan paperean eginiko lan plastikoak ikusgai daude. ●

JAIAK

• AZPEITIA
San Sebastian jaiak. Rock jaialdia 'Baldin Bada' eta 'Su ta Gar' taldeekin frontoi txikian 23.00etan.

• HENDAIA
Bixintxo jaiak. 19.30etan jaiei hasiera emango zaie Errepublika plazan eta 19.00etan Mus zeingehiagokaren finala Beltzenia trinketean.

• IURRETA
San Sebastian jaiak Bakixan. 20.00etan V. Makailau Txapelketa eta 23.00etan Igel Txapelketa.

• BUÑUEL
San Anton jaiak. 19.30etan sua, suzko-zezena eta suziriak egongo dira Calasanz San Jose enparantzan, La Alkumunia musika bandak alaiturik.

ZINEMA-BIDEO

• ARRASATE
«Paperhouse». Amaia zineman 22.30etan.

• BILBO
«Viva Villa!». Zuzendaria: Jack Conway eta Howard Hawks. Arte Ederretako museoan 17.00etan.

• DONOSTIA
«Loca academia de policia IV». Okendo kultur etxean 18.00etan. **«Armados y peligrosos».** Loiolako kultur etxean 18.00etan.

• GASTEIZ
«Golfus de guerra». Luis de ajuria aretoan 20.00etan.

• GERNIKA
«Rita, Sue y también Bob». Social zineman 20.00eta.

• GETXO
«Loca academia de policia IV». Erromoko kultur etxean 18.00etan. **«Superman IV».** Andra Mariko Aretoan 18.00etan.

• LEKEITIO
«¿Quien engañó a Roger Rabit?» Ikusgarri aretoan 19.30etan.

• ONDARROA
«Mi dulce pueblecito». Zuzendaria: Jiri Menzel. Bide Onera zineman 22.15etan. Zine Forum-ak antolatu du.

• ZUMARRAGA
«Amor loco». Zelai Aristi zineman 22.15.

ANTZERKIA

• BARAKALDO
Goliardos S.L. taldeak 'Ella' eta 'El amor de ahora' lanak antzeztuko ditu. Barakaldo antzokian.

• BILBO
La Cuadra taldea. Sevillako taldeko honek Gabriel García Márquez-en «Crónica de una muerte anunciada» obra antzeztuko dute, Arriaga antzokian 20.00etan.

• DONOSTIA
Maskarada taldeak 'Marxkarada' antzeztuko du. Antzoki Zaharrean 20.00etan.
Algarabia taldeak 'Anoche, mientras dormia...' lana antzeztuko dute. Altzako kultur etxean 22.00etan.

• ELORRIO
III. Txontxongilo jaialdia. Gorakada taldeak 'Zikoa' antzeztuko du. Arriola kultur aretoan 16.30etan. **L'estaquirot taldeak** 'Biotic' antzeztuko du. Arriolan kultur aretoan 20.00etan.

• ERRENTERIA
Ur taldeak Helena Pimentaren 'Antiheroes' antzeztuko du. Niessen aretoan 20.00etan.

• GASTEIZ
Gomnbryowerich fundazioak 'Imagina teatro' lana antzeztuko du. Beñat Etxepare antzokian 20.00etan.
Haur antzerkia Sansomendi aretoan 18.00etan.

• HERNANI
Goizueta herri antzerkiak 'Goizuetan ba zen' antzeztuko du. Biteri kultur etxean 20.00etan.

• MUNGIA
Cobaya taldea 'Trikitrak' antzezlanarekin. Kiroldegian 17.00etan.

• PASAIA
Topo taldeak 'El camerino' antzeztuko du. S. Pedro Udal aretoan 19.30etan.

• TOLOSA
Bederen 1 taldeak 'Jacques eta nagusia' lana antzeztuko du. Iparragirre antzokian 11.00etan, eskoletako haurrentzat eta 22.30etan, denentzat.

MUSIKA

• AZPEITIA
Su Ta Gar, Baldin Bada. Frontoi txikian 23.00etan.

• BERGARA
Hertzainaken disko bikoitzaren grabapena zuzenean. Txibisto dantzalekuan 23.00etan.

• BIANA
Globel Warning. Atico 7 tabernan.

• BILBO
Ikas-ama abesbatza. Bidebarrietako liburutegian.
Guarneri laukoaren kontzertua. Elkarte Filarmonikoan 19.30etan.
Sedientos. Oh Bilbao! aretoan 21.00etan.

KRITIKA

LUKAS DORRONSORO

Berriro hasten

ANTXIETA TALDEA

Tokia: Azpeitiko antzerki topaketetan. **Obra:** 'Komedi zaharrak'.

Gainezka bete zuten azpeitiarrek «Zelaitxo» antzokia, etxekoak ikusteko.

Antzerki on bat ateratzeko ezin inori opa aurre baldintza hoberik: antzerki taldea urduri bezain pozik eszenatokian, daukaten guztia emateko gertu, eta, publiko inkondizionala, berea duen talde hau, haseratik bukaeraraino aupatzeko irrikitan. Giro itsaskor honetan gozoro murgildurik geundela, anfiteatrotik behe solairuko lehen lerroetako une jakin batera zuzendurik zegoen foko mobila, astiro pizten joan zen, tartean, zain zegoen antzeslaria, agerkari majiko baten gisan, ikuslegoari aurkeztu zitzaion.

Antxieta taldeak konplikaziorik gabeko lana aukeratu du zuzendari berria estreinatzeko. Gerra aurreko antzerkiaren mostratxo bat eskaini digu «komedi zaharrak» izenburupean: Joxe Artolaren «Motxa erriyan (monologoa), Luzear-en «Neskamearen marmarrak» (monologoa), T. Alzagaren «Txingurri» (monologoa) eta A.M. Labaienen «Ostegun gizena» (haur antzerkia). Aukeraketa honetan Antxieta taldeak atzera pauso bat eman duela deritzot; aurreko urteetan eskaini izan dizkiguten Imanol Eliasen antzerkiek, Imanol beraren zuzendaritzapean hain zuzen ere, ahalegin sendoagoa eskatu diote taldeari. Hala ere, asmatu egin dutela uste dut, horrela jokatuz; zuzendaria eta taldea elkarrekin ondo konpenetratuak ez dauden bitartean, lan zail bati heltzea porrotaren atarian euren buruak jartzea bait litzateke, eta benetan ondorio kaltegarria lekarkieke. Hobe da lehenbizi ariketa errezak zehazki landuz garaile irtetzea, eta hori egin dute. Izango du Inaxio Tolosak egokierarik lan zailetan bere ahalmena erakusteko.

Artolaren monologoak haserre utzi ginduen, garaiz heldu ginen arren, anfiteatroko aulkietan eseri behar izan genuenoi. Behe solairuko jende artean ihardun zelarik, ez bait genduen ikusi ahal izan antzeslaria. Zuzendari berriak ez zuen horretan asmatu; izan ere ez da zilegi berrehun eta gehiago ikusleri ikuskizun osoaren laurden bat lapurtzea (barka espresioa). Nolanahi ere, Pello Otaegiren saioa, komiko lanean beti erakutsi izan digun, iaiotasunez jantzia irten bide zen, txaloek adierazi zigutenez. Luzearena, motel samarra; monologoaren arruntasunarengatik agian, Pilarrek ongi eman bait zuen bere neurria. Joxe Aranburuk, ziur eta bizi, inoren inbidiarik gabe jokatuz, aise atera zizkion bereak T. Altzagarenari. Azkenik, borobila irten zitzaion Antxietari osteguna gizena, komediatxoaren akotazioak zehazki jarraituz.

Ikuskizun entretenigarria eskaini zigun, orohar, Antxieta Taldeak, tarteen betegarritarako txaranga saioak beste aipagarri berezirik gabe. Aukeran motzegia, ordubete baino lehen eman bait zizkigun ematekoak.

BLANCA Oraa Moyua-ren 'Heridas' izeneko erakusketa Mungiako Torrebillela kultur etxean dago eta otsailaren 15a arte bertan egongo da ikusgai; astegunetan 18.00etatik 20.30etara, larunbatetan 11.00etatik 13etara eta 17.00etatik 20.00etara eta, Igandetan 12.00etatik 14.00etara bitartean.

• DONOSTIA
Rostropovich eta Lituani-Alemaniako Orkestra. Victoria Eugenia antzokian 19.30etan. 'Cultura Musical' taldeak antolatua.
El Galés. Bukowski tabernan 21.30etan.

• GASTEIZ
Euskadiko Orkestra. Jesus Guridi musika eskolan 20.00etan.

• LAKUNTZA
Ian Dury and the Blockhead, Wilko Johonson. Hilargi dantzalekuan 23.30etan.

• LAUDIO
Platero y Tú. Gaztetxean 22.00etan.

• ONDARRU
Zein Ere, Trukes, Beltzez. Gaztetxean 22.30etan. Iparraldeko taldeak.

• SARTAGUDA
Piperrak, Cizaña. Anmama tabernan 23.30etan.

• ZESTOA
Kanka taldea. Frontoian 23.00etan.

IHARDUNALDIAK

• BILBO
'Euskal langile mugimendua eta Golkoko Gerra'-ri buruzko mahai ingurua AISSeko Hitzaldi Aretoan -Gran Vía 30an-, 17.00etan. Hizlaria: Joselu Cereceda. LABek antolatua.

• D. LOHITZUNE
Informazio bilkura bat heze diren guneetaz, ihiztoketaz. 'Barthes de la Nivelle' aipatuko dituzte. Animazio antenan, 45, Thiers etorbidean, 20.30etan. Saiak, Donibane Euskaldun, Euskal Herriko Senpaso eta Dosera elkarteak antolatua.

• DONOSTIA
Jeneroaren Teoria eta metodologia izeneko ikastaroa. Emakumeari Buruzko Ikerketarako Mintegiak antolatuta. Izen emate epea urtarrilak 20. ☎ 276344.
Idatz Eremuari buruzko ikastaroa. Irakasle Elkarteak antolatuta otsailaren 15ean hasiko da. ☎ 455100.
'Behe Paleolitikoa: herrialde honetako lehen biztanleak'. Jesus Altunaren hitzaldia. Kutxako kultur aretoan 17.00etan.

• DURANGO
Bertsolaritzari buruzko ikastaroa. Ostegunero 18.00etatik aurrera. Informazio gehiago lortzeko: ☎ 6811257.

• ELGOIBAR
Xabier Amurizaren bertso ikastaroa. Izarra elkartean hurrengo aste osoan. Informazio gehiago lortzeko: ☎ 741626.

• GASTEIZ
Drogomenpekotasunari buruzko hitzaldia. Hizlariak: Jesus Ocasar (Apidekoa), Begoña Moraza (Arabako Foru Aldundikoa), Manu Audikana (Eusko Jaurlaritza). Dato kaleko Lankide Aurrezki Kutxako aretoan 19.30etan. Askagintzak antolatua.

• IRUÑEA
Victor Eusaren lanari buruzko hitzaldia. Partaideak: Jose Javier Uranga (CAN), Jose Maria Pérez (Nafar ateneokoa), Fernando Tabuenca eta Alberto Ustarroz (Arkitektuak). Miserikordiako aretoan 19.30etan.

• LEGUTIO
'Eskura ezazu euskara' Arabako Foru Aldundiak eta Ikastolen Elkarteak antolaturiko kanpaina dela eta, 'Herri liburutegietako euskara sailaren susperkuntza' bultzatuko dute liburutegian.

• ZESTOA
Azkoitiko gaztetxekoekin solasaldia. Gaztetxearen historia azalduko dute. Gaztetxean 20.30etan.

ERAKUSKETAK

• ARRASATE
Monterron kultur etxea. 1990ko Santamasak Argazki Lehiaketako partehartzaileen lanak. Urtarrilak 20 arte.

• ARRIGORRIAGA
Kultur etxea. José Treceño-ren argazkiak besteak beste. Urtarrilak 31 arte.

• AZPEITIA
Antxieta etxea. Azpeitiko argazki lehiaketako lanak. Urtarrilak 26 arte.

• BAIONA
Roméro galeria. Irkus Robles-Arangiz Bernaolaren erakusketa. Urtarrilak 26 arte.

• BALMASEDA
Udal Ateneoa. Agustin Sagasti Jalon argazkilariaren lanak. Urtarrilak 24 arte.

• BARAÑAIN
Udaletxeko erakusgelan. Jose Manuel Barrigaren eskulturak. Urtarrilak 27 arte.

• BASAURI
Udal kultur etxea. Dicky Rekalderen pinturak. Urtarrilak 23 arte.

• BERMEO
Enrike Zubia bermeotar artelariaren olio lanak Santamañe kalean dagoen Aurrezki Kutxaren erakustokian ikusgai. Urtarrilak 22 arte.

• BERRIOZAR
Kultur Etxea. Jose Ulibarrenaren erakusketa etnografikoa. Azken eguna.

• BILBO
Nikolas arte aretoa. María José Cedón. Azken eguna.
La fundición. Jose María Peña. Urtarrilak 31 arte.
Atxuri arte aretoa. Adela Barandika. Azken eguna.
Arte galeria. Roberto Martín. Urtarrilak 31 arte.
Tabira galeria. Yoichi Tanaberen olioak. Otsailak 1 arte.
Torres galeria. Momoitio. Otsailak 5 arte.
Euskal museoa. Bizkaiko Foru Aldundiak antolaturiko I. Lehiaketan saritutako komiki, kartel eta hainbat maketa. Urtarrilak 30 arte.
Bay Sala galeria. Gonzalo Román-en lanak. Urtarrilak 28 arte.
Aritza galeria. Lan grafikoa. Txillida, Elexpuru, Guerrero,... Otsailak 13 arte.
Etxeba galeria. Telvi de Miguel. Urtarrilak 23 arte.
Ederti galeria. Mari Puri Herrero-ren pinturak. Otsailak 16 arte.
Arte Ederretako Museoa. Jose Gutiérrez Solana-ren lanak. Otsailak 28 arte. **Manuel María Smith de Ibarra** arkitektoaren lanak. Otsailak 28 arte.
Arteta galeria. Barjola, Toral, Naranjo, Alcorlo, Palencia, Ubeda eta abarren olio, akuarela, guasch,... Urtarrila osoan.
Iris galeria. Erakusketa kolektiboa. Urtarrila 31 arte.

KARTELDEGIA

ARABA

• GASTEIZ

Azul 1. «Rejas de cristal». Zuz: Marco Risi / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Azul 2. «Yu Dou». Zuz: Zhang Yimou / 17.30 - 20.00 - 22.30. «Saint Tropez video». Zuz: Jean Rougern / 00.30. 18 gorak.
Gasteiz. «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall / 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Samaniego 1. «La historia interminable II» / 17.15. «Malas influencias» / 19.45 - 22.00.
Samaniego 2. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker. Akt: Patrick Swyze, Demi Moore / 17.15. 13 gorak. «El señor de las moscas» / 19.45 - 22.00.
Samaniego 3. «Rocky V». Zuz: John G. Avildsen. Akt: Sylvester Stallone / 17.15 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Samaniego 4. «Santa Cruz, el cura guerrillero» / 17.15 - 19.45 - 22.00.
Mikeldi. «Caligula». Zuz: Tinto Brass. Akt: Peter O£toole, Lalcolm McDowell / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldi. «Linea mortal» / 17.30 - 20.15 - 22.30.
Mikeldi. «El reencuentro del amigo» / 17.30 - 20.15 - 22.30.
Mikeldi. «Harware, programado para matar». Zuz: Richard Stanley / 17.30 - 20.15 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldi. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus. Akt: Macaulay Culkin / 17.30 - 20.15 - 22.30.
Mikeldi. «Escúchame». Zuz: Peter Fleischamann / 17.30 - 20.15 - 22.30. 13 gorak.

BIZKAIA

• BILBO

Astoria. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus. Akt: Macaulay Culkin, Joe Pesci / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 1. «Muñeco diabólico II». Zuz: John Lafia / 11.00 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Avenida 2. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus. Akt: Macaulay Culkin, Joe Pesci / 11.00 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 3. «Las edades de Lulu». Zuz: Bigas Luna. Akt: Francesca Neri, Oscar Ladoir / 11.00 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Avenida 4. «El cielo protector». Zuz: Bernardo Bertolucci. Akt: Debra Winger, John Malkovich / 11.00 - 17.00 - 19.30 - 22.00.
Avenida 5. «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall / 11.00 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 6. «Hardware, programado para matar». Zuz: Richard Stanley / 11.00 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Ayala. «Tortugas Ninja». Zuz: Steve Barron. Akt: Judith Hoag, Elias Koteas / 16.30. «Rejas de cristal». Zuz: Marco Risi / 18.15 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Capitol. «Linea mortal» / 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
Coliseo Albia. Ez dago emankizunik.
Consulado. «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Campos Eliseos. Bilboko Orkestra Sinfonikoa 20.00etan.
Gran Vía. «Impulso sensual». Akt: James Woods, Sean Young / 18.00 - 20.00 - 22.00. 18 gorak.
Ideal 1. «Las edades de Lulu». Zuz: Bigas Luna. Akt: Francesca Neri, Oscar Ladoire / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Ideal 2. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00.
Ideal 3. «Hardware, Programado para matar». Zuz: Richard Stanley / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Ideal 4. «Regreso al futuro III». Zuz: Robert Zemeckis / 17.30 - 20.00 - 22.30 - 01.00.
Ideal 5. «Santa Cruz, el cura guerrillero». Zuz: J. Mª Tuduri / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00. 13 gorak.
Ideal 6. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker / 17.30 - 20.00 - 22.30 - 01.00. 13 gorak.
Ideal 7. «Pájaros de fuego» / 17.30 - 20.00 - 22.30 - 01.00. 13 gorak.
Ideal 8. «Pretty Woman». Zuz: Garry Marshall. Akt: Richard Gere, Julia Roberts / 17.30 - 20.00 - 22.30 - 01.00. 13 gorak.
Izaro. Itxita.
Mikeldi. «El cielo protector». Zuz: Bernardo Bertolucci / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Mikeldi. «37 horas desesperadas». Zuz: Michael Cimino / 17.15 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldi. «Caligula». / Zuz: Tinto Brass / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 1. «Presunto inocente». Zuz: Alan J. Pakula. Akt: Harrison Ford, Greta Scaconi / 11.00 - 17.15 - 19.45 - 22.15. 13 gorak.
Multi 2. «Escúchame» / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Multi 3. «El novato». / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 4. «La escalera de Jacob». Zuz: Adrian Lyne / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Multi 5. «Nikita» / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 6. «Darkman». Zuz: Sam Raimi / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Multi 7. «Rocky V. Zuz: John G. Avildsen. Akt: Sylvester Stallone / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 8. «Pretty Woman». Zuz: Jerry Zucker. Akt: Richard Gere, Julia Roberts / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Vistarama. «Batman» / 17.30 - 20.00 - 22.30.
X - 1 Aretoa. «Chocolate bananas» / 11.30 - 15.30 - 17.00 - 18.30 - 20.00 - 22.00.
X - 2 Aretoa. «Damas de compañía» / 11.30 - 15.15 - 16.45 - 18.15 - 19.45 - 22.00.

• ALGORTA

Gurea. «Pretty Woman» / 17.30 - 19.30. 13 gorak.

• BARAKALDO

Duplex A - «Rocky V». Zuz: John Avildsen. Akt: SWylvester Stallone / 17.30. 18 gorak.
Duplex B - «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall / 17.30. 13 gorak.

• DURANGO

Kurutziaga. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker / 19.00 - 22.00. 13 gorak.
Zugaza. Ez dago emankizunik.

• GERNIKA

Gernika. Ez dago emankizunik.

• LEKEITIO

Antzoki. Ez dago emankizunik.

• ONDARROA

Alameda. «Regreso al futuro III» / 18.30 - 22.15.
Bide Onera. «La escalera de Jacob» / 18.30. Horrez gai, ikus zinema-bideo.

• PORTUGALETE

Java. «El novato». Zuz: Andrew Bergman. Akt: Marlon Brando, Matthew Broderick / 17.30 - 19.45 - 22.00 - 01.00.

• SESTAO

Amezaga. «Presunto inocente» / 18.00 (etenik gabeko emankizuna).

• ZORNOTZA

Udal zinema. «El novato» / 19.00.

«Arachnophobia» filmea estreinatu berria Bilbo, Donostia Gasteiz eta Iruñean.

GIPUZKOA

• DONOSTIA

Amaia. «Uno de los nuestros». Zuz: M. Scorsese / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Astoria 1. «Las edades de Lulu». Zuz: Bigas Luna. Akt: Francesca Neri, Oscar Ladoire / 17.30 - 20.00 - 22.45. 18 gorak.
Astoria 2. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker. Akt: Patrick Swayze, Demi Moore / 17.15 - 20.00 - 22.45. 13 gorak.
Astoria 3. «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall. Akt: Jeff Daniels, Julian Sands / 17.00 - 19.30 - 22.15. 13 gorak.
Astoria 4. «Dos chalados y un fiambre». Zuz: Emilio Estevez. Akt: Charlie Sheen, Emilio Estevez / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Astoria 5. «El poder de un Díos». Zuz: Peter Fleischmann. Akt: Edward Zentara, Alexander Filipenko / 17.15 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Astoria 6. «Santa Cruz, el cura guerrillero». Zuz: Jose Mª Tuduri. Akt: Ramón Barea, Carlos Zabala / 17.15 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Astoria 7. «Pretty Woman». Zuz: Garry Marshall. Akt: Richard Gere, Julia Roberts / 17.15 - 20.00 - 22.45. 13 gorak.
Petit Casino 1. «El cielo protector». Zuz: Bernardo Bertolucci. Akt: Debra Winger, John Malkovich / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Petit Casino 2. «Quieto, muere, resucita». Zuz: Vital Kanevski. Akt: Dira Drukarova, Pavel Nazarov / 17.00 - 19.00 - 21.00 - 23.00.
Petit Casino 3. «Muñeco Diabólico II». Zuz: John Lafia. Akt: Alex Vicent, Jenny Agutter / 17.00 - 19.00 - 21.00 - 23.00. 18 gorak.
Principe. «Hardware, programado para matar». Zuz: Richard Stanley. Akt: Dylan McDerrmott, Stacey Travis / 17.15 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Antzoki Zaharra. Ikus antzerkia.
Rex. «Linea mortal». Zuz: Joel Schumacher. Akt: Kiefer Sutherland, Julia Roberts / 17.30 - 19.45 - 22.30.
Victoria Eugenia. Ikus musika.
Savoy. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus. Akt: Macaulay Culkin, Joe Pesci / 17.15 - 19.45 - 22.30.

• ARRASATE

Alai. «Rocky V». Zuz: John G. Avildsen. Akt: Sylvester Stallone / 19.00 - 22.00. 18 gorak.

• AZPEITIA

Soreasu. Ez dago emankizunik.
Zelaitxo. «Shocker... 100.000 voltios de terror» / 22.00.

• BEASAIN

Usurbe. Itxita.

• BERGARA

Novedades. «La escalera de Jacob» / 22.15. 18 gorak.

• EIBAR

Unzaga. «Rocky V». Zuz: John G. Avildsen. Akt: Sylvester Stallone / 19.30 - 22.15. 18 gorak.

• ELGOIBAR

Herri Antzokia. Ez dago emankizunik.

• IRUN

Avenida. «La historia interminable II» / 19.30 - 22.15.
Bidasoa. «La escalera de Jacob». Zuz: Adrian Lyne / 17.00 - 19.30 - 22.15. 18 gorak.

• LAZKAO

Areria. «Uno de los nuestros» / 22.30. 13 gorak.

• LEGAZPI

Legazpi. Itxita.

• LEGORRETA

Herri Antzokia. Ez dago emankizunik.

• ORDIZIA

Herri Antzokia. «Regreso al futuro III» / 22.15.

• OÑATI

Santa Ana. «48 horas más» / 22.30.

• MUTRIKU

Ederrena. Ez dago emankizunik.

• TOLOSA

Iparragirre. Ez dago emankizunik.
Leidor. «La historia inteminable» / 22.30.

• ZARAUTZ

Modelo. «Homer y Eddie» / 19.30 - 22.15.

• ZUMAIA

Aita Mari. itxita.

• ZUMARRAGA

Itzalon. Ez dago emankizunik.
Zelai Aristi. «Adios al rey» / 19.30.

LAPURDI

• BAIONA

Atalante 1. «Presume inocent». Zuz: Alan J. Pakula. Akt: Harrison Ford, Bonie Bedelia / 16.15.
Atalante 2. «Attends-moi au ciel». Zuz: Antonio Mercero / 18.30.
Atalante 3. «Tilaï». Zuz: Idressa Ouedraogo / 20.30.
Atalante 4. «Un compagnon de longue date». Zuz: Norman Rainé / 22.30.
Marine 1. «Memphis Belle». Zuz: Michael Caton. Akt: Matthew Modine, Eric Stoltz / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Marine 2. «Maman j'ai rate l'avion». Zuz: Chris Columbus. Akt: John Hugues, Makauley Culkin / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Marine 3. «L'exorciste: la suite». Zuz: W.P. Blatty. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Marine 4. «Ski Patrol». Zuz: Richard Correll. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Marine 5. «Rocky V». Zuz: John G. Avildsen. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Marine 6. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Vauban Plus. «L'experience interdite». Zuz: Joel Schumacher. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Vauban 1. «Le Decalogue». Zuz: Krzystof Kieslowski (B. B. azpititulduna) / (I-II) 14.30 - (III-IV) 19.45 - (V-VI) 22.15.
Vauban 2. «L'echelle de Jacob». Zuz: Adryan Lane. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Vauban 3. «Uranus». Zuz: Claude Berri. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Vauban 4. «Pretty woman». Zuz: Garry Marshall. / 14.30 - 19.45 - 22.15.
Vauban 5. «La petite sirène». Walt Disney-ren marrazki bizidunak / 14.30. «Le seul temoin». Zuz: Pete Hyams. / 19.45 - 22.15.

• KANBO

Aiglons. «Les tortues ninja». Zuz: Steve Barron / 20.30.

• D. LOHITZUNE

Pergola 1. «Dancing Machine». Zuz: Gilles Behat / 21.00.
Pergola 2. «Lacenaire». Zuz: Francis Girodre / 21.00.

• MIARRITZE

Royal 1. «Rocky V». Zuz: John G. Avildsen. / 15.00 - 21.00.
Le Royal 2. «Uranus». Zuz: Claude Berri. / 15.00 - 21.00.
Le Royal 3. «Ripoux contre Ripoux». Zuz: Claude Zidi. / 15.00 - 21.00.
Colisse. «Outremer». Zuz: Brigitte Rouan. / 14.45 - 21.30.

NAFARROA

• IRUÑEA

Gaiarre. Ez dago emankizunik.
Golem 1. «Las edades de Lulu». Zuz: Bigas Luna. / 17.30 - 20.00 - 22.45.
Golem 2. «El novato». Zuz: Andrew Bergman. / 17.30 - 20.00 - 22.45.
Golem 3. «La sirenita». Walt Disney / 17.15. «Bienvenido al paraiso». Zuz: Alan Parker. / 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Golem 4. «Impulso sensual». Zuz: Harold Becker. / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Golem 5. «Linea mortal». Zuz: Joel Schumacher. / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Golem 6. «Santa Cruz, el cura guerrillero». Zuz: Jose Maria Uduri. / 17.30 - 20.00 - 22.45 . 13 gorak.
Iturrama 1. «Las chicas de la tierra son fáciles» / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Iturrama 2. «El exorcista III» / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Iturrama 3. «Monjas a la carrera» / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Iturrama 4. «Ghost». Zuz: Jerry Zucker / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Carlos III. «Aracnofobia». Zuz: Frank Marshall. / 17.30 - 19.45 - 22.30.
Olite 1. «Pretty Woman». Zuz: Garry Mashall. / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Olite 2. «El señor de las moscas». Zuz: Harry Hoock. Akt: Paul B. Getty / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Olite 3. «El cielo protector». Zuz: Bernardo Bertolucci / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Olite 4. «Dos chalados y un fiambre». Zuz: Emilio Estevez. / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Principe De Viana 1. «Solo o en compañía otros...» / 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Principe De Viana 2. «Solo en casa». Zuz: Chris Columbus / 17.30 - 19.45 - 22.30.
Principe De Viana 3. «El reencuentro del amigo». Zuz: Jerry Schatzberg. / 17.30 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.

NAFARROA BEHEREA

• ARROSA

Gazteen etxea. «Lettres D'Alou». Zuz: Montxo Armendariz / 21.00.

ZUBEROA

• MAULE

Maule Baitha. «Pretty Woman». Zuz: Garry Marshall. Akt: Richard Gere, Julia Roberts / 21.00.

KRITIKA

J.J. IRIBAR.

«Milena»

ARGAZKI ZATITUA

Zuz. eta gid. Véra Belmont. **arg.** Dietrich Lohman **mus.** Jean Marie Senia **akt.** Válerie Kaprisky, Stacy Keach, Gudrun Landgrebe, Peter Gallagher.

Benetako pertsonaia dugu Milena. Prahan jaioa, Kafkaren itzultzailea izan zen eta postatruke luzea izan zuen berarekin. Kazetaria aldi berean, Munduko bi Gerren arteko garaiaren lekuko izan zen eta nazien ziegetan hil zen. Zalantzarik gabe pertsonaia interesgarria eta baita erakargarria ere.

Véra Belmont zinegileak hartu zuen bere gain pertsonaia eta istorioa idatzi zuen. Agian azken hau da filmearen koxka nagusiena, gidoiak itxuraz une adierazgarrienak besterik ez bait ditu biltzen. Momentu melodramatiko horien bidez, zuendariak Milenaren bizitzaren azalpena egien digu. Istorioa atal desberdinetan banatzen da: Milenaren lehen amodioa, Kafkarekiko sentitzen duen grina eta mirespena, komunista bilkatu eta ezkontzen den garaia, ondoren antikomunista, ostean drogazale eta azkenik faxisten aurka ihardungo du. Gauza guzti horiek gertatzen zaizkio Milena Jesenskari, baina bizitzaren zati bakoitza kolore bakarrekoa azaltzen zaigu. Filmean pertsonaiak ez du garapenik. Bapatean aldatzen da. Azaleko arrazoiak ezagutzen ditugu baina ez barnekoak.

Válerie Kapriskyk egiten du Milenarena, baina bere pertsonaiak ez du nortasunik. Nortasuna besteengan dago. Horrela Milena bere lehen amorantearen jarraipena izango da, drogaren morroia izango da e.a. Bere izaera ingurukoen menpe dago. Harrigarriagoa oraindik filmea emakume batek zuzendu duela kontuan hartzen badugu. Girotzea eta karakterizaioa ere nahikoa baldarrak dira. Filmeak hogei urteko tartea jasotzen du, baina amaieran hasiera bezain gazte agertzen zaizkigu denak. Gakoa filmea izateaz gain, telebistarako (FR3) saila izatean egon daiteke.

URTARRILA
18
OSTIRALA

7.35 SORTU — 17.16 GORDE

23an ilgora

HOROSKOPOA

UXUE AGIRRE

ARIES
martxoak 21 — apirilak 20
Bada garaia zure sudurra non den jakiteko; ez badu euririk egiten sar zaitez dutxa azpian.

TAURUS
apirilak 21 — maiatzak 20
Ez zaitez oinetakorik gabe inora irten; kiratsa ez bait da inorentzat gustoko izaten.

GEMINES
maiatzak 21 — ekainak 20
Oheratzean lokartu zaitez edo bestela hurrengo eguneko logaleaz damutuko zara.

CANCER
ekainak 21 — uztailak 20
Karramarroak bezala atzera egiten ari zara. Oiloek ere aurrera ibiltzen direla gogoratu.

LEO
uztailak 21 — abuztuak 23
Ez daki inork nondik nora zabiltzan. Hor konpon eta nahi duzuna egin ezazu.

VIRGO
abuztuak 24 — irailak 23
Burua atzean duzula ohartzean, ikusiko duzu zer zenuen buru atzean. Atsotitz txinarra.

LIBRA
irailak 24 — urriak 23
Denak zoriontsu ikustea nahi zenuke, baina ezin duzu lortu. Ez ote zure errua?

SCORPIUS
urriak 24 — abenduak 23
Arantza bat baldin baduzu behatzean, gogoratu bihotzera joango dela biharamunean.

SAGITARIUS
azaroak 23 — abenduak 23
Zure hitz politek ez dute inor hunkituko, hobe duzu esanda dituzunak betetzen ahalegintzea.

CAPRICORNIUS
abenduak 22 — urtarrilak 20
Musu zapia da mukiak kentzeko erabili ohi den tresna, beraz ez itzazu erabili esku zapiak.

AQUARIUS
urtarrilak 21 — otsailak 18
Zure zeinua ura bada ere, ez duzu aspaldian askorik edan. Edan bi basokada bapatean.

PISCES
otsailak 19 — martxoak 20
Arrantza egin beharrean arraindegira joango bazina afalduko zenuke. Bestela jai duzu.

EFEMERIDEAK

Salbatore Mitxelena poetaren jaiotza

1919. urteko urtarrilaren 18an, Zarutzeko Iñurritza auzoko Etxebeltz baserrian jaio zen Salbatore Mitxelena poeta eta euskalzalea. Hego Amerikan misiolari bezala hamar urte pasa ondoren, Suitzara joan zen eta La Chaux-de-Fondsen hil zen 1965eko abenduaren 20an. Bere liburuen artean, 'Aberriak miñ dit eta miñak olerki' eta 'Arantzazu, Euskal sinismenaren pomema' tituluak aurki daitezke.

1919. Versalleseko Bake Konferentzia hasi zen, I. Mundu Gerrak eragindako arazoak konpontzeko.

1938. Paperezko pezetak hasi ziren erabiltzen Espainian.

1949. COMECOM erakundea sortu zuten, Soviet Batasuna eta bere espa-rruko herrialdeen ekonomia antolatzeko.

1969. Egyptok eta Israelek ordurarte zituzten gatazkei bukaera emango zien akordioa sinatu zuten.

SANTORALA. Beatriz, Margarita.

TELEFONOAK

Hegoaldetik Iparraldera hots egiteko: 07-33- aurrezenbakia.

Iparraldetik Hegoaldera: 19-34- (eta 45, 4, 43 edota 48, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Nafarroara deituz gero).

Hegoaldeko herrialdeen artean:
Araba: 945-
Bizkaia: 94-
Gipuzkoa: 943-
Nafarroa: 948-

IPARRALDEA

Kostaldeko ospitalea	59 44 35 35
SAMU	15 / 59 63 33 33
Pozoindatze kasuetan	56 96 40 80
Suhiltzaileak	18
Suhiltzaileak BAMen	59 63 55 55
Polizia	17
Baionako Suprefetura	59 59 09 19
Elektrika-gas arazoak	14 / 59 52 10 18
Errepideetako berri	56 96 33 33
Kontseilu Orokorra	59 25 78 40
Miarritzeko aireportua	59 23 90 66
SNCFko trenbideak	59 55 50 50
Laborantza Ganbara	59 29 50 43
Ordua telefonoz	36 99
Meteo agiria (grabatua)	59 22 03 30
Meteo zerbitzuak	59 23 84 15

HEGOALDEA

SOS Deiak	088
Udaltzaingoa	092
Polizia Nazionala	091
Ordua telefonoz	093
Telefono argibideak	003

ARABA

Suhiltzaileak	28 33 33
Gurutze Gorria	13 47 47
DYA	28 10 20
Errepidetako informazioa	25 42 00
Ertzaintza-Arkaute	28 20 00
Miñoiak	13 55 00
Goardia Zibila	25 61 00
Txagorritxuko Ospitalea	24 26 00
Santiagoko O. Orokorra	25 36 00
Ospitale Militarra	13 65 77
Poliklinikoa	22 33 00
Arana Eritetxea	28 28 00
'Nª Sª Esperanza' klinika	25 25 00
Asepeyo klinika	27 46 55
Araba klinika	14 21 00
Forondako Aireportua	27 33 00
Gasteizko RENFE geltokia	23 20 30
Autobus geltokia	25 84 00
'Radio Taxi'	27 35 00

BIZKAIA

Diputazioko suhiltzaileak	492 28 00
Bilboko suhiltzaileak	423 30 00
Gurutze Gorria	422 22 22
DYA	431 92 00
Ertzantza	444 14 44
Larrialdiak (Osakidetza)	475 75 00
Basurtoko ospitalea	441 88 00
Galdakaoko eritetxea	456 88 16
Santa Marina	446 20 66
Gurutzetako ospitalea	490 31 00
Sondikako aireportua	453 13 50
RENFE	423 86 33
ET/FV Atxuri	433 95 00
ET/FV San Nikolas	416 13 12
ET/FV Unamuno plaza	415 50 26
Bizkaia irrati taxiak	416 22 22
'Radio Taxi'	444 88 88
'Tele Taxi'	444 23 33

GIPUZKOA

Donostiako suhiltzaileak	080
DYA	46 46 22
Gurutze Gorria	22 22 22
Itsasoko Gurutze Gorria	27 22 22
Ospitale Probintziala	45 40 00
Erresidentzia	45 38 00
Gurutze Gorria (Donostia)	21 46 00
Gurutze Gorria (Irun)	61 12 03
Poliklinikoa	46 22 00
Deba Garaiko eritetxea	79 53 00
Zumarragako ospitalea	72 39 01
Ertzaintza	28 88 88
Goardia Zibila	21 11 00
Hondarribiko aireportua	64 22 40
RENFEko geltokia	28 35 99
ET/FVko geltokia	45 01 31
Easo Taxiak	46 76 66
Santa Clara Taxiak	46 64 55
Radio Telefonoa	42 66 42
Suital Taxiak	39 80 18

NAFARROA

SOS Deiak/Foruzaingoa	088
Iruñeko suhiltzaileak	22 22 22
DYA	17 17 17
Gurutze Gorria	088
Errepidetako informazioa	22 91 17
Goardia Zibila	22 11 00
Eguneko Psikiatri O.	27 38 12 / 61
Nafarroako ospitalea	10 21 00
Bideko ama birjina O.	10 94 00
Noaingo aireportua	31 75 12 / 51
Iruñeko Autobus geltokia	22 38 54
RENFEko geltokia	12 69 81
Radio Taxi	21 00 00
Teletaxi	23 23 00
Goardiako Farmaziak	22 21 11

EGURALDIA



Hego haizea izango dugu gaur ere

Atzo ez genuen zero azpiko tenperaturarik izan. Hego haizea dugu errudun. Gaur ere horrelatsu izango da. Nafarroaldean zeru garbienak. Mendebaldean lainoak nagusituko dira. Elur edota euririk ez. Haizeak alaikiro joko du hegoaldetik eta tenperaturak ez du behera egingo.

Iragarpenak

Goizez behelainoak mendebaldean. Euskal Herriko ekialdean ostarte zabalak egongo diren arren, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian lainoak izango dira nagusi. Haizeak bolada alaiez joko du ekialdetik. Biharko, laino gehiago eta euri arrisku handiagoa.

Itsasoa

Hegoaldetik jotako 5-6 indarreko haize boladak, 7ko boladez. Bisibilitatea 6 miliatan: ona. Hondoko itsasoa: garrantzi gabeko mailatan. Itsas-haizeari dagokionez, itsaskirria.

Atzoko minimoak aireportuetan

Bilbo	9
Donostia	7
Gasteiz	1
Iruñea	1
Miarritze	8

DENBORAPASA

ENBIDO

GURUTZEGRAMA



EZKER-ESKUIN:

1.- Edergailuak. 2.- Oheraren azpialdea. Garra. 3.- Erbioaren sinbolo kimikoa. Egurra. Masurioa. Berrogeitamar. 4.- Elizkizuna. Pagua. 5.- Arrain mota. Ihardun. Amerizioaren sinbolo kimikoa. 6.- Gabon. Bokala. 7.- Idi, hitz elkarketan.Garai. Merkatu aditzaren infinitiboa. 8.- Kontra. Halaz ere.

GOITIK-BEHERA:

1.-Europako estatua. 2.- Pare jarri. 3.- Artsenikoaren sinbolo kimikoa. Tente. Röntgen. 4.- Iraungiak. 5.- Nauka. Itsas sarrera handia. 6.- Eguraldi.Jupiterren satelite ezagun hori. 7.- Armeniako mendia. Hidrogenoaren sinbolo kimikoa. 8.- Kasik. Antzerki mota. 9.- Kontsonantea. Kuttuna. 10.- Gipuzkeraz, usain, urrin. Erdi, hitz elkarketan. 11.- Urrearen sinbolo kimikoa. Nafarroako ibilgailuetan. Modu atzizkia. 12.- Pluralean, Sokagintzan erabili ohi den landare.

E-37

AURREKOAREN SOLUZIOAK

A: 1. Ezpatak. 2. Apezak. 3. Azpak. 4. Kapa. 5. Apa. 6. Apar. 7. Praka. 8. Kapare. 9. Kaperak.

B: 1.Buztina. 2. Aniztu. 3. Utzia. 4. Zitu. 5. Zut. 6. Zait. 7. Gaitz. 8. Gintza. 9. Gaintza.



13.18: **AURKEZPENA.**

13.20: **VICTOR.** Ingeles ikastaroa.

13.35: **SARAH MAITAGARRIA.** Marrazki bizidunak. 'Ikasturtearen hasiera'.

14.00: **GAUR EGUN.** Albistegia.

14.20: **RIPTIDE.** Telesaila. 'Emaitzarik ez'. Ed Harrison zinegotziak, Quinhan-i laguntza eskatuko dio bere diru iturriak erabiltzen ari den gaizkilea harrapatzeko. Gaizkileak ordenagailu bidez egingo ditu bere lapurketak.

15.10: **TENISA: KIROLA.** Sidney, Atenas eta Toulouseko Txapelketaken lapurpenak.

16.10: **AMAIERA.**

17.38: **AURKEZPENA.**

17.40: **VICTOR.** Ingeles ikastaroa.

17.55: **BILIN BOLONKA.** Haurrentzako saioa. 'Katts eta txakurra'. Stevek arazoak izango ditu, drogaren menpean dagoen lagun bati laguntzerakoan. Bere pentsatzeko erak galerazten dio droga munduan sartzera.

19.20: **STAR TRECK.** Telesaila. Kirk kapitaina, Uhura eta Chekov bizilagunik gabeko planeta bat ikertzen ari direla, milaka argi-urtetara bidaliak izango dira. Planeta berrian, guda-gizonak izateko prestatuko dituzte.

20.15: **GAUR EGUN.** Albistegia.

20.50: **KALEJIRA.** Lehiaketa. Gaurko partaideak: Joseba Arzallus eta Jesus Orbegozo errenteriarrak; Aitor Urkiza eta Mirari Beitia ondarrutarrak; Mikel eta Iñaki Belaustigi mutrikuarrak; Sorkunde Zelaia eta Juan de Arreitunandia mutrikuarrak.

21.25: **FUNTZIOA.** Umorea. Jose Ramon Eizagirre, Gipuzkoa, Euskadi eta Estatuko ziklokros txapeldun berria, izango da gonbidatu berezia. Musikako atalean Niko Etxart iparraldeko kantaria eta 'Scarlata Circus' ekilibristak ere izango dira.

22.30: **SUPER MATHC.** Kirola. Boxeoa, Kirolez kirol eta zesta puntako partidua. Gaueko 23.15etan Gasteiztik zestako partidua, Ado 92 txapelketaren finala: D'Arriku, Etxeberri — Zelaia, Ataian.

01.00: **AMAIERA.**



JOSE Ramon Eizagirre, Espainiako ziklokros txapeldun berria 'Funtzioa' magazinean izango da. Pasa den larunbatean Asturiaseko La Fresneda herrian izan zen txapelketan garaile atera zen txirrindulari urretxuarra. Niko Etxart abeslaria eta 'Scarlata Circus' ekilibristak ere Xabier eta Piterren saioan izango dira.

KRITIKA

IXIDRO LABAIEN

Gaupasa albistegietan

Jadanik denok dakigu atzo goizaldeko ordubatak hogei gutxi aldera hasi zela gerra Golkoan. Abuztuaz gero mundu guztiaren ikuspuntu izan diren Saddam Hussein eta Jorge Bush punturik beroenera iritsi ziren. Baina arrazoia nork duen edo erabakia ona ala txarra den aztertzea bakoitzari dagokio.

Hori bai, komunikabideek eskaintzen diguten albistegiei esker. Gaurkoan, azken hauek goraipatu nahi nituzke, eta ETB zehazki. Telebista gehienak gaueko azken albisteak eskaintzen ari ziren gerraren notizia jaso zenean. Ez zuen inork dudarik egin albistegi hauek goizaldeko ordu txikietatik eguerdiraino luzatzeko, momentuan-momentuko gertakizunak gaupasa egiteko prest zegoen ikusleari eskaintzeko.

Baina nire harridura eta poza ETBk bere emanaldiak amaitu eta handik orduerdira CNN kate iparramerikarrarekin bat eginik albistegi berezi bat eskaintzen hasi zenean izan zen. Zorionak Jasone, Asier, Luis, Txetxu eta hau egin ahal izan zuten tekniko abar luzeari.

Talde ilunak eta masoneria

Masoneriaz hitzegingo da Jose Luis Balbinek zuzendu eta aurkezten duen 'La clave' saioan. Historian zehar pertsonaia garrantzitsuek hartu dute parte talde ilun eta misteriotsu hauetan, adibidez: Mozart edota Ruyard Kipling. 1983ko Joan Paulo II.aren erreforma indarrean sartu arte, eliza katolikoak ez zituen onartzen talde hauetako kideak eta aurkako jarrera azaltzen zuen. Gai honetaz eztabaidatzeko, ondoko hauek hartuko dute parte: Pedro Alvarez Alonso (liberalismo ikerkuntzako institutokoa), F.J. Alonso (maestre haundia), Armando Corona (italiako maestre haundia), J.A. Ferrer, Juan Prat (antropologoa) eta Roman País (rotarioa).

A-3 / 22.00

Informazioa eztabaidagai

Informazioa izango da 'A traves del espejo' telesaioko gaia. Cristina García Ramosek zuzentzen duen saioan, zenbait gonbidatuk informazioaren garrantziaz eztabaidatuko dute. «Primera plana» luzemetraia ere saio berean emango da; Billy Wilder-ek zuzendua, Jack Lemmon eta Walter Matthau aktoreekin.

TVE2 / 22.00

Cristina Garcia Ramos.



13.25: **Aurkezpena.**
13.27: **Simplemente María.** Foiletoia. 115. kapituloa.
14.15: **Menu del día.** Elkarrizketa.
14.30: **Teleberri.** Albistegia.
15.00: **Al hilo de la noticia.** Elkarrizketa.
15.15: **Iñaki, los jueves.** (Errepikapena).
16.45: **Bilin bolonka.** Haurrentzako saioa.
17.50: **Amazonas.** Foiletoia.
18.35: **Niña bonita.** Telesaila.
19.20: **Deseame suerte.** Telesaila.
20.15: **Menu del día.** Sukaldaritza.
20.25: **Tal para cual.** Lehiaketa.
21.00: **teleberri.** Albistegia.
21.35: **Cine-2 viernes: «Intimidades de un separado».** Filmea.
23.15: **Dallas.** Telesaila. 74.kapituloa.
00.05: **Ventana económica.** Ekonomia saila
00.15: **Ultimas noticias.** Albistegia.
00.20: **Al hilo de la noticia.** Elkarrizketa (Errepikapena).
00.35: **Amaiera.**



08.00: **Avance TD.**
08.08: **Gimnasia.**
08.38: **Videomix.**
09.00: **Avance TD.**
09.10: **En buena hora.**
10.00: **La Isla.** Telesaila.
11.40: **Avance TD.**
11.45: **Santa Barbara.**
13.00: **Magazines territoriales.**
13.30: **Yo compro esa mujer.** Telenobela.
14.00: **Informativos territoriales.**
14.30: **No te rías que es peor.** Umorezko saioa.
15.00: **Telediario 1.**
15.35: **La dama de rosa.**
16.30: **Esta es su casa.**
17.20: **Avance TD.**
17.25: **3,2,1... Contacto.**
17.55: **El duende del globo.**
18.00: **Sopa de gansos.**
18.30: **Festival Hanna-Barbera.**
19.20: **Informativos territoriales.** Albisteak.
19.30: **Las calles de San Francisco.**
20.30: **Telediario 2.**
21.00: **Noche de humor.**
22.00: **Pero...¿esto qué es?.** Magazina.
23.15: **TVE en corto.**
23.30: **Serie rosa.**
00.30: **Diario noche.**
00.15: **Alucine. «Cuentos de ultratumba».** Filmea.
01.50: **Deporte noche.**



07.59: **Aurkezpena.**
08.00: **Dibuja-2.** Marrazki bizidunak.
09.00: **TV educativa.** Heziketa saioa.
10.00: **Noticias.** Albisteak.
11.00: **La hora de...**
12.00: **Noticias.** Albisteak.
12.05: **Revista de música.**
13.05: **Barrio Sésamo.** Haurrentzako saioa.
13.30: **Dibuja-2.** Haurrentzako saioa.
14.00: **Webster.**
14.25: **Noticias.** Albisteak.
14.30: **Estadio 2.** Kirol saioa.
15.00: **Cifras y letras.**
15.30: **Paseo central.**
16.25: **Noticias.** Albisteak.
16.30: **Primera sesión: «El Peñón de las ánimas».** Filmea.
18.30: **Noticias.** Albisteak.
18.35: **Historias de cada día.**
19.35: **N.B.A.** Saskibaloia.
19.45: **Dibuja 2.**
20.10: **MR. T.**
20.35: **Parejas.**
21.00: **Noticias.** Albisteak.
21.10: **Tribunal popular.**
22.10: **El espejo.**
22.20: **Largometraje: «Primera plana».** Filmea.
00.05: **Coloquio.**
01.05: **Jazz entre amigos.**
02.00: **Ultima sesión de cine: «El día de la independencia».** Filmea.

08.30: **Télé shopping.**
09.00: **Haine et Passions.**
09.40: **Histoires d'amour.**
10.10: **En cas de bonheur.**
10.35: **Clips.** Musika.
10.50: **Drôles d'histoires.**
11.20: **Jéopardy!** Jokuak.
11.50: **Tournez... manége.**
12.25: **Le juste prix.**
12.50: **C'est bon a savoir.**
13.00: **Le journal de la une.** Albistegia.
13.35: **Les feux de l'amour.** Foiletoia.
14.30: **Côte ouest.**
15.25: **Tribunal.**
15.55: **TF1 paire d'as.**
16.50: **Club Dorothée.**
17.35: **Starsky et Hutch.**
18.25: **Une famile en or.**
18.55: **Santa Barbara.**
19.20: **La roue de la fortune.** Lehiaketa.
19.55: **Le bébête show.**
20.00: **Le journal de la une.** Albistegia.
20.40: **Tapis vert.**
20.45: **Le jeu de la verité.**
22.45: **52 sur la une.**
23.45: **La mafia II.**
00.55: **Au trot.**
01.00: **Tf1 dernière.**
01.20: **Mésaventures.**
01.45. **Intrigues.**
02.10: **Info revue.**
03.10: **Cogne et cagne.**
04.00: **Histoires naturelles.**



08.30: **Amoureusement vôtre.** Foiletoia.
09.00: **Amour, gloire et beautè.** Telesaila.
09.30: **Matin Bonheur.** Magazina.
11.30: **Motus.** Lehiaketa.
12.00: **Ski.**
13.00: **Journal.** Albistegia.
13.40: **Générations.** Foiletoia.
14.25: **Les enquêtes du commissare maigret.** Telasaila
16.00: **Papa poule.**
17.00: **Eve raconte Joséphine Baker.**
17.20: **Les craquantes.** Telesaila
17.45: **Des chiffres et des lettres.** Lehiaketa.
18.05: **Giga.** Gazteentzako saioa.
19.00: **Mac Gyver.** Telesaila.
19.55: **Le petit prince.**
20.00: **Journal.** Albistegia.
20.40: **Avant que le ciel ne nous tombe sur la tête.**
22.05: **Caractères.**
23.25: **Edition de la nuit.** Albisteak.
23.40: **Météo 1,2,3 soileil.** Eguraldia.
23.45: **«Le Kid».** Filmea.
00.40: **«Classe oisive».** Filmea.
01.15: **Amaiera.**

08.00: **Continentales.**
11.00: **Questions pour un champion.**
11.25: **Euro-sud.**
11.50: **Espace 3.**
12.00: **Flash**
12.05: **Décrochage Régional.**
12.45: **Journal.**
13.00: **Sports 3.**
13.40: **Chers détectives à plumes et à sang.**
14.30: **Regards de femme.**
15.05: **Musicales.**
16.05: **Zapper n'est pas jouer.**
17.30: **C'est pas juste.**
18.30: **Questions pour un champion.**
19.00: **Le 19/20.**
20.10: **La classe.**
20.40: **Thalassa.**
21.35: **Napoléon et l'europe.**

22.30: **Soir 3.** Albistegia.
22.50: **Traverses.**
23.45: **Mille Bravo.**
00.40: **Carnet de notes.**

GAURKO FILMEAK

'Primera plana', kazetari izatearen oinazea

ANDRES GOSTIN

15.30	A3	○○○	LA FAMILIA CROMPTON	1970	Peter Hammond	101 m.
15.50	T5	○○○	MEDIO AMBIENTE FRIO	1969	Haskell Wexter	117 m.
16.30	TVE2	○○	EL PEÑON DE LAS ANIMAS	1942	Miguel Zacarias	115 m.
21.35	ETB2	○	INTIMIDADES DE UN SEPARADO	-	Peter Markle	100 m.
22.00	C+(e)	○○	CONTACTO SANGRIENTO	1987	Newt Arnold	100 m.
22.20	TVE2	○○○○○	PRIMERA PLANA	1974	Billy Wilder	100 m.
23.00	C+(f)	○○	RUNNING MAN	1987	Paul Michel Glaser	95 m.
23.45	A2	○○○○○	LE KID	1921	Charlie Chaplin	50 m.
00.15	TVE1	○○○	CUENTOS DE ULTRATUMBA	1973	Kevin Connor	94 m.
00.40	A2	○○○○	CLASSE DISIVE	1921	Charlie Chaplin	31 m.
01.15	T5	○○	EL BICHO	1975	Jeannot Szwarc	101 m.
02.00	TVE2	○○	EL DIA DE LA INDEPENDENCIA	1983	Robert Mandel	102 m.
02.30	A3	○○	JUVENTUD A LA INTEMPERIE	1961	Ignacio F. Iquino	94 m.

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

Kazetariek, karrera ikasten hasi aurretik Billy Wilderren 'Primera plana' filmea ikusiko balute, gaur egun ez litzateke gezurterorik ibiliko munduan bazter denak miatu eta muturra txoko guztietan sartzen. Urkamendira kondenatu duten errudun baten inguruan plumilla horiek erakusten duten jarrera zinikoa, komediak uzten zion garraztasunarekin aurkeztu zuen austriarrak, filme borobila, umoretsua, eta aldi berean kritikoa, osatuz. Wilderren salaketaren aurretik, Haskell Wexlerrek beste bi kazetariren abenturak pantailaratuko ditu, hori bai, tratamendu leunago batez. Kazetaritzaren korapilotik aterata, telebista eskaintzarik onena, Charles Chaplini eskainitako ziklo zoragarriak ekarriko du. Maria Felixen filmeen barnean, berriz, Romeo eta Julietaren beste bertsio bat dugu, eta 'Día de la independencia' tituluak mekaniko batez maitemintzen den emakume baten bestelako erromantzeaz astinduko gaitu. Ikusi halaber James Mason Crompton familiako buruaren rolean.

PRIMERA PLANA

1974, 100'
Zuzendaria: Billy Wilder.
Aktoreak: Jack Lemmon, Walter Matthau.
TVE-2, 22.10etan

Kazetaritzari buruz esan diren egia gutxiren artean, Billy Wilderrek eta I. A. L. Diamond bere ohizko laguntzaile eta gidoi egileak pelikula honekin adierazi zituztenak daude. Bada eszena bat bertan, kazetarien oinazea argi eta garbi agertzen duena: Susan Sarandonek Jack Lemmonekin ezkontzeko duen asmoa azalduko dio Walter Matthauri eta honek, elegantzia osoz, honela erantzugo dio: «Senarra nahi baldin baduzu, har ezazu borreroa edo enterratzailea baina ez zaitez sekula santan kazetari batekin ezkondu». Orduan, Susan Sarandonek bere senargaiak kazetaritza utziko duela aitortuko dio, eta Matthauk, patxada naturalaz, kazetaritza utzi ezinezko ofizioa dela adierazi, ihardetsiko dio: «Ikusi al duzu inoiz leopardoren bat marrarik gabe?». Zoragarria, elkarrizketa zorrotzez josia, inteligentziaz betea. Lemmon eta Matthauren lana ezin da diru hutsez ordaindu. «Kazetari berria naiz. Gaurkoa nere lehenbiziko ejekuzioa da», esango du Lemmonen ordezkariak. «Urkatzeko zain dagoenarena ere bai», erantzungo diote gainerako kazetariek. Gehiegizkoa.

MEDIO AMBIENTE

1969, 117'
Zuzendaria: Haskell Wexler. **Aktoreak:** Robert Foster, Verna Bloom.
T-5, 15.50etan

Wexler, filme ezagunetan parte hartu duen tekniko famatua da eta 'Kuku habiaren gainean hegan' edo '¿Nor da Virginia Woolfen beldurren?' operatzaile eta argazki zuzendari bezala lan egin ondoren, kazetaritzaren inguruko titulu kurioso hau zuzendu zuen. Istripuak, ezbeharrak eta antzeko gertakizunak lantzen dituzten bi kazetari aspertuta daude. Bapatean, beltz behartsu batek taxian aurkitu hamar mila dolar nola bueltatuko dituen ikusiko dute, eta ordutik aurrera beltzen egoeraz kezkatuko dira.

CUENTOS DE ULTRATUMBA

1973, 96'
Zuzendaria: Kevin Connor.
Aktoreak: David Warner, Donald Pleasance.
TVE-2, 22.00etan

Fantasiako filme eta zientzia fikziokoetan tajuz trebatu ondoren, Kevin Connor beldurrezkoekin saiatu zen, ohizko imaginazio apurra erantsiz. Baina bere zinemako azierto eta akats guztiak inportatu zituen genero berrira, eta historiak kondatzeko zailtasunak izaten ditu. Antigoaleko traste eta ispilu baten inguruko espiritismo saioak hartuko du hariaren lekukoa.

EL PEÑON DE LAS ANIMAS

1942, 120'
Zuzendaria: Miguel Zacarías. **Aktoreak:** Jorge Negrete, María Félix.
TVE-2, 17.30etan

Romeo eta Julieta, Fernando eta Maria Angela bihurturik. Capulettoak eta Monteskoak, Iturriaga eta Valdivia familien azalean. Genovako kaleak Jaliscoko rantxoen koloreaz. Shakespearen drama erromantikoak Jorge Negrete eta Maria Felix izango ditu protagonista bezala bere hamaikagarren bertsioan. Mexikoko lurrak eta usadioak ezaugarri bereziak erantsiko dizkio historiari. Bi aktoreek bikote ona osatuko dute, nahiz eta Miguel Zacarias zuzendari eta gidoigilea, filme txukuna egiteko kapaz ez izan.

LE KID

1921, 50'
Zuzendaria: Charlie Chaplin. **Aktoreak:** Charlie Chaplin, Jackie Coogan.
A-2, 23.45etan

Charlie Chaplinen humanismo guztia haur abandonatu bat aurkitzen duen arlotearen ikuspegitik. 'Le kid' maitasun kantua da, malkoak eta algarak sortuko dituen komedia dramatikoa. Bonbina eta bastoiaz gain, Charlotek bere bihotza erakutsi zion oraingoan tarteka negarra ixur arazi zigun Jackie Coogani, gendarme baten aurrean Chaplinekin hainbat bider ikusi dugun mukizu horri.

C+(f) — FUTBOLA, Lyon-Monaco — 20:30

TVE1 — NOCHE DE HUMOR, Umorea — 21:00

TVE 2 — A TRAVES DEL ESPEJO, Eztabaida — 22:10

TELE 5 — ENTRE HOY Y MAÑANA, Albistegia — 23:45

LA CINQ

07.15: **Youpi!.** 09.00: **Le club du télé achat.** 09.20: **Anne jour aprés jour.** 09.35: **Aux frontières du possible.** 10.35: **Lunes de miel.** 11.00: **Télé contact.** 11.30: **Les surdoués.** 12.00: **Le midi pile.** 12.05: **Public.** 12.30: **Un rien mabille.** 12.45: **Le Journal.** 13.30: **Matlock.** 14.25: **Le renard.** 15.30: **Bergerac.** 16.30: **Youpi l'école est finie!** 18.30: **Happy days.** 19.00: **Arnold et Willy.** 19.10: **Tel père tel fils.** 20.00: **Le journal.** 20.35: **Drôles d'histoires.** 20.40: **«Enquête d'indices.** 22.25: **L'inspecteur Derrick.** 23.30: **Nomades.** 00.00: **Le minuit pile.** 00.10: **Tennis.** 01.10: **Aux frontières du possible.** 02.35: **Lunes de miel.** 02.00: **Anne jour après jour.** 02.15: **Tendresse et passion.** 02.40: **Journal de la nuit.** 02.50: **Voisin voisine.** 03.45: **Tendresse et passion.**

M6

06.00: **Boulevard des clips.** 07.05, 08.05, 09.05, 10.20, 11.05, 14.45 eta 00.25etan ere **bai.** 07.00: **M6 Express. Orduero** 12.00ak arte eta 16.00etan. 07.05: **Contact 6 manager.** 10.05: **Infoprix.** 10.10: **M6 Boutique.** 11.35: **L'aventurier.** 12.05: **Papa Schultz.** 12.30: **Ma sorcière bien aimée.** 13.00: **Dis donc papa.** 13.25: **Madame est servie.** 13.55: **Docteur Marcus Welby.** 15.30: **Bleu, blanc, clip.** 16.45: **Vegas.** 17.40: **Zygomusic.** 18.00: **Zygomusic.** 18.30: **Papa schultz.** 19.00: **Magnum.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Madame est servie.** 20.30: **Météo 6.** 22.35: **Les loups dans la nuit.** 22.20: **Brigade nuit.** 23.10: **La 6e dimension.** 23.40: **Capital.** 23.45: **6 minutes.** 23.50: **Dave en concert.** 02.00: **Hommes et architecture du sahel.** 02.50: **Au carrefour du boudhisme et l'hindouisme.re pub. 3.35: Culture pub.** 04.00: **60 minutes.** 04.50: **Tan dura es la vida.**

CANAL+

08.05: **Les nuls... l'émission.** 09.00: **«La vengeance d'une femme».** 11.05: **Flash info.** 11.40: **Mancuso, FBI.** 12.25: **La grande famille.** 13.30: **«Big».** 15.10: **Les inventions de la vie.** 16.00: **«Futur inmédiat, L.A. 1991».** 17.30: **Rapido.** 18.00: **Cnaille peluche.** 18.30: **Ça cartoon.** 18.50: **Top Albums. ulle part ailleurs.** 20.05: **Football:** 22.40: **Exploits.** 23.00: **«Running man».** 00.35: **«Du blé plein les poches».** 02.45: **«Nuits très chaudes aux Caraibes.**

CANAL+

07.10: **Buenos días, buenos clips.** 08.00: **Redacción.** 08.10: **El tigre enmascarado.** 08.35: **ABC Worl News.** 09.00: **Redacción.** 09.10: **Los 40 principales.** 10.00: **«Cuentos asombrosos VI».** 11.12: **Escándalo: por la via rápida. Dokumentala.** 12.05: **«Manos de asesino».** 13.42: **Redacción.** 13.45: **Humor: Rhubarb, Rhubarb.** 14.15: **«Tierra de nadie».** 16.00: **«La casa de Carroll Street».** 18.05: **Hallo Spencer.** 18.35: **Los 40 principales.** 19.30: **Primos lejanos.** 20.00: **Redacción.** 20.10: **«Fievel y el nuevo mundo».** 21.28: **Tiny Toons.** 21.55: **Redacción.** 22.00: **«Contacto sangriento».** 23.30. **'El Sr. H se retrasa'.** 00.00: **Redacción.** 00.30: **«Casa de juegos».** 02.08: **«El regreso de los tres mosqueteros».** 03.42: **«Pathfinder».** 05.05: **Piezas canal +.** 05.20: **«Slugs».** 06.50: **«Luna de lobos».**

TELE 5

08.00: **Marrazki bizidunak.** 09.00: **Corín Tellado.** 10.00: **Vip.** 10.30: **Días de baile.** 11.15: **Camino de luz.** 11.45: **Misión imposible.** 12.45: **La revancha.** 13.30: **La magia de Emmy.** 14.00: **Entre platos anda el juego.** 14.30: **Pase por caja.** 15.00: **Señora.** 15.50: **«Medio ambiente».** 17.45: **Super guay.** 19.00: **Misión imposible.** 20.00: **Vip.** 20.30: **Campeones.** 20.55: **Hoy.** 21.00: **Telecupón.** 21.15: **Su media naranja.** 22.00: **La compañía.** 23.45: **Entre hoy y mañana.** 00.15: **¿Hablando se entiende la gente?.** 01.15: **«El bicho».**

A3

08.00: **Noticias.** 08.05: **La guardería.** 09.30: **Noticias de la economía.** 09.45: **De tú a tú.** 10.15: **Pasarela.** 11.00: **Teletienda.** 11.30: **Noticias. La salud es lo que importa.** 12.45: **Teletienda.** 13.00: **Pasionaria.** 13.50: **Noticias.** 14.00: **Los segundos cuentan.** 14.30: **Embrujada.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **«La familia Crompton».** 17.10: **Teletienda.** 17.20: **Noticias.** 17.23: **La merienda.** 18.50: **Teletienda.** 19.00: **El coche fantástico.** 20.00: **La ruleta de la fortuna.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **El hombre de los seis millones.** 22.00: **La clave I. La clave II. «Juventud a la intemperie».**

IRRATIA

Arrate Irratia.	FM 87.7	Gure Irratia.	FM 89.6
Bizkaia Irratia.	FM 102.6	Irulegi Irratia.	FM 93.1
Donost. RNE-R4.	FM 92.2	Gipuzkoa Herri Irr.	FM 99.8
Egin Irratia.	FM 103.0	Segura Irratia.	FM 89.2
Euskadi Irratia.	OM 1.161	Xiberoko Botza.	FM 98.6
Euskalerria Irratia.	FM 91.0	Xorroxin Irratia.	FM 107.5

Bizkaia Irratia. Egunero, goizeko 10.30etan eta eguerdiko 13.30etan, laborariei zuzenduriko Baserria irratsaioa.

Arrate Irratia. Gaueko 20.40etan, 'Jolasean' umeen irratsaioa Kalamusorgin sorginarekin. 'Sutondoko erromerian', Uite eta Zabale trikitilarien saio alaia. (21.30).

Xiberuko Botza. Kultur emanaldia: Miarritzeko Oldarra dantza taldeak, bihar Maulen aurkeztuko duen ikusgarri berriaz solasaldia goizeko 10.30etan. Arratseko 19.30etan Iparraldeko hiru irratiek bat egingo dute presoen emanaldia eskaintzeko. Jazz musika ere izango da gaueko 20.30etan.

Irulegi Irratia. Xiberuko Botzarekin batera Oldarra dantza taldearekin elkarrizketa. Amikuzeko egoera larria aztertuko dute zuzenean Donapeleutik. Goizeko 11.00etatik aurrera.

Gipuzkoako Herri Irratia. 'Zuzenean zuretzat' saioan, entzuleek aukera dute, beren agurrak bidaltzeko batik bat zahar eta gaixoei eskutitz bidez edo zuzenean telefonoz deituko zaie.

Euskadi Irratia. Andu Lertxundi idazleak zuzentzen duen ostiraleroko 'Iturri onetik' saioan, umorezko testuen bildumaren, bigarren zatia emango da.

EGUNEKO DIANAK

Joan Paulo II

Gerra hasiera nazioarteko zuzenbide eta komunitatearen porrota larria dela esan zuen atzo Joan Paulo II Aita Santuak. Eliz mandatariak bere atsekabe sakona agertarazi zuen eta «hasitakoa lehenbailehen buka dadila» eskatu. Aita Santuak adierazi zuenez, «indarra erabiltzea ez da izan eta ez da behin ere izango nazioarteko arazoak konpontzeko bide zuzena». / 12

Euskaltzaindia

Nafarroako Gobernuaren gomendioz Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak osatu eta argitara emandako 'Nafarroako herri izendegia£ aurkeztu zuten atzo Iruñean. Azterketa honen arduradunek ikerketa hau Nafarroako herrien izenei buruz egin den sakonena dela eta nafar toponimiaren inguruko zalantza asko argitzeko izango dela baliagarria nabarmendu zuten. / 7

Astigarraga eta Loiolako pilotariak

Pilotarien bultzadaz eta pilota jokoa jolasa bihurtu nahian, Astigarraga eta Donostiako Loiola auzoko frontoietan egiten diren entrenamenduak agerikoak izango dira eta ikusleek parte hartu ahal izango dute. Nahi duten guztiak partehartzera gonbidatuta, pilotalekuotan entrenatu ohi duten pilotariek, pilota zaletasuna berreskuratzea dute helburu. / 23

Frantziako

Pierre Mauroy Frantziako PS (Alderdi Sozialista) alderdiko idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, Pertsiako Golkoan indarra erabiltzearen aurka azaldu ziren bere alderdiko hamaika parlamentari pardidutik bota dituzte. Zortzi diputatu eta hiru senadorek «aurrerantzean ezin izango dute ez hitzegin ez eta idatzi ere PSren izenean» esan zuen Mauroyk. / 16

Javier Sada: «Herri txikiko mentalitatea du Donostiak»

JOXAN OIZ / **DONOSTIA**

Donostiako historiari buruz ia dena dakienik bada, hori Javier Sada dugu. Kamioikada bat orri xahar eta dokumentu omen dauka bere etxean. Arratsaldero, lanetik irtenda, liburu eta paperrok harrotuz ematen ditu orduak 48 urteko donostiar honek, «telebistari so edota txanpinoiak landatzen egon beharrean, nahiago dut Donostiako historia ikertu, nere hobby-a da». Historilaria ez izan arren, «beste titulurik ere ez dut, 13 urterekin utzi bait nuen eskola eta ez zidaten 'kartila eskolarra' delakoa eman», ederki baino hobeto ezagutzen ditu Donostiako pasadizuen zirrikitu guztiak. Donostiako antzerkigintzako historiari buruz izan zen bere lehengo ikerlana, baina antzerkia alde batera utzita historia/Donostia bikotearekin geratu zen.

Historia du gustoko baina nahiago du intrahistoria kondatu. «Kronista naiz ez historilaria. Azaldu nahi nituzke garai bateko jendearen sentimenduak eta jokamoldeak eta ez irabazleen historia ofiziala». Azaltzen, pilaturiko jakinduria plazaratzen, gozatzen du: «zientoka hitzaldi, irratsaio, artikulu eta abar egin ditut hemen Gipuzkoan». Lana, ogibidea, Donostiako CATen (Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea) eta dirudienez, bere iharduera ikusita, jendeak nahastu



egiten ditu hobbya eta lana. «Nere ofizioa gaurko Donostiako bizitzan txertatzen da eta afizioa, berriz, garai bateko Donostian koka liteke».

Bere kondakizunek arrakasta handia izaten dute jendartean, eta horretaz konturatu da: «Ni ez naiz ikerlari edo historiadore, baina saiatzen naiz historiako liburu astun eta lodikote horiek kale mailako azalpenetan agertzea. Hori da agian nere papera, laurentzat idatzita dagoen informazioa itzuli, xehetu eta errazkiro bigarren pisoko etxekoandreari eman».

Topiko donostiar asko Baroja inprimategitik atera direla uste du. Manterola, Serafin Baroja, Sarriegi eta beste Donostiako intelektualengandik joan den mendea atera zirela dio. «Hortik sortu ziren donostiar txoriburu, josemaritarra, jatorra, soziedadezale eta bezalako terminoak. Gero, ez dakit txartzat joak edo, topiko bihurtu ziren». Donostiarra izatea topikoa izatea ez zaio gustatzen. Berak nahiko luke donostiarrak, iruñearra edota bilbotarra bezala, garbitasun, edukazioa edota kortesia eredua izateagatik nabarmentzea. «Hiriburuen arteko liskar eta txisteak ezin ditut jasan, nazka ematen didate. Lau katu gara Euskal Herrian eta ezin dugu elkarri mokoka aritzea».

Donostiako hiritasuna aipatuta, hauxe da Sadaren eritzia: «Donostia oraindik herri txiki baten mentalitatea duen hiria da. Kotxea etxeko atarian uzten ez badugu segitun ernegatzen gara eta hori herri txikietan soilik gertatzen da». Bihar Sebastian bezpera izanik, ezin San Sebastian eguna aipatzeke utzi. «Zaila da definitzen egun hau, baina esan genezake Sarriegiren martxa dela donostiar guztiok batzen gaituen gauza bakarra».

SOSLAIA

Donostiak banderarik ez duela dio

Urgul mendia eta Santa Klara uhartearen artean urpeko biderik ba ote dagoen jakiteko Sadari galdetu. Zein izan zen estraineko Danborjole Nagusia? Sadari galdetu. Kale honek halako izena zuen lehen, ezta? Ez dakit. Sadari galdetu. Bai, Donostiako ohitura eta pasadizuen berri izan nahi baduzue Sadari galdetu. Beti ikasten da zerbait bere etengabeko hizjarioa entzunez. Ni neroni atzo enteratu nintzen Donostiak ez duela banderarik (Bilbok ere ez portzierto!), gure bandera txuriurdina itsasuntzi donostiarren bereizgarria besterik ez dela, alegia.

LERRO GUTXITAN ETA BIHAR

Vatanen txapeldun Paris-Dakarren

Ari Vatanen eta Stephane Peterhansel izan dira aurtengo Paris-Dakar rallyaren irabazleak. Kotxeei dagokienez, ezbehar ugariren ostean Citroen taldeak, behar zuen garaipena eskuratu du Vatanen finlandiarraren eskutik. Motoetan, Yamaha nagusitu da hamairugarren edizio honetan, Stephane Peterhanselez gain Yamahako gidariak nagusitu bait dira sailkapenean. Azken emaitzak baino, proba honek izan dituen gorabeherak, pilotu baten hilketa barne, izan dira protagonista.

ANTTON txerria dugu hau, Bilboko 'Zerrien Dohainen Defentsarako Akademiak' atzo aurkezturiko maskota. Gasteizko San Anttoneko txerri sariketan, 82508 zenbakidun txartela izan da sariduna.

Pinochet Hiriart arma tratuetan Gadafirekin

Muamad Gadafi Libiako agintariak, Chileko diktadore ohiaren semeari, Augusto Pinochet Hiriart, hirureun mila dolar (hogeitamar milioi pezeta, milioi t'erdi libera) mailegatu zizkiola jakinerazi zuen atzo Chileko legebiltzarrak. Pinochet Hiriartek Chileko fusil lantegi bat finantziatzeko erabili zuen dirutza hau. Diputatu batzorde bat, bitartean, armadak Pinocheti ordaindutako hiru milioi dolar inguruko diru piloaren inguruan ari da ikertzen. Pinochet berak batzorde honi aditzera eman dionez Israel eta Libian aholkularitza militar lanak egin ditu eta nazioarteko merkatuan arma bitartekari dela gaineratu du.

Liburuak izango dira notizia

Biharko orrialde bereziak liburuei eskainiak izango dira. 'Hots' argitaletxe legazpiarraren berri jakin dugu Aitor Aranarekin hitzeginda. Esperantoa euskaraz ikasteko aukera ematen duen liburu bat kaleratu berri du Aitor Aranak argitaletxe honetan, eta euskara-esperanto hiztegia ere argitaratzeko asmoa du. Bestalde, Patziku Perurenak bere maisua zein den aitortzen du 'Liluratura' sailean, eta Pablo Sastreri egin diogu asteroko test-galdeketa.

APIKA INFORMATIKA

ADIZU: APIKA, GESTIOGINTZAN MAISU

DONOSTIA
Ametzagaña 19, beehea. Tl. (943) 274711 – 283399.
Fax (943) 274600
BILBO
Begonalde 9-1. Tl. (94) 4467684.
Fax (94) 446 76 85

BEHAR DUZUNA, IZATEZ ETA NEURRIZ, INFORMATIKA BERRIZ